

# JAKIN

EUSKAL-GAZTEDIA KULTURA BIDEETAN



# AURKIBIDEA

Gazteriak salatzen du ... ..	J. A. Otaegi ... ..	3
Atomuaren etxe-barnea ... ..	I. Iturrizotz ... ..	11
Liturjia berria ta euskera ... ..	Oiarzabal-dar A ... ..	16
Gidariak sortzeko metodo komunistak ... ..	J. M. Begillaga ... ..	23
Pernando dala-ta ... ..	Zabala ta Bengoetxea-tar P. M. ... ..	29
Sozial enziklikak zertarako? ... ..	P. A. García Chasco ... ..	32
Hiroshima, mon amour ... ..	Intxausti-tar J. ... ..	37
Asi gaitezen komunismuarekin alkar izketan ... ..	J. Azurmendi ... ..	43
Elkarrizketa ... ..	... ..	48
Katolikoaren egintza politikan ... ..	J. M. Torrealdai ... ..	55
Neskatxak ez dute euskeraz itzegin nai ... ..	J. Azurmendi ... ..	62
Elorri ... ..	P. M. Zabaleta ... ..	69
Graham Greene eta apaiz baten fedea ... ..	Olaberria-tar I. ... ..	73
Gizonari dagokion edukazioa ... ..	A. Zuanetakoia ... ..	82
Europaren batasuna 1700'ean ... ..	Zabala-tar P. M. ... ..	89

## SAL-NEURRIA

Españan

alea: 20 pta.

urtekoa: 60 pta.

Argazkia: San Martin — ARRIZALA-ko Dolmena.

# Jakin

16'gna Arantzazu'n

1964



Bi urte... eta ba-gera berriz ere! Bai, irakurle, bi urte joan dira azkeneko JAKIN-etik ona, eta amaikatxo kontakizunik izan da baztarretan: Konzilioa ta Juan XXIII eta PauloVI eta Kennedy eta, eta... asko! Gure etxealderago berriz, Etxaide ta Orixe ta Altube il zaizkigu. Danak ziran auek JAKIN-en gusto gustokoak; baiña patuaren aizeak eraman ditu kondairaren etxera-ta... Ala ere, gizonak ez dira sekula erabat joaten mundutik. Txiki ta aundi, beti uzten dute beren ondorengoa, perfumeak atzetik beren usai gozoa bezela, eguzkiak beroa bezela. Bizitzak beti eltzen dio zeri ari, ta erne egiten da berriro: gorrotoa naiz maitasuna, berebat pakea ta gerra, edota giza-espirtuaren illunteak eta norabide argitsuak. Ez, gizonak ez dira erabat iltzen, naiz eta besteen buru-biotzetan aazturik gelditu.

Besteak beste, berriz, gure Etxaide ta Orixe ta Altube ere ez dira gure euskalzaleen biotzetan itzaliko. Izan ere,

euskerari eurek emandako indarra ta bizimena ta argia ta izerdia barnean ere oso barnean baldaude, eta euskeraren bizinaiak ezin dezake aaztu bere langille jatorrenetako iru oiek eman dioten bultzadaren sua.

Ain zuzen euskaldun aundi oietxen asmoak erori dira JAKIN-en soroan aziak antzo, eta emen erneko dira berriz ere ta emen elduko, euskalzale jator oien oroigarririk bi-kaiñena bezela: euren euskera-miña, ta euren euskera gau-rreguneratzeko joran bizia, ta euren “euskal-erri baten ar-nasa mamitzeko” alegiñak. Asmo ta elburu onetxek artu gaitu gaurko jakinlariok ere eta auxe eskeiñi diegu maixu maite biotzeko oiei omenik eta agurrik beroena bezela. Guk ere leengo erri zaarraren arnasez mamitu nai ditugu orain-go biziera ta kultura berriok; leengo ta betiko euskal-kutsu-rik galdu gabe, nortasun-berritu egin nai dugu gure euskal-erri zaarra gaurko munduaren pentsakera, bizimodu ta biz-kortasunez. Alkar artu dezagun danok saiaketa ontan, Orixe aundiarekin esanaz: “ats emaiogun ontan irau dezan”.

F. M.

# GAZTERIAK SALATZEN DU

Jose A.  
Otaegi

Askok azterkatu digute, gaztezarora deritzan bizitzaren zatí aldrebesak daramakien kalbario latza. Jakituri ederrez egingo zuten, bearbada. Batek, alare, ezin menderatu izan du gazte den ezkerro gazteriarren errai barruetatik daukan gazteriarekiko iritzia azaltzeko tentaldia.

Bat ez da jakintsu, ez besteak baiño azkarrago, ez du eskarmentu apartekorik. Beraz, ez du uste beste edozeinek ez duen deretxorik duela, auzian eskua sartzeko. Bat, azkenik, bat da ta ez luke nai debaldetan bere gain artu gazteriarren ize-na. Baiña mundu guztiak aotan

darabilenaz, eta ifloren kontra joateko asmo gabe, noski, esan nai luke zertxobait.

Batek ez daki oso ondo aitortza bat ote den egiten duena. Izan ere, ainbeste gauza etzaizkio atsegin bati, bai batzuetan bai besteetan! Ainbeste kritika sofrituta, gaiñera, edozeinek izan lezake defenditzeko borondatea. Askok defenditzerik ez eduki arren. Eta jakinda.

Ainbeste fiskal ari da gaurko gazteriarren kontra arrika... Alare, bati, bearbada xinplekeria soberanoz, gaztea dela iruditzen zaio mundu onen "tipoa", ideala-edo... Esan nai dut, beste gizarte ta sasoietan ideala agure zentzuduna, artista, umanista etabar izan ziren bezala (ta gizarte moduetan agertzen zen estimazio au) gaur ideala gaztetasunera, gaztezarorearen tasunetara, aldatu dela.

Ez du gazteriak bere burua gaur egun bezain goitar ifioiz ikusi. Mundua erro erroetatik mudatu da ta aldakuntza onek ekarri du lehenago zokoratuxea egondako gaztea bizitzaren plaza erdira. Au izan ditek, emakumearen emanzipazio ta besteak ez baiño, gaurko bizitzaren markarik nabarmenena.

Mundu onetan dena gaizki dabil-  
lela esaten da. (Ta kulpak, noski,  
gazteenak dira, zer esanik ez). Ez  
dakigula etorkizun bikaina ala az-  
ken finaren amildegia labratzen ari  
geran. Desizanaren ertzean dantzari  
gaudela, noiz eroriko noiz ez ero-  
riko. Au esaten da nobeletan, an-  
tzerkietan, zineetan, filosofi saioe-  
tan, politikoen deietan, jakintsuen  
informeetan. Nun ez? Denak diote  
auxe. Eta alare, gaurko gizartean  
amona izatea ez da ohore iflorent-  
ztat. Aitona izatea gizarte bizitzatik  
erretiroa artzeko kanpai otsa legez  
ikusten da. Dantzarako arintasuna  
ta gaztetasun zailua estimatzen di-  
tu gizarteak zifrez, baiña apenas  
adinekoren zuhurtasuna. Jakintsu  
naiz agure ta naiz beste, denak  
daude gaztea loxikatzen, dandy zim-  
mel alakoak.

Seriotasuna ez da agiri. Serio  
agertu nai dutenak —ez izaki— pa-  
regarrikeriaren trajeria egiten bai-  
tute, kale guztiaren bixtan.

Aldizkarien orriak betetzen dituz-  
tenak izarren aragi bero gordia  
edo deportisten izar giartsuak izan-  
go dira, ez eskolan aurreneko irten  
dena, ez jakintsuak, filosofilariak,  
poetak. Birtutedunak, zentzudunak.  
Oiek ez. Oiek ez dira "notizia".

Denak goratzen (edo goratu ga-  
be, billatzen) dute gaztearen tasun  
igeskor auxe, gaztetasunak denpo-  
raren frutu gisan duen itxurazko  
lorea. Ta au billatzen da. Jan ta  
edan dezagun bajo, biar zahar izan-  
go gera-ta... Ba-dira milla botika

zikin "ez zahartzeko", betiko gaz-  
tetasuna ematen duen amaika elixir  
legun.

Onen aldean, ze gutxi nabarmen-  
tzen diren jakintsuak, zentzudunak,  
zerbait diren oiek, bulgaridade mer-  
keenaren saldoan bizitzak izkutatu-  
rik diarduten oiek. Eredu izan bear  
genituenak.

Eta onen alboan, kritika zartakoa  
gogotik gazteri gizajoari. Zergatik?  
Joana delako, joana ta ez atzera  
etortzeko? Batek, egia esan, gauza  
txar asko aurkitzen ditu bidean.  
Ez beti entzuten diren guztiak, ez  
oietxek. Baiña batez ere, entzuten  
ez diren dexente, bai.

Kritika oiek gora bera, uste dut  
ifnoizkoa ez bezain gaztearena du-  
gula ludi au. Mundu osoa txundi-  
turik zeramaten efeboen Grezia be-  
ra etzen ainbeste. (Omen ziren bi-  
zioak ahazten ditut). Gure gizar-  
teak ez dakit zer berezi aurkitu dion  
gaztezeroari. Lotara bota gaitu,  
apika, eriozaren eta geure asma-  
zioen bildurrak. Ez da miresteko  
idorokunderik onetan, nire partetik.  
Dena itxulipurdikatzen doakigula-  
rik, gizarteak berak ere propio gaz-  
tezeroarentzat egiña dirudi.

Baiki, ez dut uste gaztea egun eta  
santa sekula gaitzikusia izan denik,  
benetan. Batzuek destaiñatu dutena  
bai, ba-dakit. Baiña geienetan gaz-  
tezeroa inbiri pixka batekin begira-  
tu duten ideia dudala ezin uka. Ala-  
re, gaztea etzeukaten orain arte zo-  
ziedade bizitzarako bear ainbat egin  
eta edertutzat. Kontuz estekatuta

edukitzeko zakur gaiztotzat, obe. Gizondu zedin artean etzen ifior. Gazteagan oraindarrak ainbeste fidatu den gizaldirik aurkitzeko lupaz bilatu bearko genuke ta ez jarragi. Ez noski, Diogenes-ek berak ez luke gizonik idoroko, merkatura joango balitz beifnepein, gaur. Gizon gizonik.

Gonbazio baterako, Grezia-rekin alderatu gintezke, esan dudanaren egiztapenik borobillena irixteko.

Gure antzera, izan zuen Grezia-k ere gaztearen jainkotze aldi bat. Bere urte urrezkoetan, ortxe ortxe, ain zuzen. Atletismua, osasuna, pizkortasuna, ta gorputz osasuntsuan buru argia. Gazteen gimnasi saioketa deporte norgeiagokak erlijio ta aberri gertakizun biurtu zituzten. Olimpiako kiroletan garaille irtetzen zen gaztearen irudia jainkosen artean eraikitzen zen. Urian sartzerakoan arresi zati bat erasten zioten irabazle doatsuari. Alabaiña, ta espezio ugari kontatu ahal izan arren, ez dut uste beifnere gazte eder aiek beren kiroletatik landa egiteko aundia izan zezaketarik. Agoran eta politikan etzuten esku aundirik ezertako.

Orduan, oraindik eta zorionean, zaharrei entzun bearko zien gazteak. Ez zaharrak gazteak.

Oraingo gazteak ez dugu ifiori entzuteko gogorik. Eta egitera gutxitan beartzen gaituztenez, ba, ez diogu ifioren esani jaramonik egingo. Entzun ere, makiña bat aldiz egundoko kirtenkeriak entzun bai-

ditugu, adi jarri geranean. Ala bada, geuk aukeratuko dugu bidea. Ede-rra ala itsusia, baiña geure geurea. Au da gazte askoren postura tem-soa. Mania uts derizkiegu zaharra-goan aolku ta oarrei, zenbait zaharrek, orobatsu, gazteen asmo guz-tiak snobismutzat jotzen dituzten eran.

Arroxko gabilta, egiazki, gazte izatearen pozez. "Gazte, gera gazte"... Karraxi amorratuan, lurbira-ren azkeneko zulotik entzuteko lainean. Ez gera konturaten —ez dugu nai— ito egingo gaituztela sor-baldan daramazkigun sugetzar eta zapoak, onela jarraitzekotan. Erantzunekoago ta entzun zaleago ez izatekotan. Eskarmentu gabe, norbait-ek esango ligukeanez, ibiltzekotan.

Au da gure pekatu bidea. Agian, beltzegi. Ez gezur aundirik, alare. Aitortu, garbi aitortzen dugu au guztia. Oek dira gure zenbait bizio malapartatu. Baiña au guztia kofesatzen duen gazteriak, akats oetxen iturburuak billatzen ditu. Aitortza ba-da salaketa ere. Ta bearbada, bai salaketa bai aitortza, uskeria batean gera gitezke, ahal dutenak borobiltzen ez badituzte. Borobiltzen, argitzen, sendatzen.

Bere burua sendatzen ari dela pentsatu bear du aitak bere ondorengo sendatzean.

Gazteri orretakoa naiz, gazteri au ez naizen arren. Ez dut neure burua besteenen gaiñetik ipiñi nai. Ifiolako estaldurarik batere gabe aitortza egin, ordea, ori bai, ori egin

nai dut. Lortu, apika ez. Esan deza-  
dan beintzat: noraezean dabillega  
gazteria, geienbat. Ainbat noraezea-  
nago gazteri ikaslea. Eufemismu-  
rik apaiñenez goza lezake egia ga-  
rratz au ala naiago duenak. Naiz  
zakar naiz guri izan koskak, sobera  
latza baidugu egiaren koskorra.

Nork duen errua? Ifior kulpatzea,  
gero, ez da txantxetako txepelkeria.  
Utz dezagun bada, obe dugu joan-  
dakoengatik pakeak eginda geroa  
egokitu-ta.

Bide bakarra dago, niretzat, itsu-  
mendi onen argitzeko: minoria zu-  
zentzailleak. Eragille ta gidariak.  
Oen esku puntetan dabil erriaren  
eta erri gogoaren etorkizuna. One-  
lako minoria jator egiatiek onbide-  
ratuko ligukete gazteria. Ta gazte-  
riarekin bizitza.

Gutxien zerbait adierazten digu  
aurrenik minoria itzaren otsak. De-  
na dela, kantidadea "minoritasun"  
konzetuaren azkeneko zera dugu,  
ozta ozta deusik inporta dion zer-  
bait. Minoriaren konzetuak ez du  
kopururik adierazten. Bereztasuna,  
berriz, apartekotasuna, au bai, au  
izanean josita dakar minorien  
ideiak. Gutxientasuna, esango nuke.  
Oso gutxik irixten duten goiko izate-  
modu edo mailla batean jarri gaitz-  
tekean tasun aparta.

Gizarte makal igartu eta aulak  
iratzartzeko ez dago alako gizon biz-  
kor bereziak bezalakorik.

Orra Perogrullo-ren egia galanta  
gure oñarri biurtuta: minoria mi-  
nori biurtzen duena minoritasuna

da. Bat izan, bost izan, berdintsu  
zaigu minoria zuzentzailleak defini-  
tu ahal izateko. Jakifia bat zearo  
bakar bakarra balego, ezin minoria  
izatera iritxiiko da, alegia zuzentzai-  
lle izatera. Pentsatzaille utsean gel-  
dituko da orduan.

Askotan buru bat bakarrek egi-  
ten zuen minoria. Batzuetan mino-  
ria egiten zuena irakasle baten in-  
guruko jarraitzaille multsoa zen.  
Dena dela, ez da nire asmoa nero-  
nen gustoko gidariak moldatzea, ez  
dagokit nire gidariak alako ta olako  
izan bearko duela seifialatzea. Bai-  
ña permitituko zait alare minorien  
tasunak xehekiago analizatzea, gaz-  
teriaren noragabea minorien eska-  
sian ezarri dudana ezkerero.

Minoritasuna ere denporaren le-  
geari azpiratuta egondu da, beste  
edozein koalidaderen moduan. Zu-  
zentzaille jaikitzeke maiz etzen nai  
izatea besterik bear, zenbait gizal-  
di motel koloregabeta edo oraindik  
egingabekotan. Laguntza pixka bat  
eta zantzo burruna asko. Ikusi ere,  
amaika tximu sasiminoritar ikusten  
dugu edestiaren adarretan, aldiaren  
ala tokiaren urribiziak aupaturik.  
Alakoak, minoritasun izpirik ez bai-  
ño ausardia zuten bapo. Noski bai-  
ño noskiago etziren lotsaz txilborra  
kizkurtzen zaizkienetakoak.

Gizadiak ez du agiri zuzentzaille  
gabeko urerik. Egundaino ez da  
izan utsik zuzentzailleen jauregia.  
Bat etzenez bi, amar. Askotan zu-  
zentzailleen pertsona ilda geroa-  
go, delako pertsonaren eragipenak



zuzentzaile irauten zuen. Marx du-  
gu onetan exenplo nabarmen eta  
gaurko askoa. Eta azkenik oar de-  
zadan ez direla zuzentzaile oro san-  
tu izan. Ez leial, ez zuzen, ezta egia-  
ti ere, arraneak ez baditu!

Ez dira berdin zuzentzaile ta  
agintedun, bion konzetuak muga as-  
kotan alkar ikutu arren. Ortega y  
Gasset-ek esan zuenez (**La rebelión  
de las masas**) politikuaeren alderan-  
tziko zeregiña du minoria zuzentzai-  
lleak. Onek, garbitzea, argi egitea  
billatzen du. Arek, osterantzean, ko-  
rapillatzeko, nahasteko joera ta irri-  
tsa dauka. Nik esango nuke, mino-  
ria zuzentzailea ta politikua be-  
reizten dituen zera dugula, batez  
ere: minoritarraren eragipena ideo-  
logiaren bitartezkoa dela, politikua-  
ren zeregiña, berriz, aurren aurre-  
nik eta zuzenean aktibidadea. Ba-  
tek teoria egiten du, besteak aplika-  
tu. Batek egia, besteak egiztatu.

Politikuak maiz artzen du oiña-  
rria beste minoritar baten ideolo-  
gian, eta txinbeletak argiaren birun-  
dan legez dabil irakaslearen ondo-  
tik. Bereka ibiltzen ez dakiela  
esan diteke. Eta ala obe. Ideologia  
berria sortzea naiago izaten baidu  
aldian, eta au primerakoa izan di-  
teke, baiña baita ikaragarritzko sal-  
tsa kaltegarria ere, berebiziko arris-  
kuak daramazki berekin-eta. Ko-  
menentziak eragin baidezaiokete mi-  
noritar-politiku orri ideologia zuzen-  
tzera, —obeki esan okertzera—  
moztera edo luzatzera. Jazokunde-  
en argitara zillegiztia egin egingo

luke bearbada, gertakariak morala-  
ren neurrietara ertsi ordez.

Beste kasu bat da minoritarrak  
politikari ekitea, ideologia egin os-  
tean, ideia oietako printzipioak pra-  
tikatzeko, aurrera eramateko. Emen  
ezin begiratu nezake.

Besteak beste, minoritasunak ba-  
du aldaezifnezko zerbait. Zerbait au,  
tasun au, tasun ttiagiogoen sorta du-  
gu. Ez du beiflere ifnor benetako  
minoritartu gizartearen ala-olako  
bizikerak, ez irizpidearen oportuni-  
muak, are gutxiago propagandak.  
Ez sekula santan. Izan muiñeko  
zerbaitek itzultzen du bat "gutxie-  
nen arteko". Zerk ordea? Zentzu-  
nak, adimenzaletasuna deitu gene-  
zakean zera orrek. Intelektualtasu-  
nak. Gizatasun adimentutsu ta ir-  
kasleak, balio al du esatea?

Ez daukat esan bearrik zenbait  
sasi-minoritar pasatu den ortik au-  
rrera...

Ausaz bizitza gogoeta etengabean  
erretzen duen gizon misteriotsua  
otutzen zaigu adimenzale edo inte-  
lektual entzutean. Orretaraiñoxe  
narrugorritu dugu adimenzale urri-  
kalgarria, zituen enparatuak oro ki-  
maturik. Bost ardura guri, den zera  
ori bene benetan izateko eragilleta-  
suna bear bearrekoa bada ere.  
Baiña au baiño, adimenzale minori-  
tar (?) au baiño utsal faltsoagorik  
ez dago ezer. Sasi-adimenzale, ge-  
zur-minoritar, mistiku azaluts ori,  
engaiñatzaille zikin ori, ez baida  
deus ere. Zeinbestetan billakatu zai-

gun alare, deuseza itxura oneko gizon...

Adimenzale minoritarrek ego zabalak ditu gogamenaren zeru altuan egatzeko, ta errealidade gorrian, gauzatasunaren ezurrean ozkatzeko, zorrotzak ortzak. Errealidadea jaten daki, ta pentsamentuan aira-tzen.

Onetara dugu adimenzale minoritar jatorra. Kultura zabal eta sakoneko gizona, errealdadean oiñarritua, gauzatasun au zentzuz eta buruz neurtzen dakiena. Au ez da goizetik arratsera ta zerako zeraren amesetan arituaz lortzen den ezer. Baiña derrigorrekoa da aurretik leiatzea zerbait baliokorik irixteko. Ez baida ifior jaiotzen leader seilluz goititua (1).

Ikasketak, adimenaren lanketa, gogoeta sakona, ez ditu aski oraindik. Jendetzaren ats epelak jendetzako biur zezan arriskua zuen lehen. Orain bere adimen azkarra- ren egotan gizartearen arotik landa iges egitekoa. Utopiko biurtzekoa. Ta eskapismua gaitz bildurgarria da oso. Bearbada, gafiñera, nekeza- go salestuko du bigarren zurrun- billo au. Naikoa dugu-ta gizonok edozein apuko xingle trikuen mo- dura geron barnean borobiltzeko. Askozaz errezagoa baida gabinetean teoriak eiotzea, errealdadeari begi-

ratu llaburrenik zuzentzeke. Amai- ka bider egin da —dugu— oben au, arrokeriaz edo alperkeriaz, bizitzak dituen irakaskizunak eta arrazoiak arbuiautuz.

Guk asmatzen dugu egia, Egia- ren abia kaskaezurraren azpian geuk baigenukean edo. Hegel-ek ai- tortu, ta guk ixildu, denok berdin- tsu: "gertakizunak nire sistemare- kin bat ez badatoz, beraiantzet oke- rrago". Minoritarren artean (mino- ritar izan zitezkeanen artean) ain- gerukeria onetatik asko da. Inte- lektualak ez luke ahaztu bear bera ere gizon dela, gizon uskor. Entzu- teko prest egon bearko luke ba. Ta ez tesirik dogmatizatu. Berak ez bezala pentsatzea debekatzearekin egiaren erdia deuseztatzen eta uka- tzen duena gogora baleza dogmatis- tak emanda edukiko luke urratsik zailena.

Adimenzale minorikoa ez da ere- muko zugaitz melar. Basamortuan bertan oso noiztenka ikusten bide da zugaitz bakarrik .Ikusiak diote- nez, palmondo tantaiaik oasietan omen daude. Minoritarra ba, ez ba- karti ez saldoko ere. Oreamen lega- mi. Maitatu ta lagundu egiten ditu anaia eroriak. "Artuemanketa du- gu bizitza", dio Rodríguez Coucei- ro-k. Agitz areago bear luke izan adimenzalearenak. Bizitza lurra- k maneatzten beti, ezjakifiaren irakas-

(1) Bai noski emengo sentidu oneta- tik bestelakora. Leadera jaio egiten de- lako otsa dabil nunal. Lantxo onetan, ordea, nik ez darabilt leader (gidari) itza aiurriz edonolako buru edo oillar dire- nai nagokiela. Minoria zuzentzailekoak leader dira, ta naitanaiez izango dituzte

jaiotzatiko zenbait joera. Baiña pentsa- mentuaren bitartezkoa delarik bere era- gilletasuna, zuzentzailetasuna, jatorrizko lera ta errezatasuna xede bereziz eta apro- pos landu ostean iritxiko dute minorita- suna bere baitan egizatzea, ez bestela.

le, aularekin errukior. Biotz bera, ez berekoi. Egia —beretzat eta bes-teontzat— irrikatuaz, idorokunde baten sua piztu ahal dezanean kon-forme guztiontzat pizteko. Onela-koak bear ditugu. Gidatu gaitzate-nak, beraz, gidatu; eta ez zigorka, ganadua bezala, gobernatu. Ez goi goitik leziorik eman.

Adimena alare,elkorregi zaio gaz-teari. Gaztea berez buru baiño bio-tzago da, ta zuzendua balitz eder-ki lanegiten du. Bestela gutxi. Orainaldian batez ere, ainbeste senti-mentalismuko soroan gazteri min-beratu bat erne baida, oifetatik bu-rurairño biotza soillik duena, ta ez sanoegia, auxe.

Onen bitartez, adimenaren aldean sentimentua ikaragarri azi da, ta munstroak biurtu gaituzte. Sobran-te genuenetik erregalatu digute, fal-ta zitzaigunetik genuentxoak kendu. Adimen koxkor baten parean senti-mentu indartsu basatia badugu, no-la gobernatu sentimentuen mundu ezinegona?

Ez da gaitza “la puerca razón” edo “la peste de la lógica” esatea. Arrazoimena ostikatu aisa egiten da. Nun aurkitu ordezkaria gero?

Ideologia sendo ta irmea eskatzen dugu gazteok, Euskal errian, ez Hamlet-en itzak, itzak, itzak... Ba ote dugu euskaldunok geure artean minoria gidatzaillerik? Eta kanpo-koak egiazkoak al dira, egiatiak, zintzoak eta ez “gazteen eskuetan utzi ezin ditezkeanetakook”?

Gure egoera baiño negargarria-

gorik ez legoke baldin ez badugu. Gazteak ez lirake gure izango, ta etorkizuna gazteena da. Etxean ar-girik ez izaki, joan billa kanpora ta... Anarkismua saldu digute zu-zentzaille arrotzak, guk etxekotuak. Moskortu egin dute gazteria pertso-nalitatea ta beste goraiatuegiaz. Ta gero, putza pertsonalitateak!, ez nortasun ta ez ezer. Batzuek pertsonalitatea goratzen, besteak bizitzaren sentidua ukatzen, nahas-tu egin dute zuzendu ordeaz gazte-ria. Ez ba orain eskuak burura eramán. Gizonak zergatik gutxi dakizki, baiña saiatzen da geiago aurkitu naiez. Ikus beza lehenbi-zi oker oek burubidetu nai dituenak nun duten şustraiá.

Baldintza ta xeapen oen atzetik gidari faltan gaudela esaten ausar-tuko nintzakeala uste dut. Arra-zoiak modu askotakoak izan ditezke. Ta bat, ez eskasena, gaurko bizitza-ren abiadarekin eta iskanbillarekin itota gelditzen dela intelektual mi-noritar oen boza. Alperrik edo in-posable dela zarata infernu onetan otsegitea. Desertuan aldarrikatzea dela. Baiña mundu au, ez da gaz-teak bakarrik egifia.

Or konpon oiek, noan gazteoi egin zaigun akusazio bati bukatu aurre-tik erantzutera.

Gure arteko usuario zahar bati ja-rraituaz, akusazio au ere euskera-ren iraupenaren gairnean jasoa da. Bai baidirudi ez dakigula bestelako gauzetan pentsatzen. “Zelako idaz-tiak irakurtzen dabez? (gazteak),

itaundu da. Zelakoak? Arrapatzen dutena. Ez dituzte "nolanaiko arinkeriak" irakurtzen, ez. Okerra orantxe dago, alare: alegia, dagoen ori ona ez izatean. Liburu on bakoitzeko amar gaizto argitaratzen baidira, ta eun erdipurdiko. Ez gazteok, zaharrak baizik idatzitakoak.

Ez ditugu eskuak garbituko, ezin dugu-ta. Baiña gu arrikatzea gustatzen zaienai Jesus mintzatuko balitzaie, ez ote lukete berriz ere zaharrenetatik asita aldegingo salata-riek? Nik, baezpadare, naiago dut ez salatua, neure burua ez kondentatzeko.

Camus edo Unamuno aotan arturik zeru lurra dantzaeraztea ez da naikoa, bestalde. Zenbait Guardini ta Maritain ditugu?

Gure "oldozkaia" axalekoa omen da politikan, erlijioan, edozertan. Gaztea ifioiz sakontasun aundiko izan ez delakoan gaude. Baiña ez dut onartu nai gaurko gazteak txilibitu utsak geranik, alajaiñetan. Gaurko gazteak ba-du beste noiz-naikoak ainbeste sakontasun. Ondikoz ikusteko dago oietan denetan zaharrak ala nortzuek egin duten geiago. Ez da au desapio bat: frutuak ikusi artean ez juzgurik ariñegi emateko eskabidea baiño.

Beste izkuntza bat, beste oitura batzuek, beste izaera bat geureganatu nai omen ditugu. Orrelaxe da, geureetaz balia ez bagintezke. Binbitartean ez. Gazteok ez gera au ta ori ta urrengoa; gazte **batzuek** dira ori.. Ta itxaro dudanez, gu-

txienak. Ondo ikustekoa baida snobismua zatarra bada ez dela ederrago txobinismua.

Gure Piarres —euskera, Euskal erria— gaixoak eraman dituen pasadizoak. Eta jasateko dituenak, bere gaitza pipiak jo xamaturik egoitea delakoarekin akordatu gaitezen bitartean. (Ikusi denok ikusten dugu, dirudienez, baiña...) Guk, aurrera bidali nai dugu Piarres ahal dugun moduan, laisterka bixi bixi, erdoiak eskubillatzeko. Ez atzera begiratu, bear dena baiño geiago, Lot-en emaztearena gerta dakiola ez badu nai.

Ez al dira kritika oek gure pentsamentua bera baiño axalekoago?

Idazkera ideiareen jazkia da, ta ez dago gaizki jazkiak ahal bezanbat txukuntzea. Baiña indarra pentsamentuak du errailetan borborka. Guk bada, JAKIN-eko adiskide gazteok itzen auzian sartzen geranean argi egin ordez kea arrotzen baidugu (ikusia dago, ikusiegia) egin dezagun tratu ixil bat, bakoitzak ahalik obekien eta guztiekin pakean jarduteko. Amar dirade mandamentuak: zergatik amarrok seigarrenean bildu?

Guk ez dugu euskera urrez jantziko. Bai orixe ba-genekielia euskal lorategi batean sarrerarik izango ez dugula!... Oстера, ba-dugu euskera plazan ikusteko itxaropena. Nik beintzat ez dut euskera moja sartueraziko, ez diot kastidateko bo-toa egin eraziko.

# ATOMUAREN ETXE-BARNEA

IÑAKI ITURRIOTZ

Bai, atomua etxe bat dugu, jau-regi aberats bat. Zenbat pitxi idoro ditzakegun horren kolkoan, ta pitxitegi horretan ez ditugu orandik misterioaren ditzira denak ikusi. Illunbe harrigarritz beteta dago atomua. Ez zuen ezagutzen, ez, Demokrito'k apurtueziña zela esan zue-nean.

Atomuaren **tamainua** hutsaren hurrengoa da: diametroz, zentimetroaren hamarmillogarren partea. Has gaitezen lanean: orratz buru-beltx batetik atomu denak atera nahi ditugu. Ba!, huskeriatxo bat... Baifia, ustekabea, ez gera lanbide ederrean sartu. Behatz-punttekin heldurik dauzkagun atomu horietxen buru-haustea da guzia. Ta zer? Badaezpada ez gera banaka-banaka hasiko, segunduko millo bat atera-ko dugu. Orduko, beraz, 3.600.000-000 atomu baztertzen ari gera, ta hala ere millo bat urtetarako lana izango dugu orratzaren burutxoa desegiten.

Zentimetro kubiko bat atomuz bete dezagun. Zenbat ote ditugu hor kanika bat baifio haundiago ez den zera horretan? Gutu gora-behera kuatrilloe bat (10<sup>-24</sup>). Bata-beste-

ren atzetik jar ditzagun; luzea ger-tatuko ote litzake atomu-illara ho-ri? Ehun milla millo kilometro luzatuko litzake z<sup>m3</sup> horretako ato-muekin egin dugun lerroa. Planeta bakoitzetik Eguzkirako joan-etorria hiru bider egin genezake atomu ho-riek elkarren ondoan jartzen ari ge-rala.

Hobeki ohar gaitezen, egin deza-gun gaiztakeriatxo bat. Zentimetro kubiko horretako atomuak uretan sartuko ditugu; beratuko dire bar-bantzuak bezelaxe, ta bihar goizean hazita aurkituko ditugu: atomu ba-koitzak metroko diametroa du orain. Nahikoa da, baifia, tira, me-troa ez da beste munduko neurria. Has gaitezen, ba lehen egin dugun txangoa berritzen: elkarren ondotik jartzen ditugula, Eguzki'tik Merku-rio'rako bidea hartuko dugu metro-ko atomu horiek banaka-banaka utziaz (zentimetro kubiko horreta-koak dire denak). Merkuriotik E-guzki'ra itzuliko gera gauza bera egiñaz, berdin Eguzki'tik Benus'a ta jira. Gero Ludia, Marte, Urano, Pluton ta besteak etorriko dire, ta amaitu ote zaizkigu atomu denak? Bai zera! Berrogei milla millo al-

diz egin beharko genituzke jira-bira horiek denak, gure zentimetro kubiko horretako atomu-lumeroa berdintzeko.

Ongi izpi ttipifioa atomua,  $zm^3$  bakarrean hoinbeste ta hoinbeste sar ahal ditzagun! Har dezagun hari koskor bat, 2,5 zm. ditu luze-zabalean. Eraman dezagun hazitzen hazitzen Ludiaren neurrieta-raifio: nolakoak ote dire gure hariaren atomuak? Ping-pong-pelota baten tamaifio dute bakarrik.

Ta hain kaxkarra den hori materia trinkoa ote da? Ezta hori ere. Atomuak **moldadura** nahasia du bere barnean. Gizonak, orain gutirarte, urrunean ikusi du atomua; baifia mende hau jaio zenetik gogor ari da materia-izpi horren ezkutukiak argitara ateratzen. Garai batean, atomua, zera itxi bat zen, jakintsuen eritziz: atomu-barruan ez bide zen xulo ta zirrikitorik: materiaren azken apurra zen atomua. Hau denek ematen zuten ontzat, Fisika berriaren buru-hausteak etorri ziren arte. Jean Perrin atomuaren planeta-sistema paperean ikusarazi nahirik hasiko da. Erdian eguzkifio bat daukagu, atomuaren guna (nukleoa), ta ingurumarian jiraka, abiada izugarrian, atomuki zenbait. Jakifia, tarteak hutsik daude. Perrin'en ikusmolde hau ere, ordea, erdiegia bakarrik da, bart illuntzera arte honelaxe onhartzen zenerren. Gaur, berriz, gehiago esan behar dugu: nukleoa bera ere materia-apurrez egindakoa da, nolabaite-

ko sare bat. Génève'ko Nukleo-energeiaren Europear Batzordeak orain guti adierazi duenez, atomuaren gun horretan 34 elementu-mota idoro dire, ta beharbada 36'taraiifio helduko dire: fermioiak, leptonak, nukleonak...

Edonork galde dezake orain ea nola elkartzten diren atomuan hoinbeste elementu: 103'gn. elementuak, laurentzioak, adibidez, 103 proton eta 154 neutron dauzka gunean, eta erradon (Rn) elementuak, esate baterako, 86 elektron ditu, nukleo-inguruan, sei mailletan banatuta: 2-8-18-32-18-8. Zein indarrek lotzen ditu, ba, ehundaka izan ditezken materia-izpi horiek? Bi dire indarrak: elektrizidatea, argi-indarra, ta nukleo-indarra orain berriki ezagutua. Elektrizidateak zera egiten du, azaleko elementukiak gunari, nukleoari, lotu, hau da, elektronak elektrizidate horren indarrez lotzen zaizkio nukleoari. Nukleo-indarrak, berriz, zeregin latzagoa dauka, nukleoaren barruko elementukiak elkartztea alegia: bigarren indar honek, ba, nukleoa moldatzen du, ta indar hauxe da nukleo-energeiara-ko (=energia nuclear) atomutik osuko dena. Atomuak, bere guna moldatzeko duen indarra nukleo-barne-tik askatuaz bizi da Eguzkia-ren sutegi itzalezifia. Atomuaren benetako indar baliosa, hau da, gunaren elementuki-arte-koa; bestea, elektronak gunari lotzen dituen, aspalditik ezaguna da ta ez da etorkizunera-ko indarrik baliotsuena.

Atomua, bere kaxkarrean, herri koskor bat dela esan ditekete: ba-du herri-kaskoa, nukleoa, ehundaka etxerekin apika (protonak, t. a.), ta gero, inguruan, ba-ditu bere base-riak (elektronak) hauzotegietan (elektron-mailletan) banatuta. Herri-kolkoan nukleo-indarraren legeak agintzen du gogorki, baiña hauzoetako baseritarrek errezi egiten dute ospa inguruko elektrizidate-giroak agintzen duen modura, indar hau arras ttipia baida elektronak gunari irmoki lotzeko.

Ikusi ditugu lehen, gonbarazio-bidez, atomuaren neurriak; baiña galde liteke elementuki denak berdintsuak diren. Honetara gatzozela, ezetz erantzun beharko dugu. Izan ere nukleoak (idrogenuarekin ari naiz, jakifia) elektronak baiña 1.836 aldiz masa gehiago du; ez da, ba, alde kaxkara: milla ta zortzirehun elektron behar dituzu proton baten pisura iristeko. Ta harrigarria: hala ere, proton hori ta elektrona, ta-maifuz, berdintsuak dire, materia ta masa ez baidire berdin. Nolabait adierazteko, hau esan beharko litzake: elektron-protonak materiaz berdinar samar doaz, baiña elektronak masaz hustuak daude.

Atomua, ba, hauxe dugu: nukleoa, guna, (=protonak+neutronak+fermionak...: 34 elementu-motetatik ehundaka elementuki izan ditezke)+azal-elementukiak (=elektronak eta gaifirakoak mailla-maillaka banatuak). Ta hau guzia indar txundigarrien kabi ta iturri da. Ta,

hala ere, atomua hutsik dagoela esan ditekete: eraman dezagun, irudimenez, hazitzen-hazitzen idrogenuaren atomu bat Donostia'ko Artzain Ona elizaren neurrieraino; zernolakoa ote dugu orain atomu horren nukleoa? "Eliza-atomu" horren erdian kerixa bat izango litzake dena. Elektronak teillatuetatik ibilliko lirake, nukleoaren jirabiran.

Elektron hauen jira-abiada sifis-tuezifiekoea da: hain ttipiak izanik ere ta horien gonbarazioan atomu osoa hain haundia izanarren, materia trinkoa ta hutsunegabea dela esan liteke atomua. Zenbat denbora behar ote dute, ba, elektronek atomu-etxea goi-behetatik jiratzeko: segunduaren  $10^{-16}$ gn. partea, hau da, elektron horrek kasik trilloe bat itzuli egiten ditu segunduan.

Baiña nukleoaren beraren barnean ere ba-da holakotsu mogimendu bat eta gunaren barruko itzuli hauek oraindik bizkorragoak dire: nukleo-barneko elementukiek, ez trilloe bat elektronaren antzera, milloe bat trilloe itzuli ematen dituzte:  $10^{-22}$ , koatrilloe bat buelta kasik segunduan. Gure Ludiak beste hainbeste egingo balu Eguzki'aren inguruan!

Betezifiak dire, ba, atomu-barneko hutsuneak. Ta honi eskerrak da hain "arifia" plomua; ikusi bestela. Har dezagun  $zm^3$  bateko kanikatxo bat, dena protonez beterik eta atomu-barneko hutsunerik ez duela: zenbat pisatuko ote du kanikatxo horrek? Milloeka kilo bakarrik. Gi-

zon-illara bati bizkarreratu dezaio-  
gun protonezko kanika hori: bakoit-  
zari ehun kilo, nahikoa, emango  
dizkiogu ta metroan-metroan joan-  
go dire elkarren atzetik gure zama-  
riak. Illara luzea izango ote litza-  
ke? Ez hoinbeste ere, ba: Lisboa'tik  
Tokio-El Babo-New York-Sydney-Par-  
is-Buenos Aires-Pekin eta New De-  
lhi'raifoko bidea.

Ta iraupen luzea ote dute atomu-  
ko elementuek? Gehienek bai, bai-  
ña ez guziek. Oraintsu aurkitu dire  
muon izena eman zaien elektron  
ezezagun batzu ta bizitza-izpirik po-  
breena dute: segunduaren hamar-  
millamillioegarrena bakarrik dute  
izan-irauteko. Halabaiña, guk eguz-  
ki-inguruan ematen ditugun baiño  
milloeka buelta gehiago jiratzen di-  
tuzte muonek atomu-nukleoaren in-  
guruan. Atomu-"urtea" neurritzat  
dugula, muon hauek milloeka urte-  
ko bizitza osasuntsua dute.

Asko ahal dire atomuak mun-  
duan? Ba-dakizute dagoneko eran-  
tzuna, haren neurriak ikusi ditugun  
ezkero.  $Zm^3$  batean sar ditezkenak  
har ditzagun. Atomu-ordez peztak  
balire, ta gaur bizi geran gizon gu-  
zoi banatzen hasiko bagifia, denok  
ia aberatsak izango gifiake: bakoit-  
zak 4.000 billoe pezta izango lituz-  
ke. Zentimetro kubiko hori, ba, ban-  
kurik aberatsena gertatuko litzaigu-  
ke. Atomu horiek berak eskuz eta  
segunduko ehun emanaz banatu  
behar bagenitu, izango genuke  
agian lan aspergarririk: Ludia hasi  
denetik (3.000.000.000 urte) nahiz

Mundu osoa jaio zenetik (5.000.000.  
000) ekinda ere oraindik luzarorako  
eginkizuna izango genuke, 31.000.  
000.000.000 (31 billoe) urtetarako  
zeregifia. Hainbeste lan, hainbeste  
izerdi, ta dena atomuzko kanikatxo  
bat apurtuta emateko.

Ikusi da nolako dantza geldiezifia  
daukagun atomu-barnean; ta guzia-  
ren zioa atomuaren beraren ener-  
geian dago. Atomua da indar-kabi-  
rik miresgarriena munduan. Elek-  
tronen nukleo-inguruko jirabira ho-  
ri elektrizidatez eragifia dela esan  
dugu; baiña atomuaren indarrik in-  
dartsuena nukleo-barnekoa da, ato-  
muaren bihotz-bihotzean dagoena.  
Hain zuzen hemendixe xurgatu nahi  
luke gizonak industriarako indarra,  
gudaterako bonbak egiteko erabili  
duen bezela.

Einstein'ek ekuazio sonatu bat  
eman zipun 1905'ean:  $E=mc^2$ .  $E$   
hori energeia da,  $m$ 'k masa esan  
nai du ta  $c$ 'k argiaren abiada. Hor  
esaten zaigun lehenen egia hauxe  
da: nolabait ere joan ditekela ma-  
teriaren masatik energeiara; espe-  
rimentu-bideren bat idoroko balitz,  
indar bihur dezakegula materiaren  
masa. Honen billa hasi ziren, beraz,  
jakintsu atomikoak, eta materia-ma-  
sa hori bapatean, segunduaren mi-  
lloegarrenean, energeiatu zutenean,  
jaio zen bonba atomikoa.

Zer da, ba, bonba hau? Laranja  
baten moldadura duela esan liteke:  
barne-mamian Pu 239 nahiz U235  
ipifiko da; bonbaren azala, berriz,  
lerrarazle, detonante, bat da. Lerra-



razle hau eztrandatzean, plutonioaren nahiz uranioaren nukleo-apurtzea, fisioa, dator. Uranioaren birrintze honetan masa-apur bat energia bilakatzen da: bonbak daramakien masatik millako bat bakarrik. Huskeria, baiña huskeria txikitzaile ikaragarria.

Idrogenuaren bonbak beste bide bat daramaki Bonba honen bihotzean bonba atomiko bat dago, esan dugun bezelakotxea, azal ta mami. Honek, beste edozein bonba atomikok bezelaxe ler-egiten du; baiña hemen bonba atomikoak detonante zeregiña dauka bakarrik, gairietik baidago H bonba. H bonbaren barneko beste bonba atomiko honek ler-egitean, azaleko deuterioak (H2) "su" hartzen du: honela, H2 horren nukleoak batu (fusioa) egiten dire He (elioa) atomuak sortzeko, baiña ez aldaketa horretan masa-kantida-

de bat indar bihurtu gabe. Hain zuzen, H'aren fusio honetan masa gehiago da energia bilakatzen dena, uranioaren fisioen baiño, zazpi aldiz gehiago. Idrogenu-bonbak, ba, gairietik dauka H'a, ta barrutik uranio-bonba bat, haren detonante izan dedin.

Bide hauek gizadiari eskeintzen dizkioten indar-aberastasunak siñistu-ezifiaak dire. U235'aren kilo batetik masaren millako bat, gramu bat, indar bihurtzean, 2.500.000 kilo ikatzek, erretzean, eman ohi duten hainbat indar daukagu. A, ta millako baten ordeza masa dena, oso-ori, energia bihurtuko balitz?

Atomua iriki zaigu piska bat eta etorkizunera garamazkiken bidea aurkitu dugu gizonok. Ez ahal du izaki-izpi ahaltsu ta sorgin horrek gizona bere altzoan itoko!



# LITURJIA BERRIA ta EUSKERA

**OIAEZABAL**-dar Alejandro

Konzilioan gaude. Eleiza Ama Batzar Nagusian bildu da munduko gotzai ta gaiterako Eleizako guresoek direla ordezkari. Eleizaren izakia aldaezinkorra ta utsezifia da. Baiño menderik mende jaso oi ditu zenbait bereiztasun... eta XX-gn. mende onetan Konzilio au sekulako sakea ta berrikuntza bat ematera etorri da. Gizarte berri onen bizi-moldeak oso berriak direlarik derriogorrean egokitu ta moldatu bear Eleiza Ama ere gizarte berri oneri.

Eta Eleiza Amak lendabizi presentatu duen erreforma, ia munduko gotzai guztiek onetsirik, Liturgia Sakratuaren Kostituzioa izandu da.

Liturgia, autore batek laburki dioenez, "Eleizak Jesukristo-ren Pazkoako misterioan sakramentuzko parteartzea da".

"Liturgia, batez ere, Jainko Santuaren kultoa delarik, Erakutsi aundia dauka kristau erriarentzat ere. Izan ere, Liturjian Jainkoa mintzatzan zaigu kristau erriari; Kristo-k Berriona emanaz jarraitzen du. Eta erri osoak abesti ta otoitz bidez

erantzuten dio Jainkoari". (Liturgiaren Kostituziotik).

Kristau erriak, berriz, jakifaren gaiterian eta benetan Liturgiaren artueman misterioetsuan parte artu dezan signo edo agerkai guztiak konprenitu bear ditu bere esanai bizian, eta ortarako dudarik ez dago izkerak, erri-izkuntzak aski lagundu dezakeana. Ortik, latifieraz dagon liturgia erri xearen izkuntzara moldatzeko Eleizaren asmoak. Onek ez du esanai latifiera erabat desterratuko denik. Latifierak geientsuenean jarraituko du, bearrezkoa baida Eleizako batasunaren siko-logia lortzeko. Kondaira zear iritxi den latifierazko irabazi au ez du Eleizak orain nolanai galtzera utziko. Alere, aipatu dugun bezela kristau erriak parte artu bear duenean bereiziki, eta Jainkoaren Itza erriari zuzendu bear zaionean erriko izkuntza erabiliko da. Kostituzioa aski mintzo da alkartasunezko ta komunitario parteartzeari buruz.

Baiño, lehen lehenik Liturgiaren

izkuntzaz Kostitutzioak dakartzkian arauak aztertuko ditugu:

36. 1) Latifnezko rituetan latifnera erabiliko da, deretxu partikularra gordeaz.

2) Alabaiña, sarritan erriarentzat erri bertako izkera askozaz egokia goa delarik, bai Mezakoan eta bai Sakramentuek ematerakoan Liturjiaren beste zenbait parteetan bezelaxe (orain arte baiño) geiago erabiliteke, ta batez ere, irakurgai eta explikazioetan, otoiiz eta kantuetan, ondorengo kapituluetan gauza bakoitzerako emango diren arauai dagokienez.

3) Arau auek bete direla emanenez, Diozesien alkarte barrutiaren Eleiz Aginteari dagokiona da, 22, 2), artikuluan esaten den bezela, erritar izkuntza erabili bear al den eta zanbateraiño zertzea—, erabaki auek onartuak bear dute izan, au da, Sede Apostolikuak baieztatuak. Bear izan ezkeru, izkuntza berdifiekoeleiz barrutietako Obispoeri galdetuko zaie.

4) Latifnezko textotik Liturjiarako egin den erritar izkuntzaren itzulpenak ortarako dagon lehen aipaturiko eleiz barrutiaren aginteak aprobatua bear du izan.

Laburtuaz, 54-gn. artikulua dion eran Meza Santuan bere lekua eman bear zaio erritar izkuntzari irakurgaitan, alkarrekiko otoiizetan, t. a.

Beste aibeste dio 63-gn. artikulua eta Sakramentalak ematera-

koan erritar izkuntza erabiltzeari buruz.

Gaifera, kontuan artu bearra dago Motu Proprio-k ezartzen dituen eta Aita Santuaren aizkeneko erabakiak.

Kostitutzioaren arau edo norma auetan garbi ikusi ditekeanez Sakramentuetako ta Liturjiaren beste aldeetako zenbait parteak erriko izkuntzara (euskerara gure onetan) moldatzea komeni dela baieitzen da. Beraz, Liturjiaren bizitza errira erakartzearren jarri gaitezke Meza ta beste Sakramentuetako (bataioa, ezkontza, t. a.) parte batzuek euskeraz moldatzera. Eldu deiogun lanari. Euskal erriak ez ditzagula, Jainkoarren, gaztelerazko liturji-moldakizunak artzera beartu.

Erljioak eta izkuntzak zenbaitek uste baiño zer-ikusi aundiagoa daukate. Ain zuzen ere, euskaldun baten sikolojiarako garrantzi aundia dauka erlijioa euskeraz moldatu al izateak. Eta gure erlijioaren Iturririk oparoena ta agerkairik biziena Liturjia delarik, ortik Liturjiaren ekintzak erriaren sikolojian daukaten garrantzia. Beraz, euskaldun batek Liturjiaren Misterioetan parte artu dezan, ez latifneraz edo gazteleraz soilik mintzatu, bere biotza ta sikolojia ukitzen duen euskeraz baizik.

Jesus-en Apostoluek Berriona ematera zijozten errietan bezela, egin bitez gure Euskal Errian ere egokierak, eta betor euskera gure eleizetara.

## **Euskal Apezpikuen Konferentziarik eta Batzorderik bai?**

Beste zernai aitatu aurretik Liturgiaren Kostituzioak, Liturgiaren berrikuntzak zeifiek eta nola ordenatu bear diren seifialatuaz, norma edo arau batzuek ezartzen ditu. Onatx batzuek:

22. 1) Liturgia Sakratuaren erreglamentua Eleizaren Aginteari dagokio soilki; au Sede Apostolikuan dago, eta legeak ezartzen duen neurrian, Obispuagan.

2) Deretxuak ematen duen indarrez liturji-gaien erreglamentua, ezarritako neurrien barru, legebidez eratutako klase desberdineko Gotzai-Batzar barrutieri ere ba-dagokie.

3) Beraz, ez dezala ifork, ezta apaiz izanik ere, norbere gogoz batiere gain-erantsi, kendu edo aldatu Liturjian.

Laburtzeko, Kostituzioa liturjizko Pastoralaz ari delarik erregla partikular batzuek ezartzen ditu. Emen geien ajola zaizkigunak bi dira. 44-gn. artikulua. Ain zuzen, Eleiz barrutien Aginteak Liturjia-ko Batzorde bat eratu bear duela, aren mende. Eta Batzorde oni Pastoraleko Liturgiaren Istituzio batek lagunduko dio gaian espezializatuekin, seglarrak alde batera utzi gabe, zirkustantziak ikusirik.

45. Diozesi bakoitzak Liturgia Sakratuaren Batzorde batekin kontatuko du liturjia-ekintza bizitzearren, Apezpikuaren mende.

Batzuetan komeniko da Diozesi batzuen artean Batzorde bakarria eratzea, onek alkartasunean indar- turik liturjizko apostoladutza eragin dezan..." orain arte Kostituzioak.

Arau auetako batean baiño geiagotan sartzen dira, dudarik gabe, euskal Gotzaien eginberrak ere. Eta zer egingo ote Liturgia euskerara moldatu bear den onetan? Euskal Gotzaien Batzarra? Diozesi barrutiko batzordean ipifiko ote dituzte apaiz eta praille euskaltzaleen batzuek? Edo gafiñera, euskalki oroen batzorde berezien bat ere bai, al denean? Euskal Erriko bost Obispoek Euskal Konferentzia bat eratzea egoki baiño egokiago etorriko litzake. Euskal bost Diozesiak: Baiona, Bilbo, Donosti, Gazteiz, eta Iruña.

Dena dela, nik ez dut sujerentzia batzuek azaldu besterik egiten. Apezpikuek ikusiko dute zer eta nola egin. Euren gain dago bete-bear au. Bitartean guk eman ditzazkegu geron iritziak bai, baiño, betiere izan dezagun gure Gotzai Apostolikuekin errespetua ta goisifismena.

## **Euskalerrri-ko eleiz barrutien batasuna ta ezberdintasunak.**

Obispo jauna da Diozesi bakoitzaren buru ta Artzai bakarria. Baiño euskaltasunak eta batez ere euskerak bereizten eta lotzen ditu nai ta ez euskal bost Diozesiak. Eta jakifia! eleiz barruti bakoitzean eus-

kalki berezia jartzera beartuta ere euskalki denak dira euskera. Ortik rituen eta izkeren neurriak euskal Diozesietan berdintsu ipini bearra. Probintzia batetik bestera diferentziarik nabaitu ez dezagun. Esate baterako, Bizkaia aldetik millaka erromes Gipuzkoa-ko beste millakaekin Arantzazu-ra erromes datozenean ongi arturik bear lukete parte artu Eleizaren Liturjian... Orrelako zerbait dio Kostituzioak 23-gn. artikuluaen bukaeran: Al dela kendu bitez baita Diozesi auzoen arteko rituen ezberdintasun nabarmenak ere”.

Kostituzioak ordenatzen dituen Obispoen Konferentzia edo Batzarrek martxan jarriak dira. Frantziako Obispoen Konferentzia. Espainiako Obispoen Batzarra. Batzar aundi orietan parte arteak, ordea, ez luke esanai gure bost Obispoek, beste euskal Konferentzia bat ezin eratu dezaketarik. Eta euskal Gozaien Konferentzia edo alkarteen bat lortzea ez bakarrik komenientea, baita ere bearrezkoa dela deritzait, aipatu ditudan arrazoiekin.

Baño puntu onetan Paulo VI-gnaren aginduz garbi mintzatu da “Motu Proprio”. Erabaki batek, agian, bete-betean arrapatzen gaitu: “22,2 gn. artikuluaen arauz, liturji-gaien erreglamentua, ezarritako neurrien barru, legebidez eratutako Obispoen Eleiz barrutieri dagokienez, erabakitzen dugu “barrutia” (lurraldea) itza ORAINGOZ

naziotar zabalkundean ulertu izatea”.

Erroma-ko dokumentuetan “naziotar” itzari estadiarekiko esanaia eman oi diote, alere, ORAINGOZ mintzo ori aitatzean posibilitade ta arrazoi espezialak ere izan ditezkeala eman nai du aditzera. Eta nire ustez, euskal kasu onetan arrazoi bereziak ditugularik merezi du Euskal Obispoen Konferentzia bat eratzeko Erroma-ra Baimena eskatzea...

Dena dela, aizkeneko erabakiak gure Gotzai agurgarrien eskuetan daude. Auzi au dela-ta korapillo bat datorkit burura. Alegia, Espainiako aldetiko gure Obispoek Espainiako Obispoen Konferentzia osatu dute lendabizi. Beste ainbeste egin du Baiona-koak beste aldetik. Eta onela Espainiako aldetiko euskal Obispoek gaztelaraz egiteko artuko dituzten erabaki guztiak eta era berdiñean egingo dituzte noski, euskal liturjian ere. Bestalde, Baiona-ko Frantzikoekin konponduko da beste norma ta erabakiak euskal prantze-sei moldatuaz. Eta onatx euskerazko liturjia banaturik.

Nire ustez egin diteke ori baño zerbait obekiagorik euskal liturjiaren onerako ta ausardia ba-da ere, posibilitade bi aitzazera noa. Bat, errexena eta gaurkoz normalena, baño ez bearbada obekiena goian aipatu dugun banaketa ori litzake. Beste bat, (segur-aski ezifñekoa) Baiona-ko Apezpikua, Frantziako bakarra denez onuzkaldeko euskal

liturjiarekin moldatzea. Eta bestea, zailla baiño, nire ustez, egokiena ta arrazoitsuena euskal bost Obispoek Liturjiaren beste euskal Konferentzia bat, bai Frantzikoaren eta bai Espainiakoaren desberdina, eratzea... Tartekoak ere kabitzen dira lenengo ta irugarren posibilitadearen artean.

Gotzai Batzarreei dagokiena utzirik, zutik gelditzen dira oraindik liturgia berriaren euskerazko prolema. Lehenik aipa ditzagun diskusiorako premisak. Liturjiaren parte zenbait, Mezako ebanjelioak, epistolak, alkarrekiko otoitzak, t. a. eta Sakramentuetako beste zenbait partekin euskerazko "Lezionario" edo Liturji-liburu ofizial bat (edo geiago) eratu bearko da. Eleiz barrutiko Gotzaiaren edo euskal Obispoen Konferentziaren mende ta begirapean. Gero, "Lezionario" ofizial ori Erroma-ra presentatu bear da aizkeneko begirapena ta erabakia Sede Apostolikuak eman dezan... Beraz, euskeraz osatu bear dugun Liturji-liburua ez da berriketan ibiltzeko gauza. Lanean ekin bearrean arkitzen gera euskal apaizok Liturjiaren parte oiek denak euskeraz bear bezela jarri al izateko.

Gure Obispoeri ala ba-deritzaie euskalki bakoitzerako (gipuzkeraz, bizkaieraz, lapurdieraz) Liturji-liburu bereziak eratu bearko dira. Baiño nire ustez, "Lezionario" edo Liturji-liburu ofizial bakarra eratu bear litzake Euskal Erri osoarentzat. Eta al dela, euskera ere baka-

rra ta alkartua. Zer gertatuko litzake eleiz barruti edo euskal probintzi bakoitzak ebanjeliotarako norbere gogoko autore bat, epistoletarako beste bat, eta Sakramentuetarako beste bat, eta au bera euskalki bakoitzean gertatzen delarik? Anarkia penagarri bat genuke euskal liturjian. Esate baterako, ebanjelioen euskera ofiziala izendatzean, ezin ibilliko gera apaiz bakoitza gere aldetik, au Aita Perno-nakin, ura Orixena-kin eta bestea Kerexeta-nakin. Euskera bertan ezbearreko ezberdintasun aundiagoak irikitzea litzake au. Baiño penagarriagoa litzake oraindik euskal liturjiaren batasunik ez irixtea.

Eraberean, sinbolo, misterio ta liturjiako mintzo printzipalenak itz berdifiak izan bear lukete Euskal Erri osoan. Eta, nire ustez, gauzarik egokiena liturjiarako "euskera alkartua" lortzea da. Euskera alkartuaren bidez euskal joeren eta euskalkien anarkiaren gain Liturji-liburu ofizial eta serio bat eratu ditzake. Derrigorrezkoa iruditu ezker, berriz, euskalkien batera, Bizkaikoera, esate baterako, bariazio edo euskera alkatu onen moldakizun batzuek egin ditezke. Baiño al dela autore berarekin euskal liturjiaren batasunerako.

Jakifia! lana ugari agertzen da emen egiteko. Eta au guztia zuzendu ta bideratzeko Liturjiako Pastoral Batzorde bat edo geiago eratzea derrigorrezkoa izango da. Euskaltzaindiak eta euskal apaiz-praileek

alkartasunean presentatu dezakete Liturjiarako "euskera alkartua". "Zeruko Argia-n" atsegifnez irakurri dut Euskaltzaindiaren Biltzarrean "Luis Mitxelena jaunak adierazi zuan, Donosti-ko Apezpikuarekin nola egon zan beste bi euskaltzainekin. Oraingo liturji aide berriak direla ta euskera aintzakotzat artze-ko eskatu zioten. Artan gelditu zan Apezpiku jauna. Bizkai, Araba, ta Naparroan ere beste ainbeste egitekoan dira..."

Gure Gotzai jaunek, apaiz eta euskaltzaleen laguntzarekin, egiteko ta prolema auek gainduko dituztelakoan gaude.

### **EUSKAL APAIZ ETA PRAILLEEI DEI LARRIA**

Gaifnean dugu gaztelerazko erreforma. Ba-dator Liturjia berriaren erdal moldakizuna, Barzelona-ko Biltzarrean oraindik orain ziotenez. Prantzesak, berriz, liturjiaren berrikuntza eratu ta betetzen ere jarriak dira. Eta bitartean euskaldunok egin al dugu edo ari al gera ezer txorik egiten? Ala lo-zorroan gaude murgildurik? Edo lotan ez gaude-nok euskeraren joeraxoak direla-ta bata bestearen kontra sakabanaturik ibilli bear ote dugu? Gotzai Biltzarrean erabakitakoa betetzen asteko bultzapena laister emango digunean... Euskaldunok izango al ditugu Liturji Liburuak? Edo gure euskal errietan gazteleraz esan bear ko ote ditugu liturjizko otoitz-

aldiak? Ba-liteke gero euskal erri zenbaitetan beranduegi izatea. Beraz, lanean saiatu bearrean gera.

Bijoaz mementoko sujerentzia batzuek. Apaizei ta prailleei, lendabizi eskatu bearrekoa Alkartasuna da. Alkartasuna ta alkar-laguntza, bai Diozesi desberdinetakoen artean, eta bai eleiz barrutian Liturjiaren Batzordea eratzean, euskera kon-tuan, apostoladutzan, t. a. apaiz se-kularren eta praille regularren artean. Konzilioak eskatzen digun izpiritukoa da, ezpairik gabe, apaiz eta prailleek ongi alkaturik Liturjia Euskalerrira moldatzea. Esate baterako, apaizei aski lagundu dezaieke Beloc eta Lazkao-ko Beneditarrek Liturjiaren berrikuntzak eratzean, t. a. Beste ainbeste Arantzazu-ko ta beste prailleek ere. Meza Liburu ta Bezperatako euskal liburuak ba-ditugu, Jainkoari eskerrak. Aita Pernando-ren "Lau Ebanjelioak". Lazkao-ko Beneditarrek badakarkigute euskeraz ta kantuz Salmutegi guztia. Orixe jaunak Salmutegien bat ere idatzi zuela, uste dut. Iñoiz azaldu izan dira Beloc eta Donosti-ko Apaiztetxetatik Liturjiara-ko baliatu ditezken kantu-textuak, t. a. euskal liburuxkaetan. Beste Sakramentuen zatiak eta gauza aski falta da oraindik euskerara moldatzeko. Betoz orrelako zenbait saio. Bereala bear-bearrezkoak izango ditugu-ta.

Frantzialdeko euskal partean, ez dakit ziur, baiño ariko dira onuzkero Frantzia-ko Gotzai Konferen-

ziak eratu duen liturjia berrikuntza euskerara moldatzen. Artu-eman estuak izan ditzazkegu Beloc-ekoe-kin eta beste apaizekin. An egifikako euskal pruebak ongi probetxugarriak izan ditezke euskaldun guztiontzat. Alkar-laguntzaren bide-tik bai egin dezakegula aski gure eleiz barrutietako Kristaudiaren alde, Liturjia Sakratua Euskal Erri-ri egokituaz eta euskalerrria Liturjia Sakratuara eramanaz... Kristau-tasunaren eta euskeraren alde.

Bukatzeko, oar bat. Ni istudiante bat baizik ez naiz, teolojilari gaztea,

ta segur-aski nabariko da nire ex-perimentzia-falta Liturjia ta Euskera saio onetan zear. Izan ere, ainbeste prolema ukitu ditut, denak interes-dunak eta nire ustez, derrigorrez planteatu ta erabaki bearrekoak.

Dena dela, JAKIN aldizkaria ba-liatu diteke Liturjia euskerara mol-datu bear dela-ta euskal apaizen ar-tu-emanetarako. Nik sujerentzia ba-tzuek eman ditut eta orain ni baiño geiago dezaketen apaiz agurgarri ta experimentatuen eritziak bear di-tugu. Betoz, bada, apaiz kompeten-teen itzak...



# *Gidariak*

## *sortzeko*

## *metodo*

# *komunistak*

**JOXE MARI REGILLAGA**

### **Komunisten ekintza-oinarria**

Ondo dakigu komunisten jomuga ta azken-xedea beti ere gobernueztaz ta mundu guziaz jabetzea dana, onela beren "parabisua" ludi osoan ezartzeko. Ez dire gutxi ma-neatu oi zenbait idatz-lanetan elburu ontara irixteko erabiltzen dituzten metodo, bide ta kanpañak. Ta, ikusten danez, beren langintzak artzen ditu amaikatxo era ta molde; baiña beti arkituko dugu zimendu ta azpi-gai komun bat: politikazko, ekonomiazko edo gizarte-arazoko auleri ta injustiziaz baliatzea, alegia. Beren "parabisuzko" etxea eraikitzean ez dute zimendurik zulatu bearrik

izan oi, beretakoak ez diranek egin zuloez protxu ona ateratzen ondo-txo ikasiak dire. Beren langintza, operazio ta ekintzak asentu ontatik egingo dute aiderantz.

Baiña gizonak ezi bear dituzte, gidari prestu ta ausartak gertutu bearrean dire pertsona ta gizartearen desasosegu, urduritasun ta mi-xeriaz baliatuz, beren sistema nazi-oetan zear ezartzeko. Ta eginkizun ontan maixu zaizkigu komunistak. Esate baterako: Italian amabi milloi botoemaille dituzte kristau-demokratak, eta zazpi ta erdi komunistek. Ba... partidoan sartutako jarraitzaille-talde berdint-sua dute bi partidoek: milloet ta zazpireun milla ortxe-ortxe.

### **Justiziaren kanpeoiak**

Aitatu dugunez, gizarteko sosegupaltaz protxu ateratzearen, prestu daude beti komunistak kanpaña ta kale-jirak antolatzeke. Batzutan pakearen alde izango dire alakoak: —"Atomoaren garai auetan nor da guda nai dun zoroa?" Ta, beti ere, lan-sarien igotzea dala, laneko kondizioen edo etxe-bizitzen arazoa dala, ekonomi ta gizarteko edo arrazen arteko bidegabekerien bat dala, berealaxe eratuko dute propaganda-edatzeren bat jendearen aurrean justiziaren kanpei bezela agertzeke.

Onela bi elburu lortzen dituzte. Bata, egoera txarrean dagon proletariadutzaren salbatzaille bezela

agertu, giza-talde au beren jarraitzaile ta botoemaille egina. Bestea, berriz, zera izango da: pertsona orok eta batez ere gazte-jendeek duten justizi-egarri ta idealismoa komunismoaren altzora zuzendu. Ta onela beren ateetara datozkie zenbait eta zenbait zer egin bear duten galdezka. Auek ditugu komunismoaren gidari-gaiak. Dakusgun orain nola eramango dituzten gidari izatera.

### **Gizarte ta munduari xedea eman nairik.**

Emen dauzkagu gure idealistak langille-keen neke ta mixeriakin bat-eginda, bidegabean erremedia-tzaile deritzaien komunismoarekin lan egiteko prest. Ez dire esku txarretan erori ta aurrerapen aundiak egingo dituzte. Berealaxe erakutsiko diete maixuek beren gorputz eta animako indar ta almen guztiak ezi ta indartzen.

Pertsona ta bere sikolojiaren nortasuna ta izaera axaetik bada ere begiratzen badugu, iru erro ta bul-tzakizun berezi genezazke: adimena zuzendari bezela, naimena egite ta ekintzarako dun joerarekin, eta sentimena bere ase-bearraren bul-tzarekin. Ta sikolojiaren oifioiñarriko lege batek dionez, iru indar auek alkarren premian dire beti, ta pertsonak bere nortasuna ondo ezi nai badu, iru erro auez-taz baliatu bearko du, berauetatik

bakoitza bere neurrian ta joera gartsuan eribilliaz.

Ta komunistak bai zaizkigula maixu beren eskuetan erori bide diren jende-berriei lege sikolojiko au ezartzen. Lenengo egunetik asita gidari trebe egiten dituzten arteño, almen auek jorratuko dizkiete, baiña irurak batera ta alkar-lanean, bataren indarrez besteak eragina.

Gazte batek Partidoko atea jotzen duneko, lagunarterik jatorrenean artuko dute bere lagun berriek. Onela gure gaztea alkartzen ta solidarizatzen da bere kideekin, ta auen idealismo, justizi-egarri ta jatortasunean parte artuaz, ase bide du bere sentimena. Arrotxo dago bere lagun berriekin ganantzi aundia egin dun ustean. Laister du artukizun auen poz eta atsekabeetan. Aguro erantsiko zaio auek soziedade osatzeko ta konpontzeko duketen leia, proletarioekiko alkartasuna ta solidariedade, ta beren iritzian bidegabekeria mantentzen duten giza-mailla ta esturturenganako gorroto bizia.

Beste aldetik, berriz, egun gutxi barru emango diote lanerako ta ekintzarako ekarri dun irrikia asezteko modua. Nolanaike eginkizunen baten jarriko dute, besterik ez bada prensa komunista kalez-kale edaten; edo bere maixu diren kamaradek antolatu duten propaganda edo kanpañaren batean parte artzen. Nolanaike lana dalarik ere bete-bete egingo zaizu gure mutila bere eginkizunarekin.

Azkenik, justiziaren alde lanean ari dala uste denez eta komunistak gizarte ta gizadiaren salbatzaille deritzaizkiolarik, ez du gure gidari-gaiak besterik bear bere adimena asetzeko. Baiña kideek ba-dakite orrela aren adimena aprotxa gabe uzten dutela, ta luzaro gabe "irakas-ketako sekretarioak", lagun bezela aldamenaturik, onela erasoko dio: —"Ez al deritzaik komeni zitzaikela estudiantan astea ire lanari protxu geiago atera dezaiokekan?" Sarrienik onek iguin ditu ikasketak, baiña bere idealismoak bultzata eta seguru asko bein baiño geiagotan bere lanerako jakintza ta metodoen premian arkitu dalako, baietza emango du.

Ara, bada, gure gidari-gaia bere ustez zuzentzaren aintzindari egiña. Bere bizitzari sentidua ematen asia da, ta bere baitan ditun irrikirik sakonenei eman die erantzuna.

### **Ikasketa-saioak**

Bene-benetako garrantzi ta ajola ematen diete komunistek estudio-batzar aueri, ta ifiolaz ere ez dituzte antolatu gabe utziko, naiz ta milaka oztopo garaitu bear izan. India-ko Kerala estadian arratsaldero onelako bi milla batzar egiten omen dituzte. Ikasketa-talde bakoitzak amabost bat kide ditu. Ara or denak irakaslearen ondoan bildurik, solas-giroa sortu arazteko mai baten biran aurpegiz-aurpegi, ta Marx, Mao tse tung edo Lenin-en errebo-

luzio-teori ta metodoak irentsitzen. Profeta oien dotriñatuz zerbait dakinari jende langilleentzat egos-gogorra deritzaioke, baiña irakasle komunistek artuko dute maiña teori oien muña buru motelentzako ere moldatzen. Begira nola:

—**Era interesgarrian adierazi:** jarraitzaille berrientzat ikas-liburua argitaratzean, onelatsuko idatz-ziztadak jarriko dizkiote azalean: "Bizi degun munduaren esentzia". "Nola aldatu ditoken mundu au". "Mundua eraberritu dezaken indarra". "Proletarioen Partidoa". Mundua eraberritu: ortxe jarriko dute ain zuzen ere beatza, ondotxo baidakite gazteen idealismo ta aiurri urdurria asetzen dun leloa dala orixe.

—**Gaurkotasunez jantzi ta ekin-tzarekin alkartu:** ontarako gertaera berezi batetik asiko dire, ta onen zergatiko, eboluzio ta elburua adierazteko "opoestoen dialektika" ezarri ta egokituko diote. Gertakizun au autatzeko esku artean darabilkitenen bat artuko dute, edo munduko eskualderen batean beren kide komunistek izan dutenen bat, edo bestela gaurkotasunik dun iskanbillaren bat. Onela, gaiñera, komunismoak munduan zear daraman erreboluzioa aizatuaz, ikasleen kideenganako alkartasuna pizten eta txingartzen dute, aiekin sentitzen duten solidaridadezko "gorputz mistikoari" eragifia emanaz. Ta azkenean ikaskizun auek egi biurtzen saiatzeko eskatuko die maixuak. Ta onela ikasten dute olako edo alako

eginkizun ta situazioetan nola jokatu ta gauzak nola erabaki.

—**Itz errexen bidez, baiña ausartasun-kutsuaz txertatuta:** eskola gutxi dutenentzat ere entenigarri egingo dute erreboluzioaren teori komunista. Erreboluzio au On ta Gaitzaren alkar-burruka izango da. Ta noski: komunismoa da aingeru, ta eratzi bearrezko deabruak, berriz, kapitalismoa, “odol urdinekoen” koserbadurismoa, erlijioa t. a. Burruka au kondaira-garai ontan ifioiz baiño une larriagoan dagola sartuko diete buruan; mundu guziaren zabalera artzen baidu. Orain erabakiko du gizadiak —esaten diete— ustela ala zindoaren alde, ta beren lanak zer-ikusita ta ajola aundia dula erabaki ontan. Beren ekintzatik etorriko dala “parabisua”. Beren esku dagola justiziaren ala bidegabekeriaren garaipena.

**Irakasleaz, ikas-liburuaz ta alkar-solasaz baliatuz:** irakasketak asi aurretik ikasleeri ontarako bereziki egifia izan dan liburu bat emango zaie, ta egunero atal labur bat señalatuko leitu dezaten. Urrengo egunean puntu ori astinduko da mai inguruan, denak alkar-izketan parte artzen dutelarik. Ifiork irakur-aldi ori egin gabe utziko balu, ezer ez entenitzeko zorian geldituko litzake ta agian lagunuen aurrean parregarri.

Urrengo egunean, solasa asi baiño leen unetxo batean, ikasleeri oar batzuk adieraziko dizkie maixuak

autatu gaiari buruz; ain zuzen gero sortu araziko dun solasaren ondorean ikasleen buruetan itsatsiak nai lituzkenak dira, alegia. Alkar-berriketa sortu arazteko taldean du gazterik iztunena inbitatuko du bere iritzia eman dezan; eta onela bata bestearen ondorean mutuenak ere bere itza eman arteifio. Baiña maixuari etzaio maifiarik paltako alkar-izketa berak nai dun bidetik eramateko, berak nai dun unera denak bildu ditezen. Baiña azken-konklusio ori ikasle bakoitzak bere-berea dula usteko du, berak eman duenez, eta onelaz ez dio gorakoak emango berorri baietza ematekoan. Eta onelaxe egunero beste gaiekin.

—**Ikasitakoa besteeri erakutsiaz:** denbora gutxi barru, estudio auetan beren aurreapentxoak egin dituztenean, partidoan sartu-berriei lanean ta estudiantan laguntzen asteko eskatuko zaie. Bost edo sei laguneko taldeak izango dire auek. Ona zer iritxiko dun egiteko onekin gure gidari berriak:

—Konfiantza ta uste ona artuko du bere buruagan.

—Bere ideiak argitu ta zeaztuko ditu.

—Ideiak adierazten eta erne-berritzen ikasten du.

—Gero ta garbiago ikusten du, gidari bezela Partidoaren organizazioan bere ekintzak dun ajola ta garrantzia.

—Besteeri eman irakaskuntzak gero ta geiago lotzen du bere ekintza ta egitekoan.

## **Gobernuatzaz jabetzeko bidean**

Emen daukagu, bada, gure gidari berria bere biotz ta almen guzietz komunistekin itz-emana. Bere leialtasunaz seguru diren orduko, partidoez prestuki sartuko dute beren errenkadetan, nazioaren zear edatuta daukaten organizazio-sarearen mailla bat izan dedin. Partido komunistak bere gidari ta jarraitzaileekin egingo dun organizazio onek, gobernu batek nazioaren barrera egiten dunarekin du pare. Gobernuak bere aministrazio-sareekin nazioko enpresa, alkartasun ta pertsonak begiztazen ta kontrolatzen ditu. Komunistek ere onelakoxe estruktura sortuko dute gidari ta jarraitzaileekin beren arte-rako, baiña bere bidez nazioko enpresa, istituzio ta aministrazioan sartzeko xedearekin. Jakiña: asieran ez dute ifnor sartu aalko gobernuko ministerioetan. Ortaraiño irixteko beetik gora asiko dire. Aztertu dezagun nola:

..—**Propaganda:** Garrantzi aundia emango dio beti ere partido komunistak propagandaren edatzeari. Beren gizonik azkarrenak jarriko dituzte eginkizun ontan, prensa, radio ta beste onelako medioen eratzeko. Atal au lanean egongo da beti: ageriko lanean ori libre danean, eta azpi-lanean debekatua dutenean. Atal onekin zer lortu nai duten len ere adierazi dugu, ots: gidari-sail bat prantatu danerako, gidari-gai berrien taldeak bildu, ta

jarraitzaile, botoemaille ta sinpatizanteak altzoratu.

—**Azpi-lana:** au du komunismoak erreboluziorako armarik baliosena ta eraginkorra. Bere organizazio-sareko gizonak nazioko instituzio guzietan sartzan joango da, odol gaiztoa zindoarekin naastu oi danez. Industri, komertzio edo nekazaritzako enpresetan, teknika-eskola edo unibersidadetan, polizi edo ejerzitoan artuko dute toki, bazter guztiak “zelula” komunistet josiaz. Eta sagar ustelak aldamenekoari egin oi dionez, lagunak bereganatzen joango dire.

—**Ekintzak ondo aztertu ta antolatu:** leenago ere esan dugu beren ikasketan teoria praktikarekin alkartzen dutela. Gidari auek, bada, bizi duten lagunartea bereganatzeko ekintzaren bat antolatzean, ambiente ta giza-joeren zergatikoak aztertuko dituzte, ta ezagutze orri dago-kionez asiko dira jokatzen.

—**Beren ofizioan teknikaz ta jartortasunez berezitu:** beren ofizioko lantegietan langillerik trebeenak izatan saiatuko dire. Enpeñorik aundiena jarriko dute teknikorik, ikaslerik edo irakaslerik berezituena izatan. Moral gauzetan ere jator agertuko zaizkitzu: Vietnango kartzeleetan beraiek garbitzen omen dituzte zikin-erretenak eta egiten beste zenbait laguntza kartzelatuak daudeneri. Jakifia dago bost ajola zaiela moralaren balioa, baiña ja-

tortasunezko testigutza emanaz eta beretakoak ez direnen bidegabeke-riak aizatuaz, siñistaraziko dituzte amaikatxo komunismoarengandik datorrela munduaren salbazioa. Ta ez dute protxu gutxi aterako laguntzaille auetatik, naiz eta auek komunismoaren garaipena datorke- nean kontu audirik kobratu gabe gelditu bearko badute ere.

—**Puestorik altuenetzaz jabetu:** lau aizetara edatzen ta aizatzen du- ten jatortasunez eta beren trebe- tasunaren bidez puestorik altuenak artzen joango dire beren lanbide- atalean. Enpresaren batean injusti- zirik izan bada, beraiek izango di- re ausarditsuen aurpegia emateko. Onela lortua daukate beren sindi-

katuek proletarioen artean duten arrera ona. Beste instituzioetan ere beren meritoak dirala-ta (maltzur- keririk ere ez da paltako, noski), irixten dituzte giltzarri diren pues- toak.

Irudimenez pentsa genezaken be- zela, pertsonak nazio bateko estruk- tureri bizia ematen dieten odol ba- genitu, oiñetatik gora igotzen da- tozten odol galdu lirake komunis- tek. Odol zindoaz naasturik ugaria- go ta gorago datozte, ta (giltza- rri diren puestoak artuaz) biotze- raiño datorzkenean, odol zindoa izango da oiñetan dana: kolpe ba- ten bitartez gobernuatzaz jabetuko baidira garaia ta unea datorkenean.

## Pernando dala-ta

*Aurtengo urte onetan Pernando Amezketarra jaio zeneko berreun urteak ospatzen ditugunez, JAKIN-ekoek ez dugu ixilik egoteko gogorik. Izan ere, ez dute gaur etxe askotan gurean daukagun bezelako prendarik edukiko.*

*Bai, ba. Artikulu onen siñatzailea, Amezketakoa dugu, eta ain zuzen ere, Pernando-tarretakoa. Bi adar ditu Pernandoren arbolak, eta bi oietako baten akatza dugu au, bosgarren belauneko, alegia.*

*Orregatik, Pernandogandik datorkio artikulu onen egilleari bigarren apellidua: Bengoetxea. Beraz, amaren partetik dugu Pernandoren seme.*

*Pernandotarra denik-edo antz ematen zaion? Erantzun bakarra: Prailletan ez dago Pernandokeririk egiteko aukerarik.*

*Eta, amaitzeko. Berak diona Pernandorik izan ez dela diotenez— "Ura izan ez balitz, ni ere ez nintzan izango..."*

Pernando Amezketarra dala-ta hamaika lantxo argitaratuko dira noski aurten. Izan ere, guziz herrikoia, jende artekoa izandu zen gure Pernando. Askok beharbada, urrun xamar ikusten dute. Egia, berreun urte ba-dira jaio zala, aurten hain zuzen ere.

Baiña, berez, ondo jende artekoa izan da, ta oraindik ere bixibixi dago herriaren buruan.

Amezketar amona bati hala entzuna diot aspaldi: "Bai, Pernandok irabazlegea bere barruan zemakian ondo ere; askok lanean kastatu

behar dutena, harrek etzeukan ikasi behar haundirik. Lixto jaio horratio!"

Amezketan bertan ta amezketarren artean arkitu izan dut Pernandoganako harrera kaxkarrena. Nere bizitzaren puskarik haundiena, Amezketatik kanpo egin dut, egia. Ta hain zuzen, Bizkaia-n ez hainbeste, baiña Guipuzkoa-n asko iztimatzen da Fernando.

Jakifia, gehienetan bere hixtorio ta kontzaharrak osatu dute herriak buruan duan Pernandoren figura-moldea. Horregatik nunbait oso txistoso ta hixtoriodun arkitzen da bere kontzetua.

Benetan, nolana ere ezta egiten horrelako gizon baten ideia. Nahi ta nahi ez, Fernando bati horrenbeste prenda jantzi dizkiotenerako, tronko-gerri haundia izan behar zuan; maramara ta itxumustuan etzaio edozeifia eransten horrelako kontu-sorta.

Baifia puntu honetan, gustatzen etzaidan gauzatxo bat argitu nahi nuke.

Zenbait periodikuetan irakurri dut, "Quevedo vasco" edo horrelakotsu bat dela gure Fernando. Etzait gustatzen, egia esan. Edo Quevedo-ren kontzetua ondo eldu gabe daukat —ta hala izatea nahi nuke— edo Fernando Quevedo-rekin neurtzen dutenak ez daukate bi kontzetuak garbi. Beste aldetik

kontuan izan behar da bai, konparazio mota gehienak adarraren puntaren punteko hostroan dutela konparamendu.

Etzaidala gustatzen nion, ta izan ere, berdekeri bat hifiori erantsi behar zaionean, Quevedo-ri pehatzen zaio, beharbada gaztelerak berdekeri gehiago duelako. Jainkoak Euskaldunori heman beharreko berde ta muzker guzia gure barrutietan agortu zuan nunbait ta, Berari eskerrak heman behar diozkagu, gutxi gelditu zaigu alperrik kastatze-ko.

Ta hain zuzen ba, gure Fernando etzan asko famatu bere berdekeri berritsuetatik, ta "Quevedo vasco" horrek, eztakit ba... muzkertxu edo uzten du, halako "enplasto ferde" bat hematen dio Fernando-ren figurari.

Izan ere, ez da ezagutzen euskaldunen artean berde tonuak fama hemandako bertsolaririk. Bertsolariak, jende aurrean mintzo denean, ez dizu sekula santan mingaifnik askatuko alderdi hortako gehiegikeri bat botatzeko, bere aurreko populua pixu baita. Ta Fernando bertsolaria gendun gero izan du ere! Hauxe bai satisfazio osoz irakurri dudala: alegia, gure A. Antonio Zavalak dionez, ezagutzen ditugun bertsolari osotuetako zaharrena dela gure Fernando. Hone txek bai heman zidala poza ta sal-togura. Hifior sifnistekotan gure A.



Zavala sifistu dezakegu pontu honetan, ondo ixturiatutakoa baita bera.

Dana dela, beharrezkoa genduke aurtengo honetan Pernandoren bizitz ta egiteak —milagro koloreko guziak—, ta batez ere bertsoak, ta hobe bere gaian idatzi dana ere, liburu batean argitaratzea. Pernandok ez luke homenaje hoberik jasoko ta behin salgai agertu ezker, ez litzake seguruasko argitalpena

hautsartean galduko.

Hemen, JAKIN-en argitaratuko dut, Jainkoa lagun, urte azkenerako lantxo bat gure Pernandoren aldetik jakin dezakeguna agertuaz. Asmoa behintzat hala dut. Ahalez ez al naiz flakiatuko.

Ta ea ba bakoitzak bere moldean, guziok alai ta pozik —Pernandok nahi duan era hauxe noski— ospatzen dugun bere jaiotzako berreunurtea.

# SOZIAL-ENZIKLIKAK

*Pedro Angel*

*Garcia*

*Chasco*

Au galdetzea ere!, esango du bererikoko irakurleak titulo au ikustean. Baña nere iritziz gauza ez da ain ximplea. Begira bestela zer gertatzen dan olako enziklika aundi bat agertzen danean: Klase guztietako gizonak zorionak eta zorionak Eleizari emanaz jartzen dira, auek jarraitzen dituzten dotriña sozialak ortik dijoaztela adierazi naiean. Nork ez du gogoratzen Kruxef berak esan duena auzi oni buruz?

Baña utzi dezagun lagun-urkoa bere pakean, eta sartu gaitezen zifiaz eta sakontasun pixka batekin kontu auetan artu ditugun "posturak" azterkatzen. Zer da guretzako Eleizaren sozial-enziklika bat? Igaz lagun batek "Pacem in terris" enziklikari buruz esaten zidana datorkit burura: —"Ba, etzait iruditzen ain gauza aundia denik; guretzako beintzat ezagunak dira ango gauza guztiak". Eta bat gentozen

adiskide ura ta biok gure kristau soziolojiari autoridade pixkat geiago ematera bakarrik zetorrela enziklika baieztutzean.

Orain berriz, sozial-enziklikeen papera zein dan zeatzago ikusteko, beste azaltze-modu bat, egokiago nere uztez, bururatzen zait. Asi gaitezen Moralatik, Soziolojia, Etikaren kapitulu bat besterik ez dan ezkerero. Ta galdetu dezagun lehenbizi: Moral aldetik zer eskatu bear diogu sozial kontuetan bere eginkizuna bete nai duanari? Garrantzi aundikoa degu galdera au, Soziologiaren ofarriak moralgabeak ez titezen gelditu.

Sozial eginbearretan kontzientziak bultzaturik ekiten duenarentzat, au izango da interesgarriena: Egiaren aldetik dijoala bere eginkizuna ziur jakitea, alegia. Eta ontarako ezta naikoa Moralaren printzipioak ezagutzea, ez; bearbearrezkoa zaigu gauza konkretuak ezagutzea ere. Ona emen arrazoia: Gure eginkizunetan gauza konkretuei moldatu bear dizkiegu printzipio jeneralak. Au egitean, bi uts egin ditzakegu: Erlatibismo ta Razionalismo izenekoak dira. Gauzeei, printzipioeri baño inportantzi geiago ematen diegunean, erlatibismoan

# ZERTARAKO!

erortzen gera. Eta onen kontra garbi jarri bear degu printzipioen ezin aldatzea edo aldagetasuna. Zein da gero gauza konkretuen jokabidea printzipio jeneralen ondoan? Razionalismoaren arauz eztagokie gauzeeri batere zeregifirik. Ongi dakigu guk ordea gauza konkretuak dararmaten jokabidea bai printzipio baten balioa besteen aurrean jartzean, bai printzipio batzuen indarra gutxitzean, baita printzipio berriak ateratzean ere. Ejeiplo batekin frogatzeko, pentsa dezagun zergatik etzitekean idatzi Inkisizio aldian "Pacem in terris" enziklika. Ordungo gizon argitsuena ezutzen enziklika onen dotriña askorik somatu ere. Baña arrezkero munduko gertakizunak, asko ta asko lagundu zion gizadiari printzipio berri oiek lengoetatik ateratzeko. Garbi gelditu bedi ba, gauza konkretuen jokabidea, inportantzi audia du-ta. Eta garbi agertuko da orrella, zer nolako inportantzia eman bear diogun gauzak ezagutzeari, gure sozial jokaerak egizkoak eta zilegiak izan ditezen.

Gauzak ongi eta zuzenez ezagutzea berriz, ez da ain erreza. Guztioik ikusten degu askotan nola gertakizun bera explikatzean, baten-

tzat gorria dana, zuria agertzen dan bestearen iritiziz. Alegia, gauza baten alderdietatik begiko zaizkionak ikusi oi ditu obeto bakoitzak. Beste aldetik ordea, gauzak konta ezin ala "formalidades" dituztela, eta orregatik gizon bakoitzak ezin ditza-kela ezagutu guztiak gogoratu bear degu. Gauza berean formalidades geiago ikusiko ditu gauza geiago ezagutzen dituanak, gutxi ezagutzen dituanak baño. Ta orra nola bakoitzaren jakintzak garrantzi audiko papera jokatzen duten, bai gauza baten formalidades batzuk ikusi arazteko, eta bai besteak baztertzeko.

Zer egin bada, daukagun gauza-  
ren ikuspena osatzeko?

Razionalak geran ezkero, gure ezagutzaren muga ikusirik, gauza ori ezagutu dezaketzen gizonangana joango gera galdetzera. Gizon bakoitzak, jakintza desberdina ta pre-juizio liferenteak dituanek, alde be-rezi batzuk ikusten ditu gauza be-rean. Ta gauza orren egia era ego-kienean ezagutzeko, alderdi guzti oiek batu besterik eztegu. Beno; az-keneko au ezta egi osoa. Argi da-go ezpairik gabe, nola kriterio ja-tor bat bear dan guzien iritzietatik egiaren zatiak aukeratzeko, asko-ren ezagupenak faltsoak dira-ta. Eta

nork eukiko luke era ontan gauzak egiaz ezagutzeko, ta orren bidez moralaren printzipioak gauza oiei egokitzeko kriterio seguruen ta egokiena? Ezin dezakegu naturazko saillean moral auzian bear dan ola-ko kriterio dojmatikoren jabe den gizonik arkitu. Borondate oneko guztiei entzutean, probabilidade asko bildu al-izango ditugu; baña sekula ere ez segurantzí osoa.

Zer egin ordun?

Kristau geranez, erlijiotik dator- kigu bear degun ofiarri irmo ori. Eleizaren sozial-enziklikeen jokabi- dea zein dan azaldu naiean asi ditu- gu lerro auk, eta orain zerbait argi- tuko degulakoan nago. Guztiok daki- gunez, Eleiza jerarkiaren gidaritza- pean dauden gizonen batzarra da. E- ginkizun asko betetzen ditu Eleizak bai jerarkiaren bidez, bai laikuen bidez ere. Baña guzti oien artean au da orain interesgarri zaiguna: Eleizaren jerarkiak kristauen espe- rientzia ta "sensus fidelium" dala- ko ori azterkatzen ditu, eta —bere jokabidea berezia danez— interpre- tatzen dizkigu. Au ez da dojman bakarrik gertatzen (gogoratu Ma- riaren Zerura-jasotzearen defini- zioan egindakoa), baita beste ere- muetan ere. Orixe da sozial kontue- tan Eleizaren enziklikak egin nai dutena. Prolema auetan, gizon ba- koitzak bere aldetik, gauza ezagu- tzean eta moral printzipioak apli- katzean egin dutena begiratzen du Eleizak. Eta esperientzia oien ar- tean zeintzuk ontzat eta zeintzuk

gaiztotzat artzen ditun esaten digu, kristauak erabili bear degun Kri- terio egokiena zein dan erakutsiaz.

Orra ba zein dan sozial-enzikli- kaen jokabidea: Ez bakarrik gure iritziei autoridade pixka bat geiagu ematea, gure moral ezaguerari er- lijiotik darion segurantzí osoa pres- tatzea ere bai. Gizonaren ezaguera- modua azterkatzean ikusi degunez, eztaukagu gure buruan egia arki- tzeiko bear degun guztia. Ta garbi jarri degu nola Eleizaren sozial- enziklikak gizonaren beartasun au be- tetzeko datorzkigun.

Baña nundik nora Eleiza kontu auetan sartuta? Paternalismoko so- ziedade bat al da gero?

Galdera auei erantzuteko au de- gu egokiena: Eleizak berez nazionak eta soziedadeak eskolatu nai ez di- tuela konturatzea, alegia. Baña ba- tean, gizon guzientzako salbazioko soziedade bat dala Eleiza, eta bakoit- zari ots egiten diola, guztiei sal- bazioko eginkizunetan lagundu naiez. Salbazioko eginkizunak be- rriz, gizonaren eginkizun guztiak ditugu, eta orra or zergatik, naiz ta indirektoki, guztietan jokatu bear duen Eleizak.

Askoren ustez, otoitz eta liturji kontuetan dago Eleizaren jokabide bakarra; eta ifiola ere ez gizadiaren artuemanak, edo estaduaren joerak, edo salerosketak nola izan-bear du- ten esatean. Baña ezin ditzakegu erlijioa ta morala sakabanatu gi- zon baten barruan. Sinisten due- nari erlijioa zaio moral eginbearrak

jartzen dituena. Luzeegia izango litzauguke onoko au frogatzea. Gafiera, etzaigu bearrezkoa. Beraz, argi dago guzientzako, erlijioa amaitzen duen gizonengan, erlijioa da la jomuga nagusi bat jartzen duena, baita ere beste jomuga ta xede guztiak azken jomuga orren menpean batutzen dituena.

Orra ba zergatik Eleizak, erlijioaren gauza bat izanda ere, moral-eginkizun guztiak onak ala txarrak direla esan dezaken eta esan bear dun, Izan ere, ezdiete sozial-enziklikak nazio edo soziedadeei zuzenez itz egiten, gizonen kontzientziei baik. Gizona da moralaren "sujetoa". Soziedadeei ere Eleizak itz egiten diela esan dezakegu ezpairik gabe, gizonengan bai-dituzte bere oñariak soziedade guztiak, eta orren bidez eltzen zaizkie moralaren eginbearrak.

Beste itzetan esateko, moral eragozpenak sozial auzian zein diran agertu nai dizkigute Eleizaren enziriklikak, eta ez soziolojiak jakintza bat bezela atera ditzaken "konklusioak" erakustea. Oso inportante degu liferentzia au. Tamalez, konta ezinñak dira konturatu ez diranak, bai kristauen artean, baita kristau ez diran artean ere. Ikus dezagun ba enziriklikeen aurrean gizon auek artu oi duten postura faltsoa.

Guztiok entzun ditugu askotan sinisgabeak —marxistak batez ere— Eleizaren sozial dotriñari buruz esan oi dutena: Atzeratuta xamar dabillega beti Eleiza sozial kontue-

tan. Emen beintzat uka ezin dezakela bere oskurantismua. Leen sozial-enziriklika agertu baño berrogetamar urte lenago zabaldu zuela Marx'ek bere "Manifestoa". Eta olako.

Egiaz, ez tute ikusten auek Eleizaren jomuga eztala sozioloji jakintza osatu bat eratzea, soziolojia onen oñarrian jarri bear diran moral eginbearrak erakustea baik.

Aurrera dijoo jakintza gizon guztiak bultzaturik; eta bide bertatik aurreratzen dute morala ere, jakintzak eta praxisak beti batasunean ibilli bear dute-ta. Baña bai jakintzan eta bai moralean guztiok amaitu bear dituzten gauzak, eta zalantzan gelditzen diran gauzak bereizten dira beti. Beste aldetik, jakintza egin nai duenak, hipotesis asko egin ditzake zalantzako kontuetan jakintzaren bideak nundik dijoazten tentaketan. Asko aurreratzen dira jakintzak era ontan. Moralak ere gizon bakoitzean alako bide bat jarraitzen du. Eta gizon bat beste bat baño urrutirago eldu diteke. Baña len esan degunez, beti daude moralean gizon guztiak amaitu bear dituzten gauzak. Eta moral eginbearrak jartzen dituena erlijioa izanez, erlijioaren jerarkiari tokatzen zaio zeintzuk dira gauza oek esatea. Garbi ikusten da gero, nola kristau zintzoenak Eleizaren dokumentoetan dagon moralaren gañera, beste moral eginbear asko onartzen eta betetzen dituzten. Eleizaren enziriklikak baño aurrerago di-

joazte auek. Izan ere, ala izan bear du, Eleizaren enziklikak ez bai-ditezke hipotesisen zear aurrera joan, kristauen esperientziak ikusten eta onak deritzaienak onartzen baizik. Ta jakifia, ortarako, kristau zintzoe-nen bizitza da leena. Ortik ateratzen ditu Eleizak bere sozial dotriñak fededun guztiei moral indarrarekin agertzeko. Etzaigu ikusteko zailla izango beste aldetik, zer nolako taktoarekin eginkizun ontan Eleizak ibilli bear duen, gizon-nezko segunrantzi osoa Izpirituaren "serbitzuan" jartzeko. Soziologia gizon trebeenen menpean aurrera jotzen dabil. Eleizaren sozial-enzikli-keen dotriñak berriz, ezin dezake kristau batzuekin, jatorrenekin ba-karrik, aurrera jo. Jakintza auzian ona dan joera ori, eztezakegu mora-lean ametitu, fededun artean beintzat. Eta Eleizaren sozial-enzikli-kak, moral legeak ditugu beste gauza baño lenago. Ala ere, orixe da asko ta askok eztakitena; eta ortik ditugu bere frase borobillak: "Atze-ratuta xamar ibilli oi da Eleiza so-zial kontuetan". Ta abar.

Azaldu ditugun pentsamentue-tatik beste ondorio bat atera bear degu oraindik, enziklikeen aurrean kristau askok artzen duten egoerari buruz.

Zer egiten dute kristau askok en-ziklika bat agertzen danean?

Oso gutxi dira enziklika azterka-tzen jartzen direnak, bere eginbea-rrak zeintzuk diran obeto ezagu-tzeko asmoarekin. Geinetan, bere bizitzan artutako "posturei" lagun-tzen dien enziklikaren zatitxo bat edo besteko zerbait billatu oi dute enziklikak irakurtzen dituztenak. Ta jakifia, alde batean uzten dituz-te auek gustoko etzaizkien puntu guztiak.

Bidegabekoagorik ezer eztago. Ez-takite kristau auek bere kontzien-tziari itz egiten diola Eleizak, bai atsegingarri zaizkien puntuetan, baita beste guztietan ere. Beste al-detik, eta au da okerrera, bere er-lijioko eginkizunak Jainkoarenga-na eramaten ditula eskierki usten dute, naiz ta erlijioak jartzen diz-kien moral eginbearrak bost ajola izan. Morala ta erlijioa banandu dituzte auek, Lutero'ren protestan-tismoaren antzera, ta, egia esateko, obrak bear ez ditun erlijioa da be-rea ere. Ezin dezakegu ba, katoli-kotzat artu auen erlijioa, itxuraz-ko erlijioa besterik ez dan ezkeru. Egizko erlijioak eginkizunak eska-tzen ditu. Eta erlijiotik ikusi bear da zuzentasunez zein obra diran bearrezkoak: Izan ere, au da so-zial auzirako Eleizak bere sozial-enzikliketan agertu nai diguna.

# HIROSHIMA,

## mon amour!!!

Intxausti'tar Joseba

Zerua ozkarbi zegoen eta goiza urdiñetan blai. Japoi'ko ugartedian uhiñak betiko jolasa ez zuten galdu oraindik. Pakea zerion egun-sentia-ri.

Zeru-ertzetik, halako batean, pontu ttipiño ta dizdizari bat ortze-kolkoratu zen; eguzkitan fiir-fiir egi-ten zuela zetorren. Satomi, dendari zaharra, orduantxe zegoen ate-au-rraan, berriz ere egun berri bati ekin beharko zitzaion-ta. Ozta-ozta entzun zuen dendariak pontutxo ttipiak zerkakien burrunba hilla. Uriaren gain-gaiñean zen ordurako.

Satomi'k ez zuen irakurri, baiña "Enola Gay" zeritzan goiko izpi xuriak. "Enola Gay" ez zen uriko usoa, ehundaka kilometrotatik zeto-rran arranoa baiño. Txangoa ez zuen makala egin; goiztar zebillen agoztuko sei haretan P. W. Tibbes kolonela. Ta, hara!, jaiotza-garaia

zen huraxe. Apostu bat baizegoen tartean: mutilla ala nexka ote zen "Enola Gay"-k zekarkiena?

Ta "mutikoa" gertatu zen. Goizeko 8'15-etan izan zen jaiotza: ordu-rarte giza-kondairak ezagutu duen danbatakorik ikaragarriena. Bonba atomikoa lertua zen, ba. Zer izan zen orduan Hiroxima'n! Urian, ater-ki bezela, ziza erioorra zabaldu zen zeru ederrean. Ziza munstro horren oifñak berrogei kilometro zituen, gain-txapelak 150 kilometro, berriz. Uria babesteko lain ba-zen... Bon-ba lertu zen tokian, 20 milloe gra-duko beroak prejitu zituen gizonak: bihotz bero horretan zegoenen hezu-rren berri ez du iñork jakin. Ba-da, ba, etorkizuneko jakintsuentzat bi-llagarririk.

Ta ler-pontu horren inguruan zer ikusi zen? Inguru-marian, 7.000 km2-tan ez zen deus zutik gelditu,

heriotza bezain zerraldo dena: gizonak ta emakumeak, haurrak eta agureak, etxeak eta abereak, denak zeuden luze. Gizonetan, arkakosoak eta katuak zenbatau gabe, 80.000 hil ziren une-izpi batean. 200.000 arimak, segundo horren ostean, ez zuten izango bazkaltzeko etxerik; izan ere, zertarako behar zuten, bonba atomikoaren ziza zabalaren babespea uri gaiflean izanik? Hiroxima'ko kale izandakoetan, bat-batean, 40.000 eri ta zauritu hasi ziren hara ta hona... Gustoa behar zen, ba, hala aieneka ibiltzeko! Han zebillen ama bat ere semearen billa; baiña honena ez zen izan alperlana: esan ziotenez, harako orma haretako itzal hura zen bere Tetsu poxpoliña. Beroaren beroaz halaxe utzi zuen "Enola Gay"-k jaurtitako "mutikoak". "Itzal" haundikoa zen nunbait gure Tetsu zortzi urtekoa.

Hnelaxe hasi zen Hiroxima'n 1945-eko agostuaren 6. Goizeko 8'15-eta eman zitzaion hasiera Aro Atomikoari.

\* \* \*

Baia hori dena billabide luze ta astun baten lehenen epilagua gertatu zen. Atzeraegi joan gabe, gogora dezagun izen haundi bat: Lord Ernest Rutherford. Rutherford'ek eta lankideek Cambridge'en egiten zuten lan, eta alkimista zaharren antzera, ludi ezezagun ta misterioitsu baten billa zijoazen. Ta 1911'ko urtea heldu zen. Begi haundi-argiak

zituen gure gizonak. Berak esango digu zertan ari zen: "aspertzeke, alfa- izpiekin atomu batzu zigortzen niarduen..." Alfa-izpi horiek, ordea, atomua igarota, zeharkatu, okertu, egin ziren beren bidetik. Ta hau ikusirik zera esango digu Rutherford'ek: "atomu guziek dute positibuki asetako gun, nukleo, bat —atomu-guna— ta honen inguruan indar negatibu bat daramate". Atomuaren kolko aberatsak jakintsuen barneak irakiten ipifi zituen: delako atomu hautsiezina, ez zen, ba, ez "atomu" ta ez "hautsiezin". 1911'tik 1939'rakoan burruka gogorra sortuko da fisiko zahar eta berrien artean: gizona, materiaren aurrean, erdi-saldurik aurkitzen zan berriz ere ta materia horren segetuak izerdiz irabazi beharrean. Paul Adrien Maurice Dirac iragarpen ametszkoak egiten hasi zen:

—Hutsunean behar-bearrekoak dire zuloren batzuk, esango du Dirac ameslariak.

—Hutsunea, errepikatuko du Gamof errusoak, ez baida hain hutsune.

Dirac matematikoa Royal Society'era zuzenduko da bere teoria auserterekin: laister idoroko dituzte enpirikoek antiprotona ta antineutroina. Dirac hau harrigarria da, ogeitabost urteko aurrerapena eramango die berak zenbait pontuetan esperimentatzalle guziei. Aro Atomikoa irikitzena zijoazen gizonak, ia denak, ogeitahamar urtetsukoak ziren: gazteak, etorkizunerako jaiok.



Eistein agertuko zaigu, bide berrietan igualdade txundigarri bat irakatsiaz: masa=energia. Hau da: materiaren masa, energia ta indar bilakatu liteke. Teoria honen inguruan hezi ziren jakuntsu berriak: Göttingen'en, Born maisu dutela, bi izen ospetsu elkartuko dire: Robert Oppenheimer, "A" bonbaren aita, ta Edward Teller, "H"-rena. Aro Atomikoa mamitzen ari zen geldiro ta azkar. Hain arin, ze, Rutherford, guzion arbasoa ere, sifesgogor mintzatzan zitzaien fisiko gazteeri:

—Tira, tira: ez da patrikarako eguzkirik-eta.

Jean Perrin, frantsesa, ere urduri zebillen parabola arraroenak pape-rean ezin emanik. Atomua eguzki-sistema bat omen zen, eta atomua-ren guna biziki ttipia: "Atomu-guna, beraz, "sistema" osoa baiño 100.000 bider kaskarragoa dugu". Hori zen benetan eta egiz atomu "hautsiezifia". Frantziak ba-zituen beste bi jakitun argi ere: Joliot-Curie, senar-emazteak, biok alkarturik irabaziko dute Nobel-saria 1935'ean; baiña, hala ere, Irene'k aparteko bidea izango du billaketan, Otto Hahn'engandik hurbil.

Baiña Alemania da hemen buru: Max Born, James Franck, Teller, Von Neumann, Einstein, Szilard, Wigner. Egia, ez ziren denak alemanak; baiña bai mogimentu baka-rean lanean ari zirenak. Horiek, guziak, ostera, herbesterako bidea ezagutuko zuten laister. 1933'ko ur-

tarrillean Hindenburg Mariskalak, beharraren gorrian, esan zuen ifoiz nahi-izan ez zuen zerbait: "Aurrera, Jainkoarekin", baiña Hitler'en jainko Nietzsche izango zen.

Reichstag-a, sakabanatu ta erre, egin zuen Adolf paregabeak, eta otsaillaren 28'an 4.000 gizon pre-sondegiratu. Munich eta Göttingen-en irakasleak, zerizkion modura baztertu zituen: Alemania osoan millara iritxi ziren honelako politika-axioak. Baiña jakintsu denak ez zuten sofritu honelakorik: dantzari-sa ta astrologuak salbu beti. Orduantxe hasi zen noizbait "guerra de horóscopos" deitua. Egun haie-tan ezagutu zuen Berlin'ek ikuskizun triste bat. Albert Einstein irakas-etxetik berera zijoen, eta irteerakoan gazte-taldea aurreratu zitzaion txistuka, judua zen haren kontra. Itzuli ta berriro Institutuan sartu zen jakintsua.

—Benetan, ez dut ezer ulertzen, esan zien lagunei.

Harrezkero juduen jakintza-teo-riak ezin zitezken on-har; baiña, Alemania osoaren ta Hitler'en ondamentirako, judutar horiena zen etorkizunerako bide zuzen bakarra. Ta Franck'ek ere hauxe ikusi zuen, eta juduen alde arriskatu zelako, zokoratua izan zen.

### **Hiroxima'ko "mutikoaren" jaiobidea**

Nazismu-fazismuekin hasten da Europa'n atomu-jakintzaren bate-

tik-besterakoa. Alemaniak eta Italiak jakintsu-galtze penagarria izango dute. Igeslekuak, berriz, Ingalaterra, Iparramerika ta Errusia izango dire bereziki. Princeton'en elkartuko dire Eistein eta Von Neumann, adibidez. Von Neumann hau gizon bitxia zen, kultura zabal-sakonekoa. Ikastolan, arbelak bete ta bete egiten zituen, aintzina zijoen neurrian atzekoa deseginaz: buru argienak ere ezin zioten segi, geroz ta illunago joaten baizen dena. Neumann hau 23 urterekin Berlin'en Irakasle zen, baiña beti iraun zuen bere haurtzaroran. Eztabaidarako adimen zorrotza, egundoko kulturaren jabe zen: deabruari hainbeste, bildur zioten espezialistak ere. Gizon arras urduri ta eragifia: "berehala ala sekula ez" zen bere jokabidea. Kottoxean, abaillariak haundienean ibiltzea maite zuen ta bera txofer zela; baiña zaletasunaren pareko geldotasuna zuen zeregin horretarako. Zenbait istripu latz izan zituen eta beti kale-gurutze jakin batean. Ikasleek "Neumann bidegurutzea" deitu zioten istripu-lekuari. Neumann gaur katolikoa da. Einstein eta Neumann Ikastetxe berean elkartu baziren ere, zan-moduz oso desberdina gertatu dire. Albert oso barnekoiz zen, illuna, hitz gutikoa: misantropua. Neumann'ek, berriz, beti maite izan du gizartea, argia da, zirti-zartakoa bere prolemtan.

Aipa dezagun orain beste jakintsu bat: Enrico Fermi. Gizon honek pekatu astun bat egin zuen, judutar

batekin ezkondu. Italia'ko giro hura ezin jasanik, aberria laga eta erbesteratu egin zen. Honetan, Nobel saria ematen zaio. Sari hau jasotzean, ez zuen fazista-diosalea egin. Gobernuak gogorki hartu zuen, ta orduan eten ziren hanartean erabat hautsigabeak ziren hartu-emanak.

Fermi 1901'ean jaio zen, 1954'an hil. Nobel-saria eman zitzaion atomuaren gunaz egin zituen lanengatik. Ogeitabi urterekin Erromako Unibersidadean Professore zen, 28'rekin Akademiko, 37'rekin Nobel-sari-dun. Iparramerikak asko zor dio italiar jakintsu honi, geroxeago ikusiko denez.

1938'an urrats haundi bat ematen da atomu-bidean. Otto Hahn'ek uranioaren guna, nukleoa, erdibitu egiten du. Hau da Alemaniaren azken garaipen sonatua, abenduan izan zen, eta urrengo agorraren lehenengoan hasiko da Bigarren Gudatea ta jakintsuek honen zerbitzuan lan egin beharko dute.

Ezagunak dire egun hauetan jakintsu ta Gobernuak Noruegan dituzten interesak: pila atomikorako ur astuna, deuterioa, behar da ta hori Norsk Hydro'n dago. Alemanak ez dabilz, ba, hain gaizki, Noruega beren eskuetan baidaukate. Ez dute, ordea, inoiz, nahi den urik lortuko, sabotajea medio dela.

#### **Azken ekiñaldia: "Manhattan".**

Gudua aurrera doa, ta jakintsuak

elkartzen-edo ari dire. Teller, London-zehar, Columbia'ra heldu da; honen aberkide Leo Szilard ungaroa ere iritxi da Horthy'ren igesi. Neumann eta Wigner Ungria'tik zetozen, Alemania-zehar. Lauron eritiziz, Alemania'k (oraindik Werner Heisenberg barnean baizen) idoro zezaken bonba atomikoa ta bildur honek eraman zituen beste gizon batengana: Einstein zer guzion go-goa Gobernura eramateko gizon bakarra. Szilard eta Teller joan zitzaizkion bultzatu nahirik, Peconic Bay'ra.

—Zer egin behar dut nik?, galdetu zuen Albert'ek.

—Roosevelt Lendakariari idatzi. Egingo zenioke?

Hasieratik prest zegoen gizona, baiña elkar-hizketa luzatzearekin luzatu ziren Einstein'en zalantza ta duda-mudak:

—Nork esango liguke noraino joan liteken hau dena? Zeregin hori nork geldiarazi lezake, ekiflean hasita gero?

—Konfiantza behar da gizonengan, jauna!

—Bai, gizonak!, erantzun omen zuen Einstein'ek sifisgogor.

Baiña azkenean eskutitz hura idatzi zen. Halaxe jakin zuen Roosevelt'ek arma ikaragarri bat jaiobidean zetorela; egun batzuen buruan Einstein eta Lendakaria elkar-hizketara batu ziren. 1942'ko gastuetan 500 milloer dolar izendatu ziren "Manhattan" zeritzan zerbaite-tarako. Garai haretan galdera bat

zebillen guzien gaitetik: Alemania ala gu gera aurretik goazanak? Dilema ori alde batera erakarri nahirik ari zen "Manhattan" hura.

Une honetan Fermi'k aurrerapen bultzadagarri bat dakar: 1942'ko abenduaren 2'an mirari sonatu bat gertatu zen: pila atomiakoak gizontzat lanari ekin zion. Ordurarteko ametsak honela ziren: U235 behar zen bonba haretarako, baiña uranio arraro hori U238'tik banatu ta gramu batzu biltzeko 190 urte beharko ziren. Ta hara orain nola sortuko zen U235 hori, denborarik laburrenean, pila horren laguntzaz. Mussolini'k ez zuen izango halako urbide ta atajurik helburu bererako. Patuaren ezbeharrak!

1943'ko udaran Churchill eta Roosevelt hitz egiteko batu ziren. Elkar-ikuste honen ondotik, Ingalaterra'n eta Iparramerika'n ari ziren gizon denak lanbide bakarrean elkartu ziren. Han agertu zen Niels Bohr Dinamarka'tik etorria ere. Ta nola, gero! Izkutuz-izkutu eraman zuten gudariek, lehenbizi Suezia'ra ta Ingalaterra'ra azkenik. Ta, diotenez, aliaduak ere arriskutan erabilli zuten; pilotuak aginduta omen zeukan zera: aleman egazkifien bat agertzen baldin bazen, gizona itsasora botatzekoa.

Robert Oppenheimer'i galdera bat egin zitzaion:

—Zer zehar duzu bonba atomikoa egiteko?

—Uranio 235 nahiz Plutonio 239. Hain zuzen biak eman zitzaiken

Fermi'ren bideak eta lanari gogor heldu behar zitzaion harrezkero. Jakintza-zubi ederra burutu zuten bi urteren buruan jakintsuek bi pilareen gain; U 235 parra-parra sortu zitekeala ta elementu berri bat ere bazela: plutonioa.

Los Alamos eta Oak Ridge ezezetetik ta lur ezezagunetarako jaio ziren. 80.000 gizon lanerako. Kasik ifork ez zekien zertarako lan egiten zuten, goikoek, buru-burukoek, bakkarik ezagutzen zuten helburua. Baiña 1945'eko apirilaren 29'an ahalegin gain illunbea kokatu zen: Hitler'ek bere burua hil badu, noren aurka ari gera orain? Gizadiaren kontra ez ote? Jakintsuek orduan ezagutu zituzten tormentuetan bizi gera, geroztik, ordukoen ondorenak ezagutu ditugunok.

1945'ko uztaillaren 16'a beti bezelakotsua zen Alamogordo'n. Galtzairuzko dorre bat zegoen eremuan zutik, ogeitahamar metrokoa. Ho-

nen inguruan, bederatzi kilometrotan ez zegoen deus ere; gero, behar ziren neurri-tresnak zetozten. Hamabost kilometro-tara gelditu ziren gizonak. Bostak eta hamar mifututan Allison fisikoa hasi zen konstatzen: hamar, bederatzi, zortzi... "Hutsa"-rekin batera lertu zen, eztanda izugarrian, bonba berria. Gizonak zerraldo gelditu ziren une batzuetan, ifork ez zekien zertan amaituko zen hura dena.

—Berriz ere ezbaiaren hastapean gaituk, esan zuen Fermi'k.

—Zergaitik?, galdetu zuen norbaitek.

—Zertarako izango den bai ahal dakigu, galdetu zuen bere aldetik Enrico'k.

Handik ogeitabat egunera hiroximatarrek jakingo zuten zertarako zen hura, ta ogeitalau barru Nagasaki'ko zeruan egalari joango zitzaizen "mutikoa".

# ASI GAITEZEN

## KOMUNISMUAREKIN

### ALKAR IZKETAN

Jose AZURMENDI

Lawrence Lowel-ek ez omen zituena sekula prestatzen banketeetan egiteko itzaldiak. Edozein momenturako eskematxo bat egokitua zeukan, ordea. Naikoa zuen ari-muturra, itzaldi osoa borobiltzeko. Grezia-k eta Kartago-k zibilizazio bikaiñak izan zituzten biok, —asiko zen esaten— batak ala besteak bikaiñago. Baiña, Grezia-rena, gureganatu zaigun artean alare, bestea sekula guztietarako galdu egin da. Onen arrazoa, L. L. Jaunarentzat, zera genuke: Kartagotar zibilizazioa komertzio utsa zela, au da, pentsamentuari, espekulazioari begiratzen etziona. Emen oifarriturik, ikastetxeen inportantzia goratzera pasatzen zen, parra parra. Harvard-eko Ikastetxean erretore izandua baitzen.

Ikastetxeak. Ain gora jo gabe, naikoa ikastetxe izango genuke alkar izketa egiten ikasiak bagaña.

Adimendu teorikoak, espekulati-boak, ikastetxeetan erretzen dira. Adimen zozialak, alkar izketan izaten ditu leziorik argienak, aproposenak, bikaiñenak. Eguneroko bizitza da onentzat jakinduri iturria. Ni-ez guztien ikuspegia norberegantzen dakielako, jakin.

Alkar izketa derrigorrekoa da errien bizitzan, personenean bezalaxe. Altxatu ere, gizonaren bizitza ta obratzea errealidadearen gaiflean altxatzen baitira. Ta errealidadearen aurrean bi postura artu ditzake gizonak: zabal zabal iriki ta ahal duen guztia artu, ala ezezagutuarena egin. Bigarrenekoek prejuizioaren argiarekin erabakitzen dute oro. Errealidadea miatu aurretik kasikoan duten sistemaren gisara ikusten dute gauzatasun osoa, ta andik begiratzen dutelako, prejuiziozko pentsakerari moldatzen diote errealidadea.

Ezagunak dira alde onetatik Hegel bati, esate baterako, kargatzen zaizkion geiegikeria xelebreak. ("Gauzentzat okerrago!"...) Filosofilari omentzat fenomeno bakarra Ideia unibersala da, ta beste errealdade sentikorrak Ideiaren azalpen modu soil, au da, epifenomeno edo fenomeno azal.

Marx-entzat, marxismua ez baita idealismua azpikoz gora baizik, materia da fenomeno bakarra, ta gaituntzeko bizitza-azalpen espirituzkoak, direla erlijio, oitura, moralta-sun naiz direla kultura, arte, etabar, gaituntzeko denok epifenomeno lirake. Lenin-ek ondo ondotik jarraitzen dio Marx-i, ("bildurak sortu zitu- en jainkoak". Jaroslowski), ta baita Stalin-ek ere. Azkeneko onek, beste bien aldean filosofilari kaskarra izan arren, ba-ditu filosofia izpi batzuek, an emen sakabanatuta. Bere "Partiduaren kondaira" liburua- ren 35 milloi zenbakietatik gora sal- du dira, ta bere denporan aparteko filosofilaritzat estimatu dute Erru- sian.

Inportantzia guztia sistemak, ideiak dauka omentzat. Edo ideia en- karnatzen duen partiduak, filosofiatik politikara pasatzen direnean. Totalitarismuetan. Alde onetatik begi- ratzen baditugu idealismua ta ma- terialismua berdin xamarrak ikus- ten dira, kontrarioak alkar ikutzen omen dutelako orregatixe. Izan ere bi sistemaok errealdadea gauzata- sun bakarrera estutzen dute. Nola- bait razionalista dirala esan gene-

zake, erabiltzen dituzten metodoak gogoratuaz. Totalitarismuaren itur- burua, filosofiantzako, zeran da- go: arrazoimenak egindako sistema edo prejuizio batzuen bearez par- tea osotasuntzat ematean.

Beste ikuspegi batetik ikusten du- gununontzat bai materia ta bai ideiak egiazko errealdadearen (Iza- naren) bi alderdi bezala agiri zaiz- kigu. Emen ez gera filosofia egiten ari ta ez gera esplikapen zeatzagoe- tara sartuko. Oar dezagun bide na- bar, egiazko errealdadeak ez mu- garik daukala ta ez azkenik. Kato- likoentzat eskatologia errealdadea- ren muin osoarekin topatze mira- rizkoa izango da. (Komunistentzat berebat, materia zearo menderatze- arekin etorriko da gizarte komunis- taren parabisua). Gizaldiak, beraz, amaigabe osoagotzen joan ahal izan- go luke, espirituairen aldetik beñe- pein.

Guretzat errealdadeak ba-ditu mi- lla aurpegi ta musaje diferente, Jainkoak bakarrik ezagun ditzakea- nak. Gizon bakoitzak alderdi bat ezagutzen du, ta modu batera (eza- guera osoaz diardut, noski, ez adi- men soillekoaz) segun baten esko- la, giro, denpora, aiurri, prejuizio etabar. Osotasuna erabat ezagutze- rik ez daukagu, neurridin ta muga- tsu geralarik. Onetatik sinismen as- kotako "pizkundeak", kristautasu- narena batez ere, ta materialismua- ren eboluzio bearra, (marxismuare- na batez ere) gizonaren esentzia bera aldatuko duen eboluzioaren

premia. Gure gutxitasun onekin ezin entenitu diteke baliogoen artean ordena maillarik ez dela. Aldearantziz, gure ustean, baliogoen artean jartzen da beste gizonak duten balioen estimazioa bera ontzat artzea, errealdadearen partetzat. (Komunistentzat balioen balioa gizar-teak juzgatzen du). Batek ikusten duena besteak ezin baitu ikusi, denen ikuspegiak alkartuaz urbiltzen zaizkio gizona ta gizadia errealdadeari (1). Beraz, bestearen ikuspegi onartzeko obligazioa du bakoitzak, ta norbere ikuspegiaren egia komunikatzekoa. Denok dugu zeregin zozial inportante bat gizar-tearen kriterioa osatzeko. Komunikazio oni, alkar izketa deritzaioгу.

Dialogoa baztatu dugun bakoitzean auldurak mindu gaitu. Ta garaiz despabilatzen ez bagera eriotzarekin izango dugu alkar izketa. Kondaira dugula lekuko, bildurrik gabe baieztatzeko gabezake alkar izketa ukatzea norberaren eriotzeko sententzia firmatzea dela, bai filosofian ta bai politikan. Edozertan.

\* \* \*

Zoragarria da Paris, esaten zuen batek. Ta besteak errepikatu: bai noski, ez baitzuten galdetzen errege aiek...

(1) Ez da esan nai bakoitzak ikusten duena ikustea besterik gabe egia denik. Ezta egia jendearen usteen "meta" bat denik ere. Mesedez, egin bitza irakurleak emen egitea ez dagozkigun baiña ezagutzat ematen ditugun argitasun eta printzipioen mugatzeak.

Ori da kontua. Teorian ala praktikan, berekasa dabillena gauza eder-rak jasotzera iritxi diteke. Egiptoko piramideak adibidez. Berdin Paris zoragarria, Alemania azkarra, edo sistema filosofiko dirdaitsua. Talentua izanik, bakarka ibilli dabillenak amaika gauza bikain egingo ditu. Baiña baita beste amaika premiazko ahaztu ere. Ez da nai alkar izketarik, ez da entzun nai. Zer-gatik? Edo ez delako nai egia, edo arrokeriaz (au da, adimen faltaz). Egia zera baita, alegia, adimena errealdadeari egokitua. Bakarti oek, ordea, beren kaskoa jotzen dute errealdadetzat, gauzatasunaren ezagutzaille osotzat. Berak pentsatzen dutena, ikusten dutena, dakitena ta espero ta nai dutena. Baiña gizonak errealdadea erditik ebakita ikusten du.

Absolutismuak etzuelako nai dialogorik, erreboluzioa etorri zitzaion. Eta Paris ederra barrikara biurtu zen, erregetza zanpatzeko.

Erreboluzioak bere buruari ezpada ifiori kasorik egin nai etziolako, ots, bere printzipioekin dena eginda zegoela uste nai zuelako, naitaezean atera zitzaizkion eztabaidalariak: nazismua ta fazismua batetik, komunismua bestetik. Printzipioak ez baiño egintzak eskatzen zituzten oek. Ez *laissez faire*; geuk egin eta alegin, bai. Lenin eta Mussolini batera datoz, printzipioak indarra gabe destaiñatzean.

Bapo txikitu ta birrindu zuten demokrazia liberalek eta komunis-

muak (egun artan Herodes eta Pilatos adiskidetu baitziren) nazismu-fazismua. Armaz eta indarrez: baiña demokraziak egun ere zutik dauzka etsaiak, frente bildurgarriagotik alegiflean tiroka. Komunismua. Baiña komunismua baiño areago, demokraziaren beraren gezurra. Eta beti izango ditu, gaur artekoan jarraitzekotan baitipat.

Nork irabaziko du? Demokrazia kapitalistak, neo-liberalak? itz gutxitan, nolanaiko demokraziok ala komunismuak?

Au da okerra, galdera au. Kontua ez baita indarrean eta aberatsean nor gelago den jakitea. Txarrena da, nor garaille? galdetzen dugula, ta ez, nork du arrazoa? Ez, zenbait on daukat bestearengandik artu nezakeana?

Gizartean gertatu denaz bezanbat galdetu ditek filosofia kondairaren beti puntarik punta ibilli bearraren zergatikoaz. Razionalismutik sujetibismura, idealismu izpiritualistatik materialistara... Baiezkotik ezezkora.

Eliza katolikoak berak, egia guztia bere kolkoan duela jakin arren, dialogoa moztu dueneko eraman du kaskarrekoa. Atzera gelditu da. Berak predikatzen zituen egia aietzek ahaztu ditu. Ala agertu du Kontzilioak gaurko munduarekin alkar itzegiteko borondatea.

\* \* \*

Alkarrekin itzezin bear dugu. De-

nok denekin. Bizitzeak berritzea esan nai du. Ta berritzeak, inguruan daukaguna ezagutzea, komeni dena jasotzeko prestu egotea. Dialogoa da izpituaren janaria.

Gure denpora triste oetan bi zati egifik dago mundua, bi indar. Badabilta "gizenak" alkar izketa billatzen, ez alperrik billatzen: Ginebra, Mozku... Deuseztarako. Ez da alkar izketarik falta, noski, baiña alkar izketa faltsoa, zitala. Itxurazkoa. Ez dago alkar izketa posiblerik, aurretik, erru guztia bestearena den segurantzian datozen gizonen artean.

Ez dago alkar izketarik batak besteari muturrekoa eman ez dezaion neurriak billatze soil gorrian. Kontzientzian ez baiño bildurrean jaiotako irribarreetan, konpromisoetan.

Alkar izketak beste aldekoaren ona **artzea** esan nai du. Eta aipaturiko alkar izketa oek artzea ez ezik, ematea ere ez dute pentsatu, bildur gelago ematea ezpada. Egoera bat betikotutzea baizik ez dute billatzen. Negatibo utsa (eta ezta gutxi): gerrarik eza. Gudu mundiala ikaragarriko txikizioa izango genuke, du-darik ez da. Alkar izketa elkortzea, disekatzea, ordea, ez da ondamendia garaitzea. Kanpotik letorkigukean eriotza barruko bideetara itzultzea da. Ekonomiak —alegia, gaurko arrazoi nagusiak— irabaziko du naiz baten naiz bestearen alde. Baiña alderdi irabazleak garaipenaren aurretik bezain mixerable jarraitzeko.



Jarri gaitezen entzuten, ordua da-ta. Erri-gizonak, agintariak (2), Katolikoak ere. Bai, katolikoak. Nietzsche-k kristautasunari egindako kritika amorratua garaiz entzun balitz... Izan bedi Röcken-go filosofilaria nai den bezain baiku ta majadero. Baiña beti aitortu bearko dugu aren kirtenkeriak lejitimatzun zituzten egiakz erroak aurkitu zituela gizartearen egoeran. Kristautasuna beraxka biurtu dela askorentzat. Arek esanak egokitasunez entzun balira etzen etorri denik etorriko. Garaiz kontuak atera bagenitu ez genukean mende onen kontaduria bi gerrate orokorren borroi beltzak zikinduta erakutsiko.

Baiña ez, gaur bertan ere Nietzsche-k arrazoia dauka. Ari segitzen ziotenak azpiratuak izan dira. Juzgatuak: Hitler, Eichman... Kondenatuak. Baiña Nüremberg-en etzen arrazoirik urkatu.

Zer egin da frutuak debekatzea-ekin, arbolak sendo irauten badu? Ta zer arbola moztearekin, sustraiak bixi bixi gelditzen badira?

(2) Agintariak ere ez dira gelditzen alkar izketako obligaziotik libre. Alnbeste arrazoiengatik gailera, ondo xeatzekotan lan luzea bearko baigenuke. Emen, oinarriko premisatzat jarritako gizonaren zaitxo bat besterik ezin ezagutzeaz gailera, aginpidearen iturburu-printzipioa gogoratu bear dugu. Alegia, aginpidea zer-bait bada erriaren errepresentazio den neurrian da. Populuan sustraitzen da aginte ahalmena. Beraz, sorgortu den gobernuak ipso facto ebakitzen du bizitza zekarkion zaña. Ez errealdade istorikoen aldetik bakarrik, baita deretxoaren aldetik ere. Orregatik, egin dezagun kontu partidu batek muntatzen duela gobernuak, bozak irabazita. Esate baterako, Italia-n Demokrazia kristauak. Gobernu izatera iritxi den ordukoze, ia ez da gelago parti-

Nietzsche berririo etorriko da, bai, ta asko gabe.

Bizirik dago Nietzsche, ta bizirik Hitler. Zenbait alako baztarretan... Aien pekatua jenerala da gaur. Nazismuak etzuen egin joera bat azkeneo ondoreneteraifio eraman besterik. Gaur bildur geralako ez dugu gauza bera egiten. Eskandaloak bildurtzen gaitu. Baiña ez dugu printzipioak jorratzen ekiteko adorerik. Aiek kirtenak baziren, gu kobardeak gera.

Marxismuak beste orrenbeste egin nai digu. Au da totalitarismu guztien asmoa, berez. Printzipio bearez Guztitzat artu den parte printzipio biurtu. Gero printzipioak nagusitu. Alegia, nagusitu ahal izateko biurtzen dira absolutu printzipioak. Ondoren, konprenigarri da printzipio oekin konformatzen ez den orekin puskatu ta kito egitea. Logika utsa.

Egungo instituzio guztiak kutsatu dizkigu absolutismuaren gaitzak. (50 or. jarraitzen du)

du utsaren arrepresentante, italiar erri osoarena baiño. Ezta interes ekonomikoena bakarrena ere, gaurko demokrazia kapitalistetan gertatzen dela dirudienez. Beste alderdial entzuteko obligazioa dauka ba, naiz komunista, naiz fazista edo monarkiko edo direla nolanaikoai. Ez boz-emailleal bakarrik. Ez dago Estaduaren barruan partidu ainbat estadutxo, edo gobernurik gabeko jendetalderik. Aurretik dago, nori agindu ahal izateko eskubidearen aurretik berari entzun bearra.

Estaduaren entzuteko obligazio au ez da norbere erriarekikoa bakarrik, munduko erri guztiekikoa baiño (gobernu zilligien bitartez). Au da nazioarteko Deretxoaren erro zorrotzena, P. in T. enziklikak agirian jarritakoa. Mundu guztiaren errerepresentatze ere bai baita gaur, izan ere, agintaritzak, erri batena ezezik.

# ELKARR



**IRAKURLEEKIN ELKARRIZKETAN**

**JARRAITU NAI GENUKE AUBERANTZEAN ERE**

**LEHENAGO EGITEN GENUEN BEZELA**

# RIZKETA



\* ZER DERIZKIOZU JAKIN-EN ARGITARATZEKO ERA ONI?

\* ATSEGIN AL ZAIZU?

**GAIAK**

**EUSKERA**

**PRESENTAZIOA**

\* NOLA OBEAGOTU GENEZAKE?

**MILLA ESKER**

**SAIA GAITEZEN ZU ETA NI, BOK ETA DENOK, ETEN GABE  
GURE ALDIZKARIA APAINAGOTZEN.**

**ETA ZABALDU ZAZU, MESEDEZ, ZABALDU.**

Demokrazia esaten dugunaren odola pozoitzen du. Denok uste dugu arrazoia gurea dela, ta gurea bakarrik. Orregatik gaurko demokraziak ez dira totalitarismo aulak baizik. Ta onela segitzekotan indartsuenak irabaziko du, baiña indarra ez da arrazoia.

Sartaldeak irabaziko badu, itxaron dezagun ez gaitzala geron garaienak garaitu...

\* \* \*

Emen gaude aurrez aurre, gu "kapitalistak", konzientzia azterkatzeko, komunismuari begira...

Komunismua zerbaitegatik sortu da. Ez da gabineteko teoria kristalezkoa. Ain zuzen orregatik aldendu zen Marx Hegel-gandik Feuerbach-enera: errealdaderik oifarrikoena, sakonena materiaren errealdadea dugulakoan, eta ez idealisten Ideiaia. ("Ideia orokorra ta bakarra da absolutua", irakasten zuen Hegel-ek). Ez Hegel-ekin bakarrik, Feuerbach maixuarekin ere asarre beltzak izan zituen Marx-ek (Feuerbach-en kontrako 11 tesiak), materialismu praktikua billatzen duelako berak, Marx-ek. Mixeria zozialak erretzen zuen Karl Marx hegeliano gaztea. Hegelianoen gazteria burgesa zen ordea, galanki bizi zena. Produzitzea zer den etzekitenean bilkura. Marx-ek alderantziz, materialismu eragikorra nai du, egintzaduna. Ebakita utzi zion anima Engels-ek Ingalaterra-eramanda, an erakutsi zion langile

klaseen bizimodu latzak. 1848-an agertuko zuten biok Dei komunista (Manifestoa), Bruselas-en.

Materialismu dialektikoaren aldean arrazoi asko dakar istorikoak. Ames utsa izan balitz etzitzagukean etorri izango gaur den amenazoa signifikatzer. Zerbaitek egin du posible marxismua (3). Zerk? Erreboluzioaren bearrak. Baiña erreboluzioa dialogorik ez dagoenean dator. Eta alkar izketa arras eta erabat galerazten denean, erreboluzioa LEGE bilakatzen da kondairaren martxan.

Marxismuak ez du alkar izketarik nai. Totalitarismo denez egia oso euki uste du: erlijio bat da, ateismoaren fedeko eliza, bere parabisu ta guzti. Logika garbikoa da berak erreboluzioa nai izatea. Sistema bezala alegia, osotasunaren jabe den dotriña bezala, ez badu benetako alkar izketarik ametitzen (eta bidezko da, katolikoak ere ez dugu ametitzen sentidu onetan), bai errealdade istoriko bezala. Ametitzen du, edo ametitu bearko du. Ez ametitzea antiistorikoa da. Dena dela, ukatzearekin, erraietan dakar bere kiebraren pozoia, sinismen katolikoak ekarriko lukean bezalaxe, Jaungoikoak berak ixuria ez balitz. Absolutu egin diren gizonen asma-zio den denak zartatuko dira. Ta komunismua ere bai. Alare, ez digu

(3) Emen, bereizkuntza gelegirik gabe noski, marxismua ta komunismua berdindu egiten ditugu usuario komunari jarraituaz.

ifñork segurtatzen bera ondatu aurretik ez gaituela gu ondatuko.

Sinismen katolikoa Egia osoaren jabe da. Jainkoagandik artu du Egiaren kutxa. Baiña gizonek artu duten ezkerro, katoliko izateak ez baitu ifñor azkarragotzen Egiaren ezagumena pixkana iritxiko den gauza da. Egiaren konzientzia au ez da sinismenaren barrutik baka-rrik egin litekeana. Askotan artu bearko ditugu kanpotik, zenbaitean etsaiengandik ere... Frantzia-ko erreboluzioaren adibidea aski izango da onen frogatzeko. Atzo ari, ta gaur komunismuari.

Sistema komunista osoa ezin onetsia dela esatearekin ez nuke geiegi esan nai. Sistemaren zenbait zati (ta ba-dira franko) primeran etorriko litzaizkiguke aprotxatu nai bagenitu. Ez dut banan banan seiñalitzen asi bearrrik.

Aitortu bear dut emen, alkar izketarik izatekotan puntu konkretuetan izango dela: ekonomian, politikan, asmamenetan, jakintzetan... Bakoitzen zer eta nola zeazkiago azaltzeko oetako bakoitzeko ezpezialistak mintzatu bearko litzaizkiguke. Nik, ordea, filosofiaren aldetik begizatzen dut alkar izketa bearrra, kasu konkretuetan sartu gabe (4).

(4) Batzuek lan onetan esan direnetatik berekasa irtetzen zaizkigu: prolema zozialaren indartzea, demokrazien gaurko esturturen rebisioa, liberalismuaren porrotaren arrazoiak ikusi, etabar. Irakurleak, borondate badu, ikus dezake Etienne Salaberry-k HERRIA 711. idatzitakoa.

\* \* \*

Alkar izketak ideien artean ez baiño gizonen artean izaten dira. Beraz, komunismuarekin baiño zerikusi geiago dugu komunistekin. Nai badute ta ez badute, dialogo izan bearrean gaude aiekin. Bizi egin nai dugunez, ikusi, ikasi, ta berritu egitea dagokigu. Gelditzen geranean, edo il geralako izango da, edo be-realaxe ilgo gera.

(Zozialismo kristauak eta marxistak alkarturik egin dezaketan umanismoa izango omen litzake gizadi malapartatu onen erremedioa. Esan da).

\* \* \*

Baiña gaur nekeza ta biurria dago alkar izketa. Juizioa jan digute gerra beroak eta otzak. Auzoaren bildurrez gaude beti, zintzilikario. Konfiantza zer den ez dakigu geiago, ta ez da erreza itxarotea, konfiantzaduna, koittadua ta tontoa berdintsu pasatzen diren mundu onetan. Gañera bizitza indibidualak sentidu guztia galdu zigun; ta arrezkero nolanaiko indarra da arrazoi, ta interesa ekubide. Egiazko populua, erri jatorra, estatismoak irun-tsi du, aldrebes izan bear lukeana. Eta jendeak ez daki zer nai duen dirua ta dirua ta dirua eskatzen duenean. Diru utsa baiño zerbait geiago eskatzen baitu, agian konturatu gabe.

Pakea nai dugu, ta alkar izketarik gabe nai?

Franz Kafka-k ematen digu gure mundu onen erretratoa. **Auzia**, Orson Welles-ek zinemara eramandako nobelan, Joseph K. jauna, nundik nora gabeko auzi batean nahastua aurkitzen da. Auzi bitarte gutzian probak ulertueziñak eta gutziz arraroak dira. Ez du defenditzerik. Igoal baita defenditu ala ez deus egin. Askatzen dutenean ez daki zergatik, otsegin izanaren kausa ez dakien bezala. Juzgaduan (karpinteria bat) egiten dizkioten azterketak dena misterio utsaren barne zokoe-tan igarotzen dira, igandero. Illuntza batez, detenitu zuten bi lebitazko jaunak datozkie ate oska. Erri baztarrean, kortesia askoren ondoren, "txakurra bezalaxe!", iltzen dute gure Joseph K, kutzillazoa bularrean sartuta. Itxaropenez besoak luzatzen dituen momentuan.

**Gaztelua** nobelan K. lurneurtzaillea agertzen digu, gaztelu-nagusi baten mendean lanegiteko deitua. Gaztelu tontorraren oinetan dagoen auzora eldurik, ifundik ifiora gazteluraino iritxi ezin duela gelditzen da. Utsean gelditzen dira alegin gutziak. K. lurneurtzaillearen joan etorri denak gora behera, gaztelua asieran bezain urruti ta iritxieziña dago beti. K. Jaun setatsiak ez du etsiko, ta betierean jardungo da, ekifialean, alperrik, alperrik...

Izenik apenas edo batere ez daukaten gizonok gera gaurko munduko biztanleok. Jaiotzen geraneko

señialatuta dakarzkigu ideiak, asmoak, egitekoak, maitasunak, etsaiak.

Aurrera jo nai badugu, ingurutzan gaituzten gutziak ezezagun eta arrotz ditugu. Ez digute ulertzen tutik. Gaztelura iritxi nai dugu, auzia defenditu nai dugu. Ta zenbait eta alegiñago ta ainbat itoago aurkitzen gera, oeste ipuietako lur igi-korretan bezala.

Baiña gizonok nai dugu alkarrekin itzezin. Alde batekoekin ta beste-koekin. Nai dugu borondate oneko gizon gutziok alkartu. Elkarren-gandik lagun urkoaren gauza onak ikasi. Nai dugu dialogoa.

Baiña posible ote da komunisten alkar izketa? Aurten, Frantziako "Semaine de la Pensée Marxiste" alkar izketetan, Feltin kardinalaren baimenarekin egondu den Aita Yves Jolif dominikoak onelako deklarazioak egin ditu: "Beñere izan du-dan entzule sailik ederrena eskeñi dit Alderdi (Partidu) komunistak: millaka gazte txit entzun-min ta biotz berogari adiskide."

Aita Yves Jolif libertade osoarekin mintzatu da komunisten aurrean, ta aiekin eztabaidan jardun. Frantzia-n komunisten eta kristauen arteko alkar izketak asi litezkeala pentsatzen du. Ta "alkar ezagutzen saiatzea" litzake orretarako lehenengo pausoa. "Premiazkoa da batzuek besteai zer esan nai diegun jakitea." Poliki poliki joan bearko da, noski, ez erortzeko.

Ideietan baiño geiago urbiltzen

gera obretan. Benetako prolemak, izan ere, konkretoak dira. Ta marxista militantea, —katoliko militantea ere bai— prolema konkretoak arduratzen dute. Ez aizeari kantatzen zaizkion amodiozko penak, ez koplak. Errealidade koskorrak.

Umanismo kristaua ta marxista zearo kontrarioak ditugu irakaspen ginoan artuta. Baiña gizon konkretorearen prolema konkretoak alde askotatik batetaratzen gaituzte. Jarri gaitezen, beraz, eskuz esku lanean, dogmatismuak oifiazpiraturik Joan XXIII eta Paulo VI garrenak nai bezala.

Ez dut alare edozein alkar izketa molde bedeinkatu nai, baiñan bai **ona** artzeko arretaz neurtzen dakienarena. Ezin ahaztu genezake komunismua ez dela teorian gelditzen. Begien bixtan dago berebiziko indar istorikoa ere ba-dela. Aginpidez jabetu diren guztietan eginiko petralkeriak ez baitira debalde ixiltze-koak. Eragozpen oni buruz argitzen du A. Jolif-ek, komunisten gogorkeria ametitzeak ez duela egiten, aiekiko alkar izketaren ukaziorik sendotu, alegia, gaur arteko etsaitasun bidetik segitzeko arrazoirik indartu, alkar izketaren benetako premia ta modua deklaratu baizik. Gaitzerdi komunistak baiño beste barrabasik izandu ez balitz gobernu moldeen kondaira tristean.

Ez daukagu izkutatu bearrik: komunistentzat gure azkena aien garaipena izango da. Guretzat aldres. Bai ote? Ez. Guretzat garaipe-

na, aiek duten egia gureganatzea izango da. Au da garaipena, ta garaitzeko metodo azkarrena, bakarra.

Ba-da komunismuari metodo bezala, irakaspen bezala, interes bezala, makifña bat zer ikasi. Kondairaren erraietan irakiten dauden indarrak ler erazi dute komunismua, langille klaseen mixeria gorriaren aldetik. Kondaira bera sendatu bearke da orain. Ez da ezer egingo komunismua ekonomiaz naiz armaz akabatzearekin. Komunismua jaio ezkerre ez dago lehenagoko liberalismuan gelago pentsatzerik.

Liberalismua, Amiel-ek oartu zenez, astrazioaz mantentzen da: posible dela uste du libertadea gizon libre gabe. Orregatik ahaztu du, edo nai luke, askatasuna jomuga ez baiño bidea dela. Bide, beste zerbaite-tarako. Liberalismuak legea ta justizia, geienen borondatea baizik etzirela esaten zuen, ta kondizio pertsuan jartzen zituen, itxuraz, langillea ta kapitalista. Etzizaion ezertxo axola kapitalistak indarrez langillearen askatasun teorikoa puskatzea. Askatasunik ez dela gosean kabitzen, ahaztu zuen.

Liberalismuak Estaduari ematen zion eginkizuna askatasuna **zaintzea** zen: askatasuna, berdintasuna, anaitasuna... Komunismuak zaintzeko euki egin bear dela eragozten dio, arrazoiez. Ta eukitzeko, erreboluzioa egin nai du.

Orregatik, askatasunak bide izate-tik elburu izatera altxatuta, muñña

galdu zuen, egiazko sentidua aitu zuen. Kapitalismuak, naitara zanza zezakean langillea, teorian eskubide guztien jabe. Marx, Komunista Deia zabaltzean, askatasun gezurteron onen kontra errebelatzen da.

Marx-entzat gizona ez da libre izango gizarte komunistan ezpada. Produzio kondizioak bere baitatik atera dute gizona, "alienatu" egin dute; ots, bestetu, beste bat biurtu. Alienazio oietakoak dira erlijioa, kultura, filosofia, politika... Materiaren estrukturagaiña direla esango du berak.

Gizona ta gizartea batbera izango dira estrukturagaiñak, ta oekin klaseak, porrokatu ta birrindu ditzagunean. Gizona libre izango da. Onerarako langilleak alkartu egin bear dute, kapitalismuari eusten dion burgesia lurreratzeko. Alkar izketak ez du burrukaren, erreboluzioaren metodo klase bat izatea beste justifikaziorik. Marx-entzat kapitalismua uzkalteza den edozer ondo dago. Bide oro ditugu onak. Gudu beltz au diktaduraren bitartez egingo da, Lenin-ek dionez. "Diktaduraren konzetu zientifikoa ez da zera besterik: aginpide absolutua, ez legek eta ez arauk neurtua, zuzen zuzen indarraren gaithean sostengaturik" (Lenin). Eta "diktadurak au esan nai du: indarrean, eta ez esku bidean, eraikitako aginte neurrigabea". Au da proletariadoaren diktadura.

Guzti au, benetako askatasunaren billa egin nai da. Komunismuak

(ezin uka ditzakegu aren txarke-riak), proletariadoaren bizimodu latzarekin konfuraturik, billatu egin du askabidea. Guk ezin artu dugu aiengan gizarte burrukak daramakien materialismu zama. Sistema filosofiko gisan (5) baiño interes geiago du beste alde askotatik. Guk ez bezala ikusi du errealdadea, gurea ez den paraje batetik begiratu du-ta. Aprotxatu dezagun ikuspegi au. Komunismuak irabazi duena baztarteza atzera joatea da.

Asko moduzko jendek usai txarra artzen dio alkar izketa asteari ezezik asi nai izateari berari. Baiña erabat alkar izketa ukatzeko, arrazoi bat bakarra legoke: komunistak, gizon ez baiño astoak edo mandoak direla probatzea.

---

(5) Gezurra ote da esatea gaurko marxismua ez dela marxista, ez dela leiala? Dialektika legeari traizionatu diola? Ez dela geiago erreboluziogille (filosofia marxista, ez diot partidu marxistak)? Tradizionalista egin dela?

Marx-ek esandakoa dogma da, asiera izan bearrean. Ta geroko filosofillari ta pentsatzaillak aren interprete biurtu dira. Dialektika gelditu egin da.

Bearbada batek "burges koxkorra" delako pentsatuko du au... Edo ta bearbada, Marx berri baiño marxistago delako.



# Katolikoaren egintza politikan

Katoliko izatea ez da arrazoi politikari iges egiteko.

Baizik kontrara.

Ala ematen du aditzera Mater et Magistra-k, dionean ba-ze kristauak munduko zeregifietan beren langintza gutxitu barik, berriztu ta bote-retsua ego egin bear dutela.

Joan Mari Torrealday

Medioak aintzat artzea zaizu emen koxka. Bidea bidetzat jotzea, alegia. Gizarteko erakunde ta egiturak bideak besterik ez tira kristau-dotriñan. Xedea gizona da. Sobera dakigu frankotan ez tala ain erreza Kristianismuaren egi au soilla ta garbi ikusi ahal egitea. Bista lausotu-edo egiten zaigu antza...

Elizaren dotriña sozialaren oin ta arria giza-pertsonaren dignidadea da, bidezko denez. Praktikan, Elizaren dotriña guziak beti jo oi du gizonaren kristau konzeptura. "Gizona, bizi sozialaren objektu ta elementu pasiboa izan bearrean, aitzitik, bere sujeto, oifiarri ta xede da; eta olan izan eta iraun egin bear du" —Pio XII-gnak—. "Eleizaren dotriña onen lehen-prinzipioak dio gizona dela alabearrez erakunde sozial guzien fundamendu, kausa ta elburua" —Joan XXIII-gnak—.

Agi denez, katolikoaren egintzaren objektibua eta jo-muga ezin ditezke instituzioak ta egiturak berak izan. Gizona baiño. Orregatik ain zuzen ere, gizarte-erakunde ta egituretan lan egin bear dugu guk kristauok, instituzio oiek berak gizonai oztopo edo laguntza izan lekizkieken era ta neurrian. Katolikoaren egintzak ortara jo bear du, ba: egi-

turaok eragozpide barik, lagun de-  
zaiotela gizonari bere perfektasune-  
rako. Zuzen zuzen doa au askok  
uste izan dutenaren kontra. Garbi  
erakusten baitu etzaiola gizonaren  
destinoari igual erakundeak nola-  
nai eratuak izan ditezten. Bai zera  
igual!

Egitura batzuk lagun lezaiokete  
ta beste zenbait estorbu gogor izan  
ere bai. Pio XII-gnak dio, gaitzera,  
ba zirkunstantzi batzuetan ezina egi-  
ten zaiola gizonari kristau bizitza.  
Jakifia, Aita Santuak eztu esan nai  
zifnezko heroismuakin ere ez leza-  
kela inork situazio ta egokera guz-  
tietan kristau ideal ori praktikatu.  
Beste au baizik: zirkunstantzi ba-  
tzuetan gizakumea, geienbat, eztela  
gauza heroismu ori burutzeko. Izan  
ere, nola jabetu ditek giza pertso-  
na bere dignidadeaz, baldin lana ez-  
pada bizi dedin medio bearrezkoak  
emateko titulu? Eta nora joango  
gaitzake nork bere burua landu ta  
perfektasunera eraman bear duela  
esaten, kultura alorrerako bideak  
zarratuak bazaizkie langillei? Ma-  
kifia bat olako exemplo ekar gene-  
zake!

Eta ontasan onek guztiok total  
izpiritutarrak direnez, ba-dugu nun  
lanari ekin. Ain zuzen ere, kristau  
guzien eginbear derriorekoa da  
gizarte-egitura oiek eboluzio laister  
bat lor dezatela, gizakume guztien  
munduko ta betiko destinoan eragi-  
pen bizia dute-ta.

Au ola, ez da errez ulertzekoa as-  
kok egin oi duten arako galdera:

ba al dugu, guk kristauok, zer-egi-  
fik politika ta sozial eremueta?  
Gizonaren buruan beti erne da ten-  
tazio zahar au; danetatik zaharre-  
na ta arriskuetsuena, manikeotarra.  
Lainoz-gaitziko kristianismu bat  
egiten ibilli gera, munduari bildur  
artu diogu, eta gure "erlijioa" loi  
etzekigun amoreakgatik errealitya-  
tearekiko ikutu guztiak aldentutzea  
zela bide bakarra uste izan gen-  
dun. Sagarraren arako kontu ura:  
sagar onar aparte, etzitezten usteldu  
ustelen aldamenen. Jaso dugu gu-  
re konportamentu onen fruitu ego-  
kia, bai. Gaurko kristau askoren  
aidean dagoen kristianismu loka ori,  
abe ta zimentarri bakoa, zer da, ba,  
ori ezik? Esandakoa.

(Oar bat, argigarri lez: Eztabai-  
da-gai izan bada ere Pacem in Ter-  
ris-ko "kristau" orrek nortzuk di-  
ren, katolikoak ala kristauak jene-  
ralean, gelenak bigarren au onar-  
tzen dutela uste dut. Nik ere bai,  
emen). Noan arira.

Ba-dire defendiduko liguketenak  
politikan ez dagola sartzerik, ze po-  
litikak betiere injustizia ta beste  
anitz pekatuetara bultzatzen gaitu,  
ezin bestean. Afirmazio au zuritu  
naiean eman dire arrazoiak ugari.  
Batzuk bakarrik emango ditut,  
agerrarritzat-edo. Labur:

1.—"Grupo de presión" edo dire-  
lako oiek komunzki interes propioen  
gose amorru dire, eta ez diete prin-  
zipio moralei batere kasurik egiten.

2.—Aginteak betiere koakzioa da-  
rama-ta, ezin du zuzena izan. Eta

Estaduak berak ere etekin propioak lortzera du joera, besteenak bost ajol zaizkiolarik.

3.—Bizi politikoa parte-arteak aktiboak postura imoralak artzera garamazki, prinzipio moralei lotu gakizkiela teoriaran defendi arren.

4.—Kristianismuaren izenean politikan eskuartzeak egiunean, konpromisoan jartzen du derrior Elizaren opingarrietan, eztabaida-gai diren eremuetan aukera-libertadeari milla traba jarriaz. Eta Elizaren prinzipioak direlakoan besterik eman.

Ba-daukate noski egiantza ta arrazoi kutsua. Eta, askotan, osoa ere bai. Bafia uste dut eztagula zertan ain muturrera abiatu bearrik. Ez al da, ba, posible, emen ere, Eskolastikoen zorioneko "in medio est virtus" ura?

Laugarren puntuari narraikio orain.

Ori defenditzen digutenak zer esan dezaiguketen aisa da konprenitzen. Zera: kristauak **kristau bezela** ez dutela politikan sartzerik. Guk ezin dezakegu onart aburu au. Egia da eman direla geiegikeri ta abusoak puntu ontan. Asko, agian. Bafia nori kulpatu bear zaio ori? **Kristau bezela** jokatu dutelako izan ote da, gero?

Gai ontan komeni da kriteriu objektibu ta subjelibua bereiz ditza-gula.

Katolikoetatik ifork afirmazioen bat rebelatutzat jo badeza, artzeko obligazioan dago olakoa. Eztu

eskubiderik, ordea, beste edonori artu arazteko. Kriteriu objetibua falta baita. Kriteriu objektibu ori, ain zuzen ere, Elizaren agintea da. Objektibuki, Elizaren autoritateak xoillik beartu gaitzake dotriña bat artzera.

Ba-ditu onek bere gaiztasunak kaso bakoitzean praktikara eraman bear dugunean. Ortik sortu da, ain zuzen, objezioa. Bafia dudarik eztaguk geuk bear bezala jokatu ko bagenu, ez litzaioakela konpromiso arriskurik Elizari sortuko. Zer gertatu oi da, orduan?

Maizenik, tentazio gogorra izan da politikan ari diren katolikoentzako beren politika-konportamendua Elizaren autoritatean finkatu gura. Zelestina bat biurtuaz Eliza Ama. Eta kristau ideala balitz bezala eman oi dute berea, beren arerioak Kristianismuarenak egiñaz: zeozer txarrik balego, komunistak-edo kulpatu bear. Topikoa egin da onezkerota. Ez al zen ba, olakorik ezer gertatu ifoiz Trujillo-ren garai bateko Santo Domingo-n? Konstantino-ren garaitik asi-ta, istorioaren zear, zenbat kalte ez ote dio Elizari sufri-arazi olako konportamenduak...

Laugarren puntuari dagokion opinio ori defenditzen dutenak galdezten digute ea zeren amoreakgatik jo bear dugun guk, kristau geranez, politikara, arriskuak ain andiak izan nikan?

Erantzuteko Pio XII-garrenaren itzak erabiliko ditut:

"Derriorez eta betiere giza-bizitzak —bai partikularrak bai ta sozialak— Kristo-ren lege ta izpirituan kin topo egiten du; ortik datoz, alabarrez, apostoladutza erlijioso ta egintza politikoaerikiko ar-emanak. Politika itzak —bere esanai zuzenean— ez du esan nai erriaren, polis-aren, onerako kolaborazioa besterik. Erriaren delako onak, ordea, edatze zabala du, eta, beraz, polis alorrean garrantzi andiko legeak eztabaidatu ta eman ere egin oi dira: ezkontzari, familiari, umeari ta eskolari dagozkienak, adibide batzuetara xoilik mugatzearen. Ez al dire, gero, arazo auek erlijioari interesa zaizkionak batez ere? Utz dezakete indiferente ta apatiko apostolu bat?"

Egintzara beartzen gaitu Kristautasunak. Or eztago bueltarik. Eztugu onekin esan nai, alere, kristauak oro politikalarriak izan bear luketarik, ez. Politika-joera bokazioa baita.

Beno, bafia gaia tajuz erabiltzeko "politika" itzekin zer adirazi nai du dan noan aditzera, aurrera pasa orduko. Ara: administrazio publikoa eta ekonomi, sozial ta politikako erakundeak. Esanai zabalxea, ba.

Politikan ekin bearra ametituta ere, beste problema bat presenta dakiguke, onekin zerikusi ba-duena. Alegia: nundik, eta nola egin bear dugun lan ori.

Gaur ez dago dudarik, Pacem in Terris-ek dionez, gaur gizarteko egitura ta erakundeen "barrutik" egin

bear dugu lan. Barruan sartu ta eragikor jardun. "Mundua"-ren urbilletik ibilli bear dugula esan nai dut. Areago oraindik: "mundu" orren barruan eta sakoneran, andixik bakarrik da posible mundu au aldatzea-ta.

Amesa ta utopia dela uste dut ifioiz esan den arako ura, alegia: "katolikoentzako mundu aparteko bat egin bear genukela, gu geuretara bizi ahal gaitezen". Nola, bafia? Ba alaxe: katolikoentzat eskusiba den mundu txatxar ortan, bearezko serbizioak oro arki genitzake. Unibersidadeak, eskolak, bankuak, klinikak. Eta zinemak.

Bai dela au utopia uts eta ustela! Esan ere olakorik! Besterik dio Aita Santuak: geuk sartu bear dugula, buru biotz ta guzti, or munduan, ortik egin ahal ditzagun, etika natural ta kristauaren arabera, gizarte-egiturak. Eta adibide gisa, nik uste, eginkizun batzu dakaruki Pacem in Terris-ek. Zerauek: Sindikatoak, langintza-bazkunak, seguruak, kultura-lanak, politika, sendagintza, jolasbidea, etabar.

Munduko estrukturak oberantzta eramateko lan ontan, beti aurrerantzta egin bear dugu, guzia eginda dagoanik ifioiz pentsa gabe. Ez dezakegu guk ifioiz esan: gureak egin dik! Kristauak izan bear luketelako gizartean artega ta urduritasun sartzalleak. Ikus zer dela ta: Gizartea kristau egitea da gure lana. Jesus bakarrik izan zen kristau perfetoa. Eta guztiok, bera gera-

nez. Ezin gaitzake, ba, loak artu ta ezin gindezke bidez geratu arik eta Kristo-ren pare izan artio. Noiz ortaraino eldu, ordea? Egia esan, ifioiz ere ez. Bafia ori ez da motibua obetze-lanari uzteko. Aldrebes baiño.

Gizonarekin gertatzen dena, orobatsu, gizartearekin ere, aldeak alde. Paskal-ek dionez, gizartea ez-talako gizon bat baiño, beti dirauena ta etengabe ikasiz dijoana. Soziedade bat, ba, ezin da izan sekula gizarte "kristauna", itzak duen sentidu absoluto ta akabuan. Kristau idealaren karakteristika bat, izan ere, bera baitan perfektasunerako amaibako eskabide ta esijentziak edukitzea baita.

Arrisku bat sor dakiguke fite, ori ola dela jabetzen geranean. Bai, Kristianismuaren amaibako eskabide orrek nagitasun ta pesimismu gaizkor bat eman dezaiokete giza-kumeari. Baldin ifioiz burutu ezin bada gizartearen naikunde ori, zer dela-ta lan egin bear guk? Kontuz, ezpaita galdera zuzena. Or bai-datza **meliorismua**-ren leloa. Gizarteko egitura ta erakunde oiek, ba, ifioiz perfetoak egin ezin badira ere, bederen obeak, askoz obeagoak egin gindezke. Egin bear ditugu.

Munduko gure egintzan nola baliu izpiritualei atea zabalago idiki, ala instituzio ta egitura beren xedea obe ardietsiko dugula esan zigun MM-k. Bistan da onekin ez-tuala esaten munduko zeregiñak be-

rez egin ditzakegunik. Munduko beste gizonen antzera, guk ere berdin landu bear dugu gere burua, gero gizartean influentzia egin ahal dezagun. Lehendabizi, ordea, fedearen argi zerutarra ta ona egiteko naikunde beroa erantsi bear dizkio-gu gure egintzari. Orrek gidatu ta zuzendu bear gaituzte. Eztu onek esan nai, alere, ez-tugula beste eze-ren bearrik.

Egia da, bai, katolikoaren egintzak ez-tuala ez buru ta ez buztanik bi kondizio oiek gabe. Eztu izate arrazoirik. Baiña gizarte-instituzioetan tajuz lan egin ahal dezagun, arrazoiaren arabera, derriorekoa da bete ditzagula beste kondizio batzuk ere. Beste edonork bezalaxe "jakitez ta teknikaz gai ta langintzarako trebe" izan bear dugu. "Katoliko" titulu utsa ez da gauza, egunean, gizarteko erakundetan sarrera eman ahal dezaigun. Eta obe ola; ezpabe, lehen bezala, zenbat egintza Elizarentzako lotsagarri ta kaltegarri ikustera bear-tuak giñake! Katoliko izen ori ez da ezer auzi ontan. Ifioiz izan da. Orregatik-edo diosku Joan XXIII-gnak alegindu gaitzela munduko zeregiñetarako gai ta gauza izaten.

Munduko gure zeregiñetan gauza bakoitzari dagozkion legeak eta berarizko egite-arauak betetzen saiatu bear dugu lehenik. Pacem in Terris-ek dio ia itzez-itz.

Garrantzi luzekoa deritzat alber-

tentzi oni. Anitz pekatu egin dugu, egin ere, guk katolikuok puntu ontan-eta. Askotxok uste izan dute beren lehenbiziko eginbearra influentzi zeukaten egituretan erlijio-igortzi azaletiko bat ematea zela. Okerretik zoazte —diotse Aita Santuak—. Zeren zuen lehen-eginbearra besterik da, ots: egitura ta erakundeek berai dagozkien gaiak ta indarrak erabillita, beren xede apartekoak burutu ditezen alegiñak egin, bide ortatik giza-perfektasunerako lagunduaz. Egunean kristau izenari bortxa egiteko auxe dela bide bakarra esango nuke.

Ez al duzue ezagutu eskolak edo zelan preparatu ta eman arren, kristau dotriña buruz zekitela-ta kontentu geratzen ziren maixurik? Ba-dire seigarren mandamentu-kontuak zuzen badoaz joan, konforme diren erri-agintariak, beren menpe dauzkaten egitura sozialak sufri-gaitzak izanikan ere. Arki genitzake lansari bidezkoa barik (ordez), langillei ejerjizio izpiritualak edo sasi-sarritxo bat edo beste eman oi dizkieten ugazabak.

"Katoliko pratikanteak" direla ori. Seiñalea da orren kristautasunak eztuala txakur txiki bi balio. Benetako Kristianismutik urrun da biltz olakoak, naiz-ta medalla asko paparrean kokatuta erabilli. Lehen-bizi obligazioa ta urrengo debozioa esan oi da. Eta arrazoiaz. Ori da emen ere lege nagusi. Egia aitortu, aski da nunbait obligazioa, obrazko kristianismua, baldin praktikan be-

te badeza, eguneroko bizi-moldearen artuemanetan giza-legez bete betean jokatuaz. Etzaio ifiori eskatzen, ba, gizarte-egituretan predikua-ak egiten asi dedin. Obrak eta testimoniao, ori da gaurko munduak eskatzen diguna.

Gauza neiko arrarora gertatzen da sarri, Euskal erria exenplo, kristau fede zaharreko erri batzuetan. Zera, bertako gizarte egitura ta erakundeak eztauke kristau-zentzu ta irizpiderik ia batere. Ta ori lege oiek eraikitzen kristau-sinismendunak ibilli direlarik. Zer dela-ta gerta diteke ori? Nun arki genezaizkioke orri azken-sustraiak? Kaso bakoitzean eta indibiduo diferenteetan zerbait aldauta, segurasko. Baña edozein modutan ere, sinismena eta biziera publikoa bat ez-etortzean. Fede ta bizierak desakordu bat dutelako tartean, kraskadura bat bailitzan.

Gure artean beste problema bat ere pasetan da. Bear bada beste orren zergaitia. Onek esplikatzen baitu zergaitik gerta diteken siñis-mena-ta biziera publikoaren arteko desakordu ori. Onatx problema au: Beren bizi partikularreko goraberak eskabide gorri ta latzetan planteatzen dituzten katoliko oiek berak ere, agian, gero, itsuak dire oso ikusteko beren menpean dauden gizarte egiturak benetako injustitzi sufritueziñean nola diren. Eta ezta arritzekoa. Milla bider errezago baitzaie debekatutako gutizi ta naikunde batzuk alde bat uztea, elizan li-

mosnatxo bat luzatzea, are irabazpide batzuei uko egitea, beren ego-  
kera ekonomiko-soziala oro alda le-  
zaieketen egiturei ausartki aurre-  
ematea baiño, erreformatuaz, ale-  
gia. Oso zailla dela aitortu bear  
da. Baiña kristauki gauzei begira-  
tu arin bat egiten badiegu ere, de-  
rriorezkoa denik eztut dudatzen, ze  
olako kristauak dezaiokete Elizari  
ainbeste komunistak baiño kalte  
geiago egin. Eskandaloa bide.

Eman duguna da arrazoi bat, ez-  
pairik gabe. Beste bat ere eman de-  
zakegu, Pacem in Terris-ek damai-  
guna ain zuzen. Dio ba-ze kristauak  
eztutelako era berdiñean landu be-  
ren formazio erlijiosoa ta jakite-  
ezagutza gertatu oi dela ori. Pro-  
gresuaren aldetik ainbat pauso. Ta  
izpituarenetik? Or aurren lehen-  
urratsak ematen ozta-ozta, gatzaro-

ra ifioiz ez atxikitzeko moduan, gai-  
ñera.

Diferentzi onek dakarzkian ondo-  
rioak penagarriak dire benetan. Uni-  
bersitario ta profesiodunekin lanean  
ari diren apaizak ao batez diote,  
fede problemetatik geienbatek or  
dutela nunbait iturburu. Jakita-  
te-ezagutzak eta teknika-aurrerape-  
nak bide berriak idikitzen dieten bi-  
tarteetan, Kristautasunaren ezagu-  
tzan eztute pauso bat ere aitzinatu.  
Eta orretara, etor dakizkieken pro-  
blemei eztakite kristau erantzunik  
nola asma. Errez da, gaiñera, ortik  
salto bat egin eta Kristianismua ar-  
buiatzea munduko arazoei erantzu-  
pen egoki bat emateko gauza ezte-  
la-ta.

Eztezan olakorik gerta Aita San-  
tuak eskatzen du bijoaztela ezagu-  
tza biak pare, ume ta gazteen for-  
mazioan.

# NESKATXAK EZ DUTE EUSKERAZ ITZEGIN NAI...

**Jose Azurmendi**

Diotenez, neskatxak salbatuko ala galduko omen digute euskera. Oso azalean gelditzen dela esango nuke iritzi au. Ez nago konforme. Alde asko dauzka egiazkoak, dudarik gabe: euskera transmititzeko amak familian duen eskua, esate baterako. Ori esaten dutenak erabiltzen duten sentiduari, alare, susmo gaiztoa artzen diot. Errezegi zabaldutako jui-zioen azpi irristakorra ez ote duen, nago.

## ...eta arrazoia daukate

Sustraiak sakonagoak eta gaiztoagoak ditugulakoan, nire ustez benetako arrazoia denaren billa jardungo naiz. Neskatxak euskeraren kontrako arrazoia badira, arrazoiaren arrazoia billatzen. Mundu guztiak amestitzen dituen gizarte-legeak guretzat, emengo egoeragatik, latzagoak gertatzen baitzaizkigu, neskatxak euskeraz itzegin ez naiaren arrazoia gizarte lege batean finkatzen dela erakusten saiatuko naiz.

Niretzat ez da egia Euskal Erri-ko neskatxak ez dutela nai euskeraz itzegin. Bai, ordea, ezin dutela nai. Ez baita berdin.

Ederki demostratu zigun Gregorio Marañón-ek nola gure egunotako bizitzaren ezaugarri ta berezitasuna den keinua. "El predominio del gesto es una de las características

de la vida actual" (1). Gesto edo

(1) Keinu itzarekin ez da entenitu bear emen eskuarena edo aurpegiarena bakarrik. Itz onekin sentimentuen edozelín adierazpen modu adierazi nai da artikulo onetan. Irribarrea ala apainduría, ala ibillera...



keinuak beti izan du pixu galanta, noski. Baiña gizonaren jaiotzarekintxe asi zen keinuaren kondairak, gure denporan berebiziko azikuntza artu digu, metodo ta merio grafikoen zabaltzeari eskerrak: zinema, telebista. Keinuren oifaztarra begietatik sartzen zaigu-ta, xuxen xuxenean biotz ondoraifio.

Gauza agiria da gure sasoikide geienak beste norbaitengandik ikasitako keinuz jarduten dirala bizitza korrientean. Edukazioaren zati inportante bat onelako formula ta keinuak erakustea da. Fintasanak orixe eskatzen du.

Onetaz gairera asko imitatzen da goikoen keinua. Deportista, politiko, jakintsu... ta guztien gairetik "izarrak", zinemako artistak egiten dituzten muxin den denak pasatzen dira aien "adoratzaillan" nortasunera. Artisten lehenengotasun au errezki konpreni dezakeguna da, zinemako keinuren indarrak nola zulatzen eta ebakitzen gaituen gogorutzen badugu.

Gaitza ez da oraingoa, goian aurreratu dugunez. Beti uste izan dute persona ximpleak, personalidade aulekoak, jaun altuen keinuak berriutuaz, kopiatuaz, jaun aien presutasunaz jabetzen zirala. Kopiatze au, bestalde, ez da beti kaltegarri gertatu: pintura, poesia ta arte eskolak, jeneralean esanda, bai baitute keinuren kopiaketa onekin zerikusirik. Ekipoa, alderdi politikoak, orobatsu, lege oni eskerrak dira posible. Ispillura ere keinuren bi-

lla, geure keinuren billa begiratzen dugu: orrazkeraren, begiratuaren, irribarrearen... keinua.

Ta ezaguna da emakumeen ispillu zaletasuna, egoki den bezala. Arrazoi guztiarekin billatzen dute emakumeak beren keinua, sentimientuen azalpen personala izan dakien keinu eroso. Orrelaxe egitea baitagokie naturalezak eurai eman dien eginkizunaren arabera. Alegia, sexo bizitzan, amodio bizitzan, imanak izateko legea. ("Ella es el centro normal de la atracción en el dinamismo sexual").

Onekin emakumeen emakume-jokabideak, (balio beza reduplikazioak) ez direla banitate uts agertu nai nuen. Izan ere, batzuetan aski da sexo, maitasun, maitemin (enamoratze) ta orrelakoak aipatze soil-la "aitaren" egiten asteko, edo dena gaiztakeriaren kolorez ikusteko. Emakumeak ispilluaren aurrean egindako denpora, denpora galdua iruditzen zaie, tuntunkeria edo pekatu ezpada. Alaxe ondatu dugu —loitu ez dugunean— bizitzaren konzeturik sakratuena.

Emendik aurrera euskerak maitasun ta sexo kontu bearrezkoetatik dituen galbideetara irtengo gifaie. Baiña oraingoz esan-legearekin utziko dugu, berriro keinurengana itzultzeko.

Norberaren indibiduotasun urritasuna, bada, jende prestuen keinurekin erremediatu nai izan du beti gizonak. Jende printzipalak bai modak sartzen zituen (askotan pobre-

entzat galestiegi), bai kortesiazko oiturak agindu. Ifun irakurria dut Josefina Beauharnais, Napoleon-en emaztea zoragarria zela, ta gortean ziren dontzella denak ari segitzen alegiten zutela. Baiña Josefina-ik oso itsusiak bide zeuzkan ortzak eta, itsutasun au gordetzeko, parre egiten zuenean xedazko zapitxo batekin tapatzen zuen aoa. Keinu au laister zabaldu zen, beste Josefina-ren ainbeste uskeria bezalaxe. Eta... ango neskatxak etzituzten denporaldi batean beren ortz ederrak geiango luzitu. Andre onena naiz beste edozeinena izan, berdin zaigu kasu onetarako.

San Frantzisko-ren bizitzan konstatzen zaigu nola santutu etzekien Fray Joan ximplea deritzanaren erabakia: edozertan San Frantzisko-k egiten zuena bera egitea, alegia. San Frantzisko-k ez tul, berak ez tul; Frantzisko-k eskua jaso, baita berak ere. Onekin bereganatu nai zuen Frantzisko-ren personalidadea. Ta espiritualidadeak onetatik sortzen dira, fundatzaille edo santu baten keinu materialak ez baiño espiritualak imitatu nai izatetik.

Azkeneko exenplo bat, oraindik. Indio azal-gorri jantzi den mutikoak, gutxien gutxienez Tekumse uste du bere burua. Ta cow-boy plantan dabillanak ez du joko bere abildadea Bufalo Bill batena baiño eskasagotzat. Neskatxetan moduloak, agian etxeoandrea, Kaperuzita, printzesa txuriak etabar izango dira. Batek ez daki gelegi, egia

esan. Umearen seriotasun parregarri au bera ta parregarriagoa, gertatzen da aundiago geranotan, beste era bateko keinu kopiatzearekin, eta asko jakin ez dakigula.

Keinuak ez du, noski, gaitza erremediatzen. Baiña itxura salbatzen du beinepein-eta, sakonekoa baiño azalekoa kudadu geiangoz zaintzen dugunez, personatasuna indartu baiño naiago dugu keinuz eta kopiaz axal axaletik antzaldatu. Neskatxak errudun? Bota beza kulpagabeak lehenengo arria.

Kopiaketa au ez da beti borondatezkoa ta apropos egia. Aitzitik, istintoz egiten dugu batez ere. Gaiñera, ba-dira munduan keinua erantsi egiten dizkiguten zera antzetsuak, gure izakeraren moduari euria lurrari lez datozkiolako: kantua ta ritmoa oar erazi ditzakegu. Ta zinema.

Zinema keinuarekin konformidadean egiten da, ta gestoa da aren indarrik nagusia. Keinua da bere muia, ta orregatik esajeratzen du. Abotsa bera keinu (ots, sentimentuen keinu soifuduna) izatera etorri da, teatrotik artua zitekeana erabat lehen izakeratik apartatuaz. Otsak, alkar izketen tonalidadeak, gestoaren balio dramatikoak bete dira zineman. Beraz, zuzen esan dezake Marañón-ek (zineman) ideiak ez baiño sentimentuak adierazteko erabiltzen dela, batez ere, izkuntza, ta keinuaren balioa daukala.

Gauza jakia da gure bizitzetan zinemak artu duen inportantzia. As-

tero astero an doazkigu zenbait ordu. Eta jenderik geiena pasibididade guztiarekin dago pantailaren aurrean exerita. Imajia euri luzea, naro naro sartzen zaio begi xabale-tatik, batere aukera kriterioaren galbaetik pasatu gabe. Nola izango da ba posible imajia pilla orrek ez erakartzea ondoren ikusle oiei? Asko esan da zinematik oituretan ta moraltasunean duen eragiaz. Alde ala kontra. Baia ez da dudarik ba-duena, ta ez gutxi, akordatu gabe sartzen zaizkigun ainbeste imajia, keinu, ideia, egintza ta egintzaok mogitu dituzten printzipoen bitartez.

Ikaragarria da ikustea zein barreraiaño ari zaigun gaurko bizitza urduriaren pipia nortasuna jaten. Nortasun tinkoak, indibiduo-tasun sendoak, galtzen ari omen dira. Personalidadeak taldean urtutzen ari omen dira. Jakia ba, gure barnean pentsamenak eta boronda-teak erne bear lituzketenaren orde-zkoa, dena kanpotik ekartzen dugu-ta. Mendiota aritzak urritzen do-azkigu, pifuen parean.

Au mutilletan egia bada, egiago da neskatxetan. Ba-leike mutilletan besteotan baia nortasun xinpleagoak, txepelagoak izatea, ondamedia bildurgarriagoa izatea, beintzat. Baia neskatxetan, bizitza eta oiturak legetzat jarri di-tuen makia bat gauzatxo merian-te, nabarmenago agiri zaigu kopia-tze onen esklabu itxura.

Gertaera onen analisi batek urru-

negi eramango ginduzke. Dena dela edozeinek ikusi uste du emakumeen apainketarako griña, interpretatzen oso banaka batzuek besterik ez ja-kin arren. Emakumeak bere figu-ra aldatzeko daukaten jatorrizko maia aspaldian ametitua da, (ema-kumeari adimena ta irudimena be-ra arras ukatu nai dizkionen batek ezik). Onen zergatiko ta zertakoen kontaduria oraingo, moraltasun ala gaiztakeriarenakin batera alde ba-teratuta, gertakizuna bera jaso bear dugu emen. Alegia, ala dela gau-za, apaindurien azpian izkutatzeko joera naturala duela emakumeak. Quevedo garratzak dion arakoa: "Jakín zazu aurrenik emakumeak janzen duena zera dela: jaiki or-duko, aurpegi bat, lepo bat eta es-ku batzuek, eta gero gonak. Kus-ten diezun guztia da denda ta ez naturala". Gaur esango zukean: guztia da zinema.

Esandakoaren probakaritzat gu-re bizimodu korrienteko exenplo batzuek presenta genitzake: ibille-ra, janzkera, exeritzea, diosalak, zi-garroa pizteko modua... Ta maita-sunezko artuemanak. Dena zine-man ikasitako moldeen arabera.

Keinu oekin gertatzen dena esan genezake izketaren azenoekin ere gertatzen dela, "pues el acento tie-ne mucho de gesto también". Ta beste orrenbeste itz arrotzak erabil-tzeko azkure xelebraz: teen-ager ta baby edo boy, deshabelle ta one-lakoak esateak polliki puztutzen bai titu kasko arifetako aixkeriak...

CODORNIZ errebistak bein baifio geiagotan astindu ditu majo afan oek eta oen kofradiakoak. Alpe- rrik. Sustrai sakonak dauzka-ta, personalidadeen txirotasunean, ain zuzen. Ta oifiarri triste au ameti- turik, gure munduan gauzak diren bezala izatea, lege bat da, gizarte lege bat.

Jetxi dezagun orain lege au azen- toa kopiatzetik izkuntza osoa ko- piatzera. Ta orra frutua. Zinemaz gaifera beste laguntzaille asko kon- tatzen baititugu ondoren oek arau- tasun egoki bidez ateratzeko, prin- tzipio aietatik behera.

Neskatxen arinkeriaz izkirimiri bat eginda prolema menderatu due- la uste duenak, uste dut nik, berak duela ifiorik ez bezalako arinkeria. Naturelezaren legeak lege dira, guk nai ezta ere. Ta errealdadea, atse- gifa ala mingotsa, zerbait serio da, ba-den ezkeru, izan. Bizitzeko le- geen ta errealdadeen kontra ari- tzea nebozio makala genuke.

Denok kopiatzen dugu, ifiorik ez baitu personalidade erabatekoa. Ta neskatxak geiago, neskatxa direla- ko, alegia, erakarmena eurai dago- kienez apaindu egin bear dutelako, ta apaindu naita.

Neskatxak nai, ez dute euskera baztatu nai. Ezin diote eutsi, or- dea. Bizitza bera dago, gaur gaur- koz, euskeraren kontra. Ta oni ta besteari kulpa geiegi botatzean ez gera xinglekerian bestetan ari. Ezinbestezko gertakizunengatik ifior kulpatzea ez da zuhurtasun andi.

Errudunak, ifiun billatzekotan, es- kolatuen artean eta konzientzia ta personalidade zaildua izan dezake- tenen artean billatu bearko lirake.

Sexo bizitza (2) begizatuaz, oar- txo bat aurrenik. Esandakoa. Iza- diak emakumeengan jarri duen era- karmena indartzeko neskatxak soi- fieko ta abarrekin laguntzen diotela bere buruari. Onen arrazoia sikolo- goak emakumea gizona baifio fisio- logia aldetik gutxiago diferentzia- tua izatean ezartzen dute. Dena de- la, naturelezak onela egokitu digu sexoen alkarrenganako erakarme- na. Beraz, onelako bidetik irtetzen zaizkigun ondorenak itsu itsuan kondenatzea naturaleza ezezagutzea genuke.

Askori entzun diot bizitza sexua- laren goraberak euskeraren usa- rioan pareak dituztela. Alegia, nes- katxa erderaz mintzatu zale asko, berriz euskeraz mintzatzera itzul- tzen direla ezkontzearekin. Ain zu- zen, apainduri larriak gutxitu-ala igotzen da termometroan euskera- ren usarioa, entzuten denez. (One- tarako ba-dira noski bestelako arra- zoiak ere.)

Amodio izkera analizatzea intere- santea izango litzake alde onetatik. Euskal erriko oitura zaharrak, gal- du dira, ta berriak zinemarekin sar- tu zaizkigu. Beti erderaz, gaztelera- z naiz frantsesez. Laister ikusiko du- gu zerbait, exenplo batekin.

(2) Lopez-Mendizabal-ek sexo esateko giza dakar. (Sexo femenino, giza eme), ta Orixe-k oker ez banago *kuntze*. Villa- sante-k *sexuo* esaten du.

Fitz-Gibbon idazle amerikanoak idatzi du erosketara doan emakumeaz, berealaxe konparatzen dituela komertzio bateko ta besteko salgaien aldeak. Biurtu dezagun: neskatxa euskaldunak berealaxe auke-ratzen dute euskeraren ta erderaren artean. (Ez neskatxa denak, badaira personalidade jatorrekoak-eta). Istintoz bezala.

Tristea da onelakoak aitortzea. Ez dago beste erremediorik. Gurea edo zaharra izateak ez digu salbatuko euskerarik. Bestelako arrazoiak bearko dira. Ta arrazoi oek obrak dira, egintzak. Alegia, euskera erriaren izkuntza ofizial izateraiño jaitkitzea. Gizartean indarra daukate-nak laguntzen ez badiote, euskera-renak egin duela esan ditekete.

Edo neskatxa euskaldunai personalidade berdin gabekoa eskatuko diegu, den-denai?... Nortasuna ez da erreal bitan saltzen, ixkifiako den-dan.

\* \* \*

Denok daukagu keinuetan pres-tuagoai segitzeko istintoa, gutxi as-ko. Au da tximuarengandik gatozen beste seiñale bat... Joera au litera-turan, filosofiaren eta teologiaren kondairan, nabari dira. Esate bate-rako, 18 garren mendeko literatura espaiñolean auxe ikusten dugu. Ta gaurko teologia ere mimetismo pe-nagarri ta itsusia da, estimazio an-dian dauden teologo alemanen se-gikera biurtzen doan ezkerero.

Mimetismo lege au neskatxai ez baiño erri xeheari aplikatuta lehe-nagotik salatu da gure artean: Al-tube, Intxausti ta amaika geiagok. Orduko jauntxoek kopia, gaur zine-maren, telebistaren, Hollywood-en kopia biurtu da. Ainbesteraifño sar-tzen zaio jendeari zinema, ze diote-nez japonarrak naiago ei dute amo-dioa ifñori deklaratzekotan inglese-z egin. Beraz, gaitza ez da gurea ba-karrik. Ezta neskatxena bakarrik ere...

Kaneto Shindo-ren "La isla des-nuda" filma dela-ta europar eta ja-pondar neskatxa bik izandako alkar izketa ederra argitaratu zuen UNESCO-k. Film onetan itz gutxi da. Europarra arritu egin zen eta etzitzaion iruditzen gizabidezkoa zi-tekeanik alako ixiltasun gogorra. Japondarra, ostera, filma bi aldiz ikusi ta alare etzen konturatu itzik falta zela... gero esan zioten artean.

Alkar izketa guttiz interesgarri artan gure arlorako esanberritu ne-zakean zerbait bildu dizut: japon-dar mintzairak ba-ditu itz goxo bi-guiñak, baiña japonarrak ez dakiz-ki nola erabili. Edozein mutil ja-pondarrek esan lezake "maite zai-tut" izkuntza arrotz batean, baiña nekez esango omen lituzke japone-raz. "Sekula ez entzun izatea ere ahalgarri litzake", dio japonarrak.

Inglese-z naiz frantsesez esateko-tan, ordea, bestela litzake kontua. Zeragatik: maitasuna agertzearen modu berriak, japondar oitura za-harretan etzirenak, zinemak eta sar-

taldeak (amerikanoak bereziki) sartu dituztelako. Ta moduekin, keinuekin, izkuntza. Japondarrak, berez, begiratuarekin agertzen omen diote alkarri maitasuna.

Zoziologoak arin ametitzen dute zinemaren eragipen au, beraiek "cuestiones superficiales" ta "inofensivas" deritzatenetan. Onelakotzat señalatzen dizkigu Gordon Mirams-ek janzkera, orrazkera, jolasak, eta **itzegiteko modua...**

Baifia guretzat izkuntza mimetis-

moa ez da batere azaleko ta bai oso arriskutsu. Kezkatzen gaituen prolema mingarria.

Jainkoari eskerrak ez dagoela dena illun aitortu nai nuke bukatze koan. Ba-direla nortasun bikaiñeko neskatzak, euskerari gogor eusten diotenak. Ikasi egiten dutenak ere. Olakoak ugaritzen baditugu, sentimenduak arrotuaz ez baiño personalidadearen oifñarriak indartuaz, noski, etorkizuna gurea izango da. Zergatik esperantza galdu?

# Elorri

(Egillearekin izketan)

*Pello M. Zabaleta*

Euskal-poesiaren soroan langille bikaiñak dauzkagu. Oraingo aldi onetan asko ari zaizkigu esnatzen. Eta poztu bearrean arkitzen gera, ni neu beintzat pozik asko nago ainbeste poeta berrien jaiotzearekin. Aitazen jarri ezkeru, luze jardun bearke nuke, maixu eta maixu biur-tu diren ikasleak aipatzen jarriko banintzake alegia: Lizardi, Lauaxeta, Orixe, Zaitegui, Iratzeder, Miran-de, Aresti eta Gandiaga izendatzen ditu P. Lafitte-k, denak saillean, zaharragoetatik asita aurrera.

Orain "ELORRI" liburuaren egi-leari buruz jarduteari lotuko naitzaio. Orretarako, A. Gandiaga-ren gelara zuzendu ditut nere pausoak. Izan ere, etxekoa dugu A. Bitoriano Gandiaga.

A. Bitoriano Gandiaga Mendata-ko Orbelaun baserrian jaio zen. Gaztea da oraindik Umilla oso, eta apaiz egin zanetik praillegaien irak-  
kasle da.

Bere jantzi apalen azpian, biotz

aundi bat dauka. Begiak garbiak izadian Jainkoak ixuri dituen arri-garriak ikusmiratzeko. Izan ere, Arantzazu onek ba-ditu Jainkoak jolasetan bezala utzitako amaika txoko eder, ala nola Katabera-n Gipuzkoa osoaren gaifean irikitzen den balkoi zabala. Artzan-buruko gallurretik berriz, begiak banatu or-duko Araba laua, itxaso urdifa, arkaitzak, mendiak, sakonak, erri-ak... Urbia...

Emendik jaso ditu A. Gandiagak bere liburua osatzeko tantoak. Ain zuzen, ez dauka Arantzazu zeru zatiak A. Gandiaga-rentzat sekretorik. Eta, Asis-ko Prantzisko deunaren seme on bezala, ez du eder den ezer baztertu. Orrela, prantziskotar izpirituaren frutu otzan goxo bat eskeiñi digu.

Egunero, une oro esango nuke, arnas berri bat ematen dio bere izpirituari. Ain zuzen bere gelara baldin bazijoaz, an arkituko duzu leioa zabalik Arantzazu-ko amildegi

auai begira. Beti zabalik, beti Arantzazu-ra datozen txorifioen kanta zoliak entzuteko prest, gero denak olerki biurtzeko.

Baifia A. Gandiagak biotza du apartekoa. Aundia. Eta bertan dira torre aundiko kanpaiaren barnean burnizko mingaiñak bezala etengabean doñu izultzen.

Bere gorputzean bezela, olerkari sendoa A. Gandiaga. Bere pauso tinkoak ondo emanez urrutira dijoana, mendi auetan urrutira joaten dakian bezala. Eta galtzen ez dena, Arantzazu-ko bideetatik abiatzen denean galtzen ez den era berean.

Nere adiskide Jose Azurmendi jatorrak —bera ere poeta eta idazlea— auxe zidan bein: "Nik euskal poetaen artean Gandiaga Lizardi-  
ren parekoa bezala emango nuke, nor den aundiagoa esatera ausartu gabe". Eta beste norbaitek noizbait: "Gelegizko eskandalua sortuko ez balitz, nik Gandiaga-ren ELO-  
RRI liburua Lizardi-  
ren BIOTZ-BE-  
GIETAN beifio gorago jarriko nuke". Asko esatea da. Ni ez naiz ifior ez iritzi au balezteko ez ukatzeko. Bakoitzak du bere burua lepoaren gainean; zeazertarako eman zion Jainkoa-k.

Entzun nuen baita Antonio Arrue jaunak Arantzazu-n guretzat eman zuen konferentzi ederra. Bilbao-n emanikoa bera. Onek ere gaur euskaldunen artean ditugun lau poeta onen artean jarri zuen A. Bitoriano Gandiaga-ren izena. Antxe ze-

goen bera aurrean, Antonio Arrue-k ziona ezin sinistuz. Baifia egia da, egi aundi, egi soilla.

Poztu nintzan Antonio Arrue-k zionarekin: Izan ere (gure A. Gandiaga-k ori guztia eta geiago merezi du. Apala delako, benetako euskaldun idazlea delako. Poeta aundia delako. Berak esana dakit: "Edonun bizi izan banintz, angó paraje aiek kantatu bear izango nitun. Neri asko gustatzen zaizkit Bilbao-ko Nerbion errekan dabilten gabarra eta ontziak, angó ura... Emen Arantzazu-n nagoalako kantatu dut Arantzazu. Eta Arantzazu au ain txoko latza izaki, nere poema ere "soin gabeko ta ezifia" da, liburuan diodan bezela".

Txundituta geratu izan naiz sarritan liburua eskuetan dudala, gogarte luzean. Biotz aundi batean jao da ELORRI.

Ifior au guztia gelegizko gauza dela uste baleza, artu eskuetan eta irakurri. "Tolle, lege" diot nik ere Agustin deunari ume arek bezala.

\* \* \*

—Arantzazu-ren gainean liburu bat eman diguzu —Elorri—. Esan al zenezake liburu ori idazteko gogoa noiz erne zitzaizun?

—Mutiko nintzala pentsatu nuan Arantzazu-taz liburu argi ta urdin bat idaztea: letra gutxikin eta tarte zuri askorekin.

—Poesiaz dagoen ezkeru, orduan asi al zifian bertsoak idazten?



—Asi Forua-n asi nintzan neure sentipenak bertsoz ematen.

Olite-n ere idatzi nituan zertxo batzuk: beti norbere kontura eta ifñork ikusiko ote zizkidan lotsa aundiz.

—Eta ez al zenizkion ifñori erakusten?

—Artean ere, baiña ixilpeko gauza bezela beti, lagun bateri edo besteri erakusten nizkien.

—Lagunak zer esaten zizuten?

—Lagunen aldetik beti jaso nituan animuzko itzak. Ezkutuko lantxo oiek agertzera ere lagunak bultzatu ninduten.

—Ez al dizute irakasleak bertso lan orretan lagundu?

—Irakasleak ere, bein nire bertso oiek ikusi zituztenean, asko poztu ninduten ortan jarraitzera.

—Asko idazten al zenuen?

—Ez nuan asko idazten. Asti-uneetan bakarrik. Baiña asti-une oiek niretzat gutxi izan dira. Beti artu izan ditut edo estudioak edo pralle ta apaiz-eginkizun eta lanak edo tarteka ta noiznai azaltzen diran orri edo ari eldu bearrak edo, bertsoak idaztea baiña aurreragoko gauzatzat.

—Beraz, ELORRI, karrera guztiko seme duzu?

—“ELORRI” Arantzazu-n egifia det. Opor-aldietan geiena.

—ELORRI-rekin asi geran ezkeru, agertu itzazu liburu au egitean eman dituzun pausoak.

—Beti izan ditut lagun onak eta beti utzi didate nere idazteko gri-

ñari jarraitzen. Beti utzi didate bi-dea aurreratxoago eta atzeratxoago joaten edo neuk aukeratzen nuan arkaiz-gallurrera irtetzen edo mai-teago nuan erreka bazterra edo itur-ondoa edo pagadia aukeratzen.

—Menditik dena eginda ekarriko zenun orduan?

—Toki oietan artutako apunteak etxean lantzen eta ontzen nituan gero. Lantze ta ontze kontu ori ez det beingoan bukatzekoa izan. Askotan azertu ditut, askotan desegin, askotan berriztatu.

—Zergatik ori?

—Nere iritziekin sekula ez naiz lasai egon. Sarri galdetu diet lagunei berena. Bai zenbait gizon argiri ere.

—Jarri itzazu batzuk.

—Guztien izenak aipatzea luze nuke bear bada. Ona emen batzuek: Aita Karmelo Iturria, Aita Kandi-do Zubizarreta, Aita Omaetxebarria... Baiña, batez ere, onako bi auek: Don Manuel Lekuona eta Aita Astigarraga. Aueri agertu nai nieke nire esker ona gaur.

—Zure ELORRI-rekin jarraituz. Liburu onetan nortzuk izan dituzu laguntzaille aundienak, laguntzaille-rik izan baduzu beñepein?

—Lenen Jose Azurmendi anai ta adiskide ona jarri nai nuke. Olerkiak nereak dirala, ari zar diot liburu onetan duten ordena ain ederra. Baita ELORRI ori noizbait argitara emateko bultzatu nindutenak ere Gure Pralle-probintzi-ko nagugusi dan Aita Mendia agurgarriak

eta argitaratzeko lan eta arazo-pi-lla guztiak eraman dituan Aita Goi-tiak. Ez diot zorrik gutxien gazte-leraz jarri zidan Aita Pedro Anasa-gasti poeta eta idazlari argiari. Ari ere eman nion buru austerik asko.

Etan ezin aipatu gabe utzi ain irudi ederrez liburua apaindu zi-dan Aita Iriondo, eta batez ere, Aita Villasante. Nire iritziz, iñori bada, oni zor diogu Arantzazu-k daukan euskera-malla. Itzaurrea arena du ELORRI-k Erdi gogoz kontra eto-rrri nintzan liburu ori itzaurrez orni-tzera, bafña etzait izan mesede gu-txiko itzaurre ori.

Beraz, len aditzera eman dizu-danez, ekipoa egindako lan bat da. Eta, benetan esaten dizut: Emengo giro au ta emengo laguntasuna izan ez banitu, ez nuan sekula izango olakorik.

—Zer pentsatzen duzu zure la-nari buruz.

—Nire ustez, euskal-poesiari libu-ru bat eman diot, nik al izan detan ongien egiña.

—Euskal-poesiaren gaifean: zer-nolakoa iruditzen zaizu gure poe-sia?

—Euskeraz poesi on asko idatzi dira. Lizardi, Lauaxeta eta Orixe eta zaarragetatik asko eta berrie-tatik ere bai, ifiungo edonoren au-rren lotsakizunik gabe azaltzekoak ditugu.

—Atzerriko poetaen artean, nor-tzuk irakurri dituzu?

—Irakurri erderatik ikaste ga-raian eta gero ere esku-arteon era-billi ditudan Horazio, San Juan de la Cruz, Fr. Luis de León, A. Ma-chado ta Juan Ramón Jiménez batez ere.

—Ta euskaldunetatik?

—Euskaldunetatik berriz, gure artean ezagunenak diranak.

—Eskerrik asko Aita Gandiaga, eman dizkidazun erantzunengatik. Segi aurrera zure poeta bidean. Eta ia beste liburu bat, oraingo au be-zelako ederra, ematen diguzun. Agur.

# GRAHAM GREENE

## eta apaiz baten fedea

Olaberria'tar Ildefontxo

Esan bear al dut nor dan Graham Greene? Gaurko nobela ezagun duenak, ba-daki nor dan. Ta ez badaki, ez du ezagutzen gaurko nobela ere. Bernanos aundia izan zan. Hemingway ere bai. Mauriac aundia da. Ba, oen pareko duzu Graham. Ta ifioiz Nobel saria emango baliote, ez nintzake batere arrituko.

Ez dut orain bere bizitza aztertu nai. Ezta ere bere lana; beintzat, borobillean artuta. Ez. Bakar-bakarrrik esango dut inglesa dala. 1927'ñ katoliku egin zan, ogeita iru urte zituala.

"The potting shed" —euskeraz "Lore-ontzien etxola"— ez da nobela, teatro-lana baiño. Izan ere, Graham Greene nobelari aparta dala esatean, nai nuen esan "batez ere" nobelari dala, orrek eman diola izena ta ospea. Baiña, teatroak ere xaxatu zuan eta, Jainkoari eskerrak, Graham tentazioan erori. Ta "The

living room" —"Egon-gela"— eman. Itzbide franko ere bai. Ez da sifiale txarra. Ona, oso ona.

"Lore-ontzien etxola", berriz, 1957'an estriñiatu zioten New York'— en. Onek ere amaika kritika jaso zituen. Geientsuenak txaloka. Ona Londres'ko errebigta batek —eta ez nolanaikoa— ziona: "G. Greene jaunak ez du sekula obra onen parekorik sortu. Itz bakoitza ondo pentsatuta dago ta ezin diteke bakarrrik ere baztertu. Lan au gutxienez iru bider irakurri bear da".

Ez dakit. Ez dut uste ainbestekoa danik. Kostako zaio G. Greene'ri bere "Indarra ta aintza" (The power and glory) auste. Au nobela da. Ta kritikoa. G. Greene'ren teatro-lanari buruz ari bazan, seguru asko arrazoi izango du.

"Lan au gutxienez iru bider irakurri bear da". Alaxe da. Nik neronek ere bein da berriz irakurri

bear izan dut. Ez baita TBO bat. Sakona da oso Graham. Zail xamarr. Izan ere astintzen dituan gaiak ere alakoxeak dira: zaillak. Joskera, kontakera errexa du, paregabea. Ontan gutxik eramango diote. Zailtasun ori, ematen dituen soluzioetan dago. Maite du Graham'ek misterio-giroa, batez ere Jainkoa gizon errukarriari urbiltzen zaionean. Ta misterio-giro ori, "zera" ori tormentu ta laifio biurtzen zaizkitzu askotan. Bear bada, itzak, bai, konprenitzen dituzu, baiña... an gertatu dana? Nola diteke? Bidezko alzan soluzio ura? Ta olako zalantzak datozkizu burura. Alare, zu seguru zaude Graham'ek garbi jokatuta duala. Ziur. Baiña, alare, an gertatu dana ezin duzu konprenitu. Ta nik orain esana ere ezin baduzu konprenitu, belaxe konturatuko zera ontaz. Esango dizut noiz.

Ta orain lotu natzaion estuago lanari. "Lore-ontzien etxola"-ren zati bat ikusi bear dugu: William Callifer apaizaren jokaera. Auxe da, gaifera, obra oni arki dezaiokegun zailtasunik gogorrena. Teolojiaren aldetik, jakiña. Eztago esan bearrrik, esanda dago-ta, teatro-lan borobilla dala.

\* \* \*

Komeni dala uste dut Callifer apaizaren jokaera ori obeto konprenitzeko, ixtoria osoa, naiz laburlabur, kontatzea.

Ta auxe da:

Henry Callifer —apaizaren anaia —azkenetan dago.

Henry autore ospetsu bat izan da. Arrazoimenkeri materialistaren teori-sortzaille famatua. "Betiko bizitzarik ezta. Bai, ordea, betiko eriotza". Baiña, Henry'k arrazoimeanean eta materialian zuen segurantziaz golpe latza artu zuen dirala 30 urte. Arrezkero ez du itz bat ere idatzi. Dana kolokan. "Zerbait" gertatu zan dirala 30 urte. Ta familiarrak "zerbait" ori aaztuarazi nai izan diote, "ura" gogora lezaiozenik ondoratzen ez utziaz.

Ta Henry ia itzali da. Bere seme James'i ez diote otsegin. Ba-dira 30 urte familiatik urruti daukatela, "zerbait" egin edo gertatu zitzaiolako. Arrezkero James'ek ez daki pakea zer dan. Ezin ifiun pausatu. Pentsatia da. Ezin du ifior maite. Sikiatrak, herriz, ezin du sendatu. 14 urte zituanean "zerbait" gertatu zan. Ez daki zer. Baiña an dago bere bizimodu madarikatu onen sustraia ta iturri beltza.

William Callifer'i ere ez diote delitu, naiz Henry bere anal izan. William apaiz da. Apaiz trixte bat. Erabat eroria. Zurrut egiten du. Apaiz berri zala oso ona zan, baiña... dirala 30 urte "zerbait" gertatu zan eta arrezkero apaiz trixte bat da. Moskortu egiten da.

"Zerbait" ori da, ba, obra onen ardatza. Bein onera iritxi geranez, naiago dut obra beraren zati bat emen euskeratuta eman. Bertan jakingo dugu William'en egoera ta...

"zerbait" ori ea zer dan. Sokamutur oni eldu ondoren, errex askatuko dugu korapilloa.

James'ek jakin du bere osaba William'ek ba-dakiala "zerbait" ori. Ta beregana jotzen du. (Obrak iru ekitaldi ditu. Bigarren ekitaldiaren bigarren kuadroan gaude). William neskame batekin bizi da. James'ek itzegin du neskamearekin eta onek belaxe aterako dala esan dio. Neskameak Konnolly du izena.

\* \* \*

Kon.—Belaxe etorriko dala esan du.

Wil.—Baiña, nor da?

Kon.—Ez dit esan. Dana dala, ori ez da piura gizonarena iñor etxean artzeko. Oooo... obixpo jaunari ixkribatzen utzi izan banić... Baiña, ezetz, itxoegiteko esan nien. Zugatik eta nigatik.

Wil.—Zugatik?

Kon.—Bai, nigatik; nigatik. Apaiz askoren aingeru izana nauzu ta ez dut sekula eskandalo txiki bat ere jaso. Baiña emendik aurrera likore-botilla bat eskuetan ez duzula artuko agintzen ez badidazu, obispo jaunari ixkribatzeko esango diet.

Wil.—Ba! Ixkribatzea daukate...

Kon.—Baiña ez al zera konturatzen ori zure azkena litzakeala, azken itsusi bat? Ez al duzu konprenitzen ia ez zindute-

keala iñungo parrokian artuko?

Wil.—Ta neri zer? Preso bati etzaio bildurra sartzen kateak kendo duko dizkiotela esanaz.

Kon.—Bai. Jaun ori belaxe emen da. Kanpotarrak, beintzat, ez ditezela konturatu...

Wil.—Zertaz? Egunero ematen dut meza zazpiretan. Nere karguko lanak betetzen ditut. Zer nai dute geiago nigan dik?

Kon.—Baiña zuk ez duzu erreztatzen duzun itz bakarrik ere sinisten.

Wil.—Nundik dakizu ori?

Kon.—Ni ez naiz tuntuna. Konturatzen naiz, bai. Aita Murphy'ri entzun bear zenion zuk kulpitotik itzegiten zuenean.

Wil.—Nik ere karidadea predikatzen dut.

Kon.—Ze apaiz kasta zera zu?

Wil.—Bere eginbearrak betetzen, meza ematen eta aitortzak entzuten dituan apaiz bat. Ze? Ez al naiz gaberdian, iñor agonian badago, jeikitzen? Iñoiz, abixatu, ta joan gabe gelditu al naiz?

Kon.—Parroki ontako kristauak apaiz fededun bat eukitzeko deretxoan daude.

Wil.—Fededun... Bai. Zer nai dute? Komeriante bat? Betiko gauzak esateari darion aburrimentua uxatuko lukean abots bat? Ori nai dute.

Kon.—**Etzazu olakorik esan, Aita.**

Wil.—Aita! Ona nik gorrotatzen dutan itz bat. Ba-nuen anai bat ezer sinisten etzuana. Ta 30 urte dira nik ere ezer sinisten ez dutala. Len erreza-tzen nuen, Jainkoa bazala sinisten nuen. Gero, nere begiak utsa, ezereza ikusi zuten. Aita bat bere semeei zor zaie, baiña ok azi diran arte. Baiña "Aita" deitzen digun jende au ez da sekula azitzen, aur iltzen da, aur-rak utzi ondoren. Aita izatera kondenatua nago, bizitza guztirako aita.

Kon.—**Ori esan ere! Apaiz baten aoran ez dut sekula olakorik entzun.**

(Atea irikitzen da ta James sartzen).

\* \* \*

(.....)

Wil.—Ez duk erreza zorioneko izaten sinisten ez dan fede bat predikatu ta bizi bear danean. Gabez ere, bakarrik gelditzen naizenean, otoitz egiten diat alabearrez, nik nai gabe. Nik erakutsi nian iri Orrengan (Gurutzea sifiatuaz) sinisten. Baiña ire aitak etzian nai. Oso azkarra uan.

Jam.—**Azkarra?**

Wil.—Bai. Ni baiño askozago. Nik iri gauza bat erakutsi ta arek

parre. Nik sinisten erakutsi banian, arek sikolojikeri batzuekin dana garbitu zian.

Jam.—**Orregatik nai izan nuen nere burua il?**

Wil.—A! Akordatzen aiz? Ikaragarria izan uan! (ixil-une) Bete basoa; gutxi falta duk eta amabietarako botilla ustubear diagu.

Jam.—**Zergatik amabietarako?**

Wil.—Biar meza eman bearra zeukat. Legea errespetatzen diat. Besterik ez bada, ori, beintzat.

Jam.—**Baiña, lege ori errespetatzean, nor errespetatzen duzu?**

Wil.—Neroni (irripar trixte bat arpegiratzen zaio). Ze uste uan? Erori egingo nintzala? Ez, ez. Lojika pittin bat ikasian nik ere.

Jam.—**Ezin dut konprenitu. Gertatu zana gertatuta, posible al da zuk federik ez izatea?**

Wil.—Gertatu zana... Ez nauk aaztu. Baiña ez diat gogoratu nai. Ura eguna! Ni ere aitaren kontra amorrazita, tratatzen induan bezela tratatzen ikusita. Bear bada arrazoiz izango zian, baiña ume bat bere burua urkatzeraino bultzatzeak ez dik izenik.

Jam.—**Zer gertatu zan arkitu ninduzinean? Ez negon ilda, ezta?**

Wil.—Ez, ez. Potter'(1)ek ala uste izan bazuen ere. Nik ere bai. Jarri genian ostu bat ez-paiñetan. Geldi, ez uan mugitzen. Baiña ez uan eriotza. Uuan..., ba... Medizinan izen bat ba-dik, "koma" edo... Ala esan zian sendagilleak.

Jam.—**Ta zuk zer egin zendun?**

Wil.—Otoitz. Orduan, bai, fedea ba-nian (Ixil-une). Tira... dana dala, naiago nian ez baintza etorri. Etzaidak atsegin ifloren arpegia gogoratzea. Neronena ez ikustearren, xpillurik gabe kentzen diat bizarra.

Jam.—**Sendagilleak ezer egin al zidan?**

Wil.—Ez. Ura etortzerako ezagueru ba-uan.

Jam.—**Beraz, Potter'ek ziona... ez da posible. Ez da posible, ezta?**

Wil.—Ez, ez duk posible. Il eta gero bizi... au mirari bat duk. Ta mirariak esan nai dik Jainkoa ba-dala. Baiña, Jainkoa baldin baduk, ze arraio-gatik kendu neri fedea? Leial portatu nauk. Ta berdin jarraitzen diat. Santuak izan oi dizkitek beren gau illunak. Baiña gau oiek

ez dituk ain luzeak. Ta luzeak izanda ere, noizik bein eguzkiatzaz oroitzen dituk.

Jam.—**Ta zu ez?**

Wil.—Ez diat nai. Orrexegatik ez uan etorri bear.

Jam.—**Zertaz akordatzen zera? Esai-dazu...**

Wil.—(Zurrut egiñaz) Lore-ontziak neguan egon oi ziran etxola... I lurrean. Ta Potter, ekifia-lean, iri besoak altxa ta jetxi, altxa ta jetxi.

Jam.—**Ta bitartean zuk?**

Wil.—Otoitz. Santu bat nifuan orduan. Fededun, fede sakondun. Ta matte ere asko matte indudan. Nere seme bat bezela. Neri debekatua zegoen semea. Utz eidak beste tragoxka bat ematen. Ire burua nere belaunetan niala, izugarritzko min bat sentitu nian emen. Ez duk sortu ura bezelako mifirik! Sortuko ere. Uste nian neroni nintzala burua urkatu zuena. Soka nere lepo-inguruan... Ezin nian arnas artu, ezin... Ta... ixillean otoitz! Orduntxe asi intzan arnas artzen pittinka-pittinka. Ta ni il-zorian bezela. Arrezkero ementxe bizi nauk lurpean bezela.

Jam.—**Ze otoitz egin zendun?**

Wil.—Ainbeste denbora duk...

Jam.—**Ia akordatzen zeran...**

Wil.—Orain zertarako?

Jam.—**Orduan bezin etsita, desespe-**

(1) Potter baratz-zaia zan. Ta dana ikusi zun. Belaxe, au ere kanpora bota zuten, ixillik egon zedin, William'arengana jo baiño lenago James Potter'en alargunarekin egona da. Onek zenbait gauza argitu dizkio. Baiña ez danak. Ta James'ek dana jakin nai.

ratuta nago. Lengo batean berriz ere soka bat eskuetan artzeko zorian egon nintzan.

Wil.—Berriz?

Jam.—**Bai.** Eztakit zenbat erremerio probatu ditudan sendatzearren. Sikiatrak diote memori-eza sendatzen dala. Nerea ez da sendatzen. Zu baziñanik ere ez nenkin.

Wil.—Nork bialdu au, orduan, nigana?

Jam.—**Potter'en alargunak.**

Wil.—Il uan Potter? Gizajoa! Bai, bai, konprenitzen diat... Orregatik etorri aiz. (Zurrut berriz) Onek esan nai dik oraindik bateon bati lagun dezaioketela. Ikaragarria izan uan, bai, ikaragarria ilda arkitu indudanean.

Jam.—**Ilda?**

Wil.—Beno, nere eritziz... bai. Ilda. Ta, alde batetik, nere erruz. Ire aitari obeditu bear —seme intzanda— ta osabaren esanak sinistu. Osaba asko matte uan. Ni batetik, aita bestetik eta i erdian, zer egin ez enkiala. Prueba latzegia ire edareko ume batentzat. Gutxiagogatik ere galdu dituk asko.

Jam.—**Segi, segi kontatzen.**

Wil.—Momentu artan bizia ere gustora emango nian ire alde. Zer egin? Egin nuana: otoitz, otoitz... Zerbait eskeifni nai nian iregatik, balio aundiko zerbait. Egun aietan Jainkoa

gauza guztien gaiñetik matte nian. (William jekitzen da. Nerbioso dabil. Gurutzearen parean dago. James, begira-begira).

“Bizi dedilla, Jauna, bizi... Asko ta asko matte dut. Bera bizi dedin edozer emango dut. Baiña, zer eskeifni dezaiket? Gizajo bat naiz.”

Ta jarraitu nuan:

“Ken eidazu geien matte dudana. **KEN EIDAZU FEDEA. BAIÑA BERA BIZI DEDILLA!**”

(William negarrez).

Jam.—**Zer duzu, osaba?**

Wil.—Ain egiazkoa, ain gartsua izan uan nere erregua, ze... ikusten duk: Jainkoak kaso egin zidak.

Jam.—**Orduan, zuk uste duzu...**

Wil.—Begira zak inguruan, begira gela au, begira neroni. Zer nai duk oraindik? (Basoa lurrera botatzen du). Barkatu. Ezin diat. Nekatuta, lear eginda negok. 30 urte dituk ez nuala egun artan pentsatu. Orain, alako lasaitasun zabal bat sentitzen diat. Etorri nai al duk nere kuartora? (Gurutzeari begira). Uste nian betiko galdu niala. (Negar antxean). Goazen... goazen...”

\* \* \*

Gr. Greene'ren obra ez da or bukatzen. Irugarren ekitaldia falta da



oraindik. Bertan ikusten da nola William eta James ez diran lengoak. Asentatu dira. Ba-dute pakea. William'en 30 urteko gau illuna joan da ta fedearen eguzki argi ta beroa piztu zaió barruan. James'ek, berriz, orain dan-dana gogoratzen du ta konprenitzen. Normaldu da. Gaitza etzegoen gorputzean, arimean baiño. Orain ba-daki mirari baten frutua dala. Ta ala esango die etxe-koeri. Oek erotzat artzen dute. Baiña berak esango die patxaran-patxaran: "Sekulan ez naiz orain bezin sano ta ondo arkitu."

Etxekoak ezin dute eraman "mirari" ori. Naiago luteke "zerbait" esan, beste itz orren partez. Alare, alperrik da. Gauza garbi dago. Gaiñera, —nola Henry il dan— zergatik oraindik ainbeste mixterio, ukatu ezin ditekean egia ametitzeko? Esan bear da, konbertitzen ez badi-ra ere, gertu daudela azkenean. Mary'k berak —Henry'ren alarguna— auxe esango dio, azken aldean, James tratatu duan Krautzer sikiatrarri: "Ez naiz oraindik konbertittu; baiña ez nabil urruti."

\* \* \*

Greene'k oso polliki askatu du koparilloa. Teologu batek ezin arki lezaioke akatsik bere obrari, beintzat borobillean, osoan begiratuta. Baiña negu-tokian, etxolan gertatua juzgatzekoan... ez da berdin. An ger-

tatua da obraren ardatza. Ta an itz arrigarri batzuk esan ziran:

#### KEN EIDAZU FEDEA!

Fedea, txanpon bat balitz, eman al diteke? Jainkoa eman al diteke illoba baten biziaren truke? Teorian esango dugu ezetz. William'ek pekatu mortal bat egin du, izugarria. Teorian. Ta eskeintza orri segitzen diona okerragoa da: Jainkoak miraria egiten du. Jaso egin du William'ek bota dion "ordagoa". Beraz, onek esan nai du Jainkoak onartzen duala William'en pekatua ta saritu egiten duala. Berriz diot, teorian eta itzez itz arturik, alaxe da.

Baiña lan bat, eta lan orren egiñlea, era ontan juzgatzea bai litza-keala pekatu mortala. G. Greene ez da ifluxentea ta jakin, ba-daki nundik nora dabillen. Asmo garbiko gizona da ta burua ere alaxe du.

"Ken eidazu fedea!" garraxi onek nai ta naiez fedea baztertu nai duala adierazten al du? Umearen bizia naiago duala fedea baiño? John J. McLanghlin EEUU'en, A. Martindale ta D'Arcy Inlaterra'n, ezezkoan daude. Lagun urkoaganako biotzkada itxu bat dala. Ni ere ortan nago. Zenbat aldiz ez dugu gerok, estu-aldietan, olako zerbait esaten? Momentu oietan teolojia egiteko ez da astirik izaten. Ta William'en larri-aldia alakoxea izan zan...

Orain arte ez dago, ba, akatsik. Dana salba diteke.

#### BAINA BERA BIZI DEDILLA!

Auxe da garraxiaren bigarren partea. Jainkoak entzun egin zuan. Ta James piztu. Esan dugu mirari bat pekatu baten frutu bezela azalzea ikaragarri litzakeala. Batzuk esango dute: G. Green'ek emen egin duenak ez du izenik. Fedea galtzearen ordaiña mirari bat...' Guk, ordea, esan dezaiekegu: Ondoren miraria badator, ez al du orrek esan nai William'en lenengo itzek zerbait on, santu ta zail daramatela barruan, naiz kanpoz birao bat izan? Gañera, argi al dago William'ek fedea galdu duala?

Egia da. Mirari ori gertatu ta William beeraka asiko da. Len apaiz bero ta santu bat zanak zurutari emango dio barruko penak akatzeko. Ta olaxe 30 urte luzeetan. Berak dionez, "fedea-izpirik gabe". Baiña fedea ezin diteke galdu fede orren kontrako pekatu gabe. Etxolan gertatua ez da aski fede orren kontra joan zala probatzeke. Esan dut zergatik. Orduan, William'ek etzuan federik galdu.

30 urte trixte oiek esplika ditezke federik-ezara jo gabe. Gau illun bat lirake, gau luze bat. Naiz William'ek berak ez ala uste. Green'ek berak ere au adierazi nai duela dirudi.

William ez da "défroqué", apostata

ta oietako bat. Bere parrokian dago. Eginbearrak txintxo betetzen ditu, naiz maitasunik gabe. Ta onela 30 urte luzeak zear. Au bai ezin ditekeala esplikatuta fedea-izpirik gabe. Ori bai, bere bizimodua beltza da, ez dago argirik, ez maitasunik, ez ezer. Ez da arritzekoa, ba, berak fedea ere galdu duala uste badu. Eguzkia an dago, baiña lañoak estaltzen. James etorriko danean ta mirari ura gogoratuko duanean, negarrari ematen dio ta berriz ere 30 urte gaztetu dala iruditzen zaio. Laiñoa jun da. Ta Kristo gurutatuari begira, negarrez, esango dio James'i: "uste nian betiko galdu niala"...

Beste galderatxo bat:

Zergatik William'en gau illun au?

McLaughlin'ek dio: Jainkoak bere fedea artu bazion, ontarakoxe artuko zion: **garbiagotzeko**. Fedea ikusten ez dana sinistea da. Ta Callifer apaiz gazteak, aurreneko be-roaldi aietan esan diteke ikusi egiten zuala Jainkoa, ikuttu. Ta ori ez da komeni. Fedearen gozokeria da ori ta askotan Jainkoa ez baiña norbere atsegifia billatu oi da. Orregatik, Jainkoak proba jarri dio William gazteari. Izugarria izan da.

Beste zenbait esplikazio ere eman ditezke. Dana dala, G. Greene'ek misterio-giroan bildu gaitu. Ta al-

perrik da ekuazio bat bezela konprentitu nai izatea.

Uste dut G. Greene'k obra ontan esan nai diguna auxe dala:

John.—(James'en anaia) Zergatik egin bear zian igatik mirari bat Jainkoak?

Jam.—(G. Greene'k) **Jakingo banu, ez nitek Beragan sinistuko. Konpreni ditekean Jainko batengan ez diat sekula sinistuko**".

Oarrak:

1. Lan au burutzeko RAZON y FE, dic. 1959, n° 743 erabili dut batez ere. Jorge Blajot'en "La renuncia de la fe de Father William Callifer" (p. 441-449).
2. Euskeratu José Luis Alonso'ren "El león dormido"-tik egin dut. Ez da itzulpen leiala be rea. **KEN EIDAZU GEIEN MAITE DUDANA!** jartzen du. FEDEA ixilduaz. "Scandalum pussilorum" esaten zaio oni.

# Gizonari dagokion edukazioa

Alejandro Zuanetakoa.

Jacques Maritain filosofu fama-tuaren liburutxo bat erori da nire eskuetan. "La Educación en este momento crucial". Ta emendik ideia eder eta sakon batzuek ateratzen, saiatu naiz nire lantxo onetan beste filosofu berriekin borobiltzen dudalarik.

Gizonaren edukazioaz ekiten dudala, giza-mota aski etorriko dira, bearbada, gure buruetara: Ozidenteko gizona, Industri aroko gizona, gizon kriminala, gizon burgesa edo gizon proletariua. Baiño mota bateko edo bestekoa izan, edo euskaldun edo errusitar izan, nai ta ez denak lehen lehenik gizaseme gera.

Pindaro-k eta gero Nietzsche-k gure eginbearrik nagusia: "lehenik gerana izatera irixtea" dela baieztatu zutenean egi zorrotz eta borobilla esan zuten; alare, ez dago gizon izatera allegatzea baiño eginkizun neketsuagorik.

Gizona, denok dakigunez, ez da izadiko edozein abere bezela, zaldi edo txakurraren antzekoa. Kulturazko aberea ere bada, eta abere mota au ezin bizi diteke zibiliza-

zioaren eta gizartearen zabalkunde-  
dean ezik; kondairazko abere bat da: izan ere, ortik ainbeste kultura klase gure gizadian bereizten direnak.

Gizonaren aurrerakizuna mugagabea delarik, gizaldiz-gizaldi eta kondaira zear eratu zaizkigun esperientzia ta tradizioa baztertu ezin-koak dira. Norbere askatasuna irixteko, gizonak bere gain dauzkan disziplina ta tradizioaren bearra dauka, gotortu ere egiten dute gizona beraien kontra burrukatzeko gauza egifiaz —orrela aberastuko da, izan ere, tradizio ura— eta tradizio aberastu onek ditezkean burruka berriak eratuko ditu, eta olaxe bata besteakin etenik gabe.

## Edukazioaren kontrako erejiak edo okerrak

Maritain jaunak zazpi erejia edo okerrak arakutzen ditu. Eta ni ere lendabiziko okerretik asiko naiz, au da, Edukazioaren elburua ahaztetik. Izan ere, maiz ez da jakiten ainbeste istudioen aizkeneko arrazioa. Bi-

deak eta metoduak gizonaren eta bere ikastaldien elburuak obetogo azaldu ta argitu bearrean, eurak jartzen dira elburu ta areagorik ezpailitzan. Ain zuzen ere, erreprotxe auxe bizkartu genezaioke "gaurreguneko edukazioari". Bere bi-deak ez dira okerrak; aitzitik, geient-suenetan antziñako pedagogikoak baiño obekiagoak dira. Zoritxarrez, onegiak izan edo... beintzat, egiazko elburua galduerazten digute sarritan bistatik. Pedagojiako bide ta metodu berri auek onak dira, progresu ziburra; baiño metodu auen inportantzia zenbat eta aundiagoa izan orduan eta bear aundiagoa dago jakintza praktikua ta elburuengana jo-mugak bat-batean desarrollatu al izateko.

Beste okerra, elburuak okerbide-tzea litzake. Pertsona bat edukatzerakoan elburu ziur eta garbiak eduki bear dira. Edukazio lana zenbaitek uste duten baiño lan aundiagoa, misterioitsuagoa ta, erabe-rean, apalagoa ere bada. Edukazioa umea edo gizona bere perfeziora laguntzea ta gidatzea besterik ez ba-da, edukazioak edo pedagojiak ezin dezake gizonaren filosofiari ezin teolojiari erabat baztertu. Filosofiaren galdekizuna: Zer da gizona?, lehen unetik erantzun bear luke edukatzaileak. Ideia garbiak iritxi bear dira gizonagaz, ideia kristauak. Eguneko zibilizazioan gizatasun ideiak, dudarik gabe, Kristianismutik datoz beren izaera edo sakonean. Ozidenteko gizata-

sunaz ari naiz. Ba-dira, alere, giza-tasun edo umanismo onen kontra-rioak: positibismua, t. a., zibilizazioaren arerio diren faszismu ta arrazazalekeriak aitatzera ere jarri gabe.

Pertsona bat betiere zera misterioitsu bat da, eta zera izkutu ori ezin dezakete konprenitu ta arakatu teknika berriak. Edukazio landan dagoen eginkizunik aundiena umea, gaztea, edo gizona eten-gabe arrazoimendura eta borondate libreria otsegitea ta deitzea da.

Beraz, edukazioaren betebearra, giza pertsonaren desarrolla da —ezaugera ta arrazoimendurako bidea, irizpidearen eta zillegi birtuteen gotortasuna—, gaiñera, nazioaren eta zibilizazioaren ofordean aberasturik, tradizio jator ori gizaldiz-gizaldi aseguratzen dela.

Gero espezializazioak artzerako edo espezializaio oriek obetogo betetzeko edo bere lekuan moldatze-ko biderik egokiena giza-posibilidadeak al den guztia desarrollatzea da. Espezializazioak ez dute sekula ere edukazioaren jo-muga printzipalena arriskuan jarri bear. Edukazioaren betebearrak sakonago ezagutzeko giza pertsona ta bere posibilidadeak eta bere aspirazioak azterkatzea da obekiena.

Giza pertsonaren joerarik nabarmentetokoa askatasunerako tirria da. Ez askezalekeri leloa, baizik naturaltasuna, autonomia ta zabal-kundea darion askatasuna, alegin guztiekin eta deskantsu gabe bu-

rrukan irixten den askatasuna. Barrutiko ta izpirituko askatasuna.

Grekatarren filosofiak, Aristoteles-ek bereziki, gizonak adimendua ta jakituria bidez irixten duen autonomian ikusten zuen gizakiaren perfezioa. Kristianismua etorriko zan gero giza-perfezio ori grazi-maillara jasotzera; Maitasunean datzan askatasuna. Jainko semeen Askatasuna.

Edukazioaren betebear nagusia, bada, individuoaren askatasunean datza, ezagutza ta jakituria, borondate ona ta maitasuna bide.

### **Pargmatismuak galdu bear al gaitu?**

Au da Maritain jaunak izendatzen duen beste okerbidea... Gaurreguneko mundua ekintzak, azioak ta praxisak bereizten du. Ez legoke gaizki neurritz zuzenbidetu ezker. Gauza guztiek daukate beren jatorrizko ordena ta elburuak. Pragmatismu irakite onek, ordea, alde batera baztertu ditu giza-pertsonaren betebearrak eta gizatasunaren ordenamenduak. Patu txarrez teknologia onek ondore gaiztoak dakarcki. Indarrezko artu-emanak sortu ditu soilki gizartean, atsegifitza koak geienik ere. Eta teknolojizko gizartea totalitarismua da, berez. Alere, teknolojiak ez du derrigorrez demokraziarik ukatzen teknologia orreri teknologia-gaiñeko izpiritu batek sostengua ta bizia ematen ba-dio. Gaurko munduan ifioiz

baifio geiago, "mekanikak mistikara" egiten du dei Bergson-en arauz.

Berriro arrazoimenaren jatorrizko fedea egian jarri bearrean gera. Zenbait filosofia berriek, ordea, likistu egin digute EGIA, ideia zahar bat dela-ta Kant-en apriorismuakin edo antzeko pentsementuekin trukatzuz. Ekintza biurtzen ez den pentsementu oro ukatzeakin, ustekabe, urruti joan gindezke eta joan da gure soziedadea.

Au da gaurko zenbait demokrazien auleria sortzen duen barrutiko pipizomorroa. Demokraziaren indar eragillea izpirituzkoa izanik —zuzenbidearen naia ta anaiarteko maitasunaren itxaropena—, bere filosofia luzaroan pragmatismua izan da; demokraziaren fede egikorra, ordea, ezin izan pragmatismuaren ispirazioan justifikatzeko gauza, ezkondu eziñak direnez. Jakifitekoa da auetako demokraziek ezer gutxi egin dezaketela totalitarismuen kontra. Totalitarismua, nazismua edo faszismuaren arrastoak nunai erroturik daude oraindik gure nazioetan. Eta edukazio ekitaldi bizikiak bear dira, totalismuaren kontra pertsonalismua, askatasuna ta kristau gizatasuna ipifirik. Okerrena, edukazioa bera ere totalitarismuak monopolizatua edukitzea litzake; berari dagokion giza-tipoa moldatze-ko... Edukazio modu oneri demaio Maritain jaunak Soziolojismua izena, edukazioaren kontrako beste okerbidea. Aipaturiko demokrazia oriek zahartu ere egin dira orain

naï dugun demokrazia osatua erakitzeko.

Emen okerreña dena da pragmatismua ez dela beste prolema zabalago baten kasu berezia baizik. Ain zuzen ere, filosofia desafiatzera agertu zaizkigu positibista zenbait, ez ordea, zientzia beraren izenean, bere buruaren berri ez dakian zientziako metafisikaren izenean baiño. Alperrikako baldinkizuntzat jotzen dute auek bai filosofia ta bai erlijioa. Filosofiak eta filosofuek konprenitu dezakete biolojiaren egia, esate baterako, filosofia berarenaren antzo. Baiño positibista oriek ez dute filosofiaren laguntzarik konprenitzen, orregatik sarrera oro debekataen diote filosofiari jakintza soroan. Baiño Filosofiak bueltatu dezake desafiaoa. Zeren zientziaren izenean sartzen dira filosofia ta erlijioa kritikatzera, bestalde, berauek bai dira esan dutenak zientziak gai orietaz ez daukatela ez ezaugerarik ez irizpiderik, lehenik filosofiari ez egitekotan.

Zientzia sailleko zenbait txapeldunek egiten dute automobilista batek egaontziak ez dutela deus ere baliorik eta ekingo ba-lu bezela, zeren berauek ba-dakite txofertza bai, baiño egaka ori ifundik ere ez izan txofertza.

Pena da Ozidenteko zibilizazioaren barrutiko erdibitze au, alde batek errealdade jatorra bizi nairik, eta bestalde, errealdade bizi ori justifikatu bear luken Ideala eta izpiritu-motorra ukaturik. Demokrazia

geienak sufritu izan dute barru-ebaki penagarri auxe.

Idazle batek "lau kultuak" izendatzen zituen—eszeptizismua, presentismua, zientismua, antiintelektualismua—ez dira gaurko edukazioaren gain zabaldu den pragmatismuaren ondorio ta agerkai batzuek baizik.

Gazteen eginkizuna dugu, ezparririk gabe, prolema gorri au gerez erabakitzea, errealdadea ta Ideala alkaturik mugimentu bakar batean osatzea...

### Giza-almenen batasuna

Maritain jaunak, gañera, edukazioaren kontrako bi erejiak airtzen ditu bata bestea ukatzen dutenak. Intelektualismua ta Borondatismua. Baiño nik naiago dut beste bide batetik giza-almen bete-bearrak adierazi eta berauen bitartez gizonaren jokabide osoroa explikatuz.

Gizona ez da soillik adimena, edo borondatea edo biotza. Gizonak iru almenen bearra dauka gizon osoroa ta perfettoa gerta dedin. Almen auek, ordea, neurritz eta bakoiltzari dagokion eran jokatu dezaten edukatu egin bear dira.

Ezagutza nozio utseko tipoa bada, sujetua gauza konkretuetatik aparte gelditzen da, bizitasuna ta eragifia galdurik borondaterik ere gabe.

Ezagupena da gauzak (ez nozio-

ak) nigan mamitzeko kapazidadea edo ahaltasuna; gauzak fisikoki eza- gutzea eta gaiñera, an errealizatu den ideia ikusi, eta bertan dagoen eran ikusi ere.

Borondatezalekeria litzake, ordea, giza-almenik beldurgarriena. Boron- datea soilla duenak ezagutu edo ja- kin gabe jokatu nai du. Auek edo- zein gauza eta nolana egingo di- zute nai dutena. Tipo auek geldi- tuazi edo lotu bearra dago, eta bear- bada indarrez, gaiñera; gizartean beti egongo dira auetako gizonak eta ez dira faltako ere.

Diktaturari ere orrelako zerbait gertatzen zaio, gauza guztien gai- fietik bereakin geldituko da eta no- lanai burutuko du gaiñera, or bio- tzaren utsunea nabari da.

Biotza falta zaigu gizonaren jo- kabidea batu eta osatzeko. Gau- zak azkeneraño eramateko barre- neko bultzadaren kontra, itxaroten jakin bear da. Biotzetik dator gau- zak biziki erakartzeko ahaltasuna. Baiño adimena alde batera kokatzen dutenak, biotzaren eraginpean, be- reala gauza baloreen jerarkia gal- tzen dute. Auxe gertatzen zaio jen- detalde edo erri "masa-ri". Tipo auetako jendeetan adimena faltak dakarki borondatearen utsunea, gauzaen dirdira falta delarik, ez da- go berarekin artu-emanik eta bo- rondatearen erroak ez daukate fun- tzionamendurik.

Gizonaren iru alde edo almen auek banaturik beldurgarriak dira,

baiño orrelakoa erdi-gizona da, ez du bere gizatasunaren menderik eta are gutxiago gizonari dagokion edu- kaziorik. Erabat banaturik ez ba- da ere, gizon geientsuenak ez dugu jakiten adimena ta borondatea bata besteakin lotu eta osatzen. Beraz, gure betebearrik nagusienetakoa da iru indar auek alkarrekin ongi jo- katzera ipintzea.

Fenomenu auek Eleizako guraso S. Agustin aundian agiri dira gar- biro. Gazte zelarik bere ideiak ez zituen ain argiak, eta biotzak ze- rabilkion arutz eta onutz, ase ezi- ñik, inportantzi gabeko gauzaetara tiraka. Eta orretan borondateak ere aul izan bear derrigor. Adimena, ordea, argi ta garbi finkatu zuene- tik Santu onen borondateak seku- lako indarra artzen du. Eta orra, indarrak osatzen jakin zuelako, Eleizak izandu duen gizonik aun- dienetakoa Hipona-ko Gotzaia...

### **Izpiritua kulturaren ardatz**

Ozidentea ta gaurko mundua be- rebiziko estuasunean arkitzen da. Nazio-arteko ekonomien alkar-lotu- rak, kapitalismu berriak (erri erdi- aziekin bereiziki), teknikolojia, egi- azko askatasunik eza, t. a... Beraz, Europa, gizadi osoa larri billatzen da, krisi larrian.

Politika, askatasuna ta abarren aldetiko krisia besterik ez balitz, baiño, beste zerbait sakonagoa da- tza emen krisi larrian. Laterria, teknika; jakintza ta libertatea ez



dira soifneko edo ondo baten ager-  
kai batzuek besterik. Eta agerkai  
edo ondorio auek krisi bizian ba-  
daude, Izpiritua krisisean dagon sei-  
fiale dira. Orregatik Ozidentearen  
krisisarik barrutikoena ta printza-  
palena kulturazkoa ta izpirituzkoa  
da, Christopher Dawson-ek dionez.

Europako kulturaren batasuna  
autsi da. Kulturazko osotasuna  
(kondaira, ertia, erlijioa, politika,  
zientzia, t. a.) partiturik dago eta  
norbere bidetik dijoaz. Eta Kultu-  
ra osatuak, berriz, derrigorrez bear  
du goi-aburu batzaille bat, izpiritua,  
eta ortik krisiak bere oifarrrian iz-  
pirituari ukitu izatea. Au da, duda-  
rik gabe, okerrera, guk azaleko  
ausketa soillik dastatzean onen itur-  
buru den izpiritua usteltzen uzten  
dugu alde batera. Izan ere, izpi-  
rituaren gaxotasunak dakar Oziden-  
tearen krisia ta gainberatzea. Eta  
izpirituren gaxotasunak dakar Ozi-  
dentearen krisia ta gainberatzea.  
Eta izpirituaren krisi onek, Dawson-  
en arauz, Europa beraren izaera  
arriskuan jartzen du, berriro lehe-  
niko kristau zuzarretan finkatzen  
ez den bitartean.

Kultura oroek errealidade naha-  
sia azaltzen digute. Geografiatik  
asi ta ekonomiaraiño... arraza, gu-  
da, askatasuna, t. a... bide, den guz-  
tiak kulturaren erakundera eragi-  
ten du. Elementu auek, guztiz des-  
berdiñak iruditu arren, kultura par-  
te artzera sartzen dira errazoimena-  
ren gidaripean, gizonaren almen

kreatzaille ta organizatzaille onek  
batasuna ta bizia demaienean.

Gezurra da, alere, errazoimen so-  
roan arrazoia sillik dagoela baieza-  
tea. Auxe litzake, ain zuzen, raziona-  
lismuaren okerrik nagusiena. Arra-  
zoia edo gogamena gizonaren zer-  
bait ba-da, gizona arrazoi baiño  
geiago da. Gizona lehen lehenik iz-  
piritu da; gizona gauza guztien gai-  
ñetik erlijiosoa da. Ortik, Dawson-  
en ondorio garrantzitsua: "Erlijioa  
da kultura oroen elementu errotiko  
ta eragikorra".

Emen ez naiz asiko erlijioaren  
zergaitia, sentidu bortitza ta bizita-  
suna arakatzen. Kondaira osoak  
sobera fragatu du erlijioa dela kon-  
dairaren sustrai eta ardatz. Daw-  
son-ek aitatzten du Lord Acton-en:  
"Erlijioa da kondairaren ardatza".

Beraz, Ozidentearen sustrai ta  
izaera Kristianismua izanik, zer ari  
gera gere buruari ostikoka? edo  
sustrai indarrak deserrotu nairik?

Ta zer egin genezake ori guztia  
zuzenbidetzeko borondate oneko gi-  
zonok? Erdi-arora bueltatu? Ber-  
diaeff jaunak esango luken "Euro-  
pako gauza santuetara itzuli"? Ma-  
ritain-ek atzerako itzulpen ori Pro-  
bidentzia aurrerazalearen kontrako  
blasfemia dela baieztu du. Eta arau  
bezela "Kristaudi berria" edo "Aro  
berria" jarriko digu. Erdi-aroko teo-  
zentrismua ta aro berriko umanis-  
mu soilla ezkondu ta osatu dire-  
nekoa.

Kristau pentsalari geienak baikor eta optimista azaltzen zaizkigu gizadiaren etorkizunari buruz. Toymbe bat gurekin bat ez ba-dator ere, bai Maritain, Dawson, Desqueyrat, t. a. "Ez gaude ez amaiaren asieran, gizadiko kondairaren biurgune aundi baten aitzinean baizik", dio Konik jaunak.

Izpiritua jarri bear, bada, berriro kulturaren eta gizadiaren ardatz bezela. Personalismua, gizartetasuna, gizatasuna... Morala, filosofia ta teolojia... Batasuna ezberdintasun gain. Izpiritua kulturaren ardatz Onatx, gizonari dagokion edukazioa.

Asiera-asieratik emen gatozkizue eskean: Ia, ba, gure aldizkaria zabalitzen den. Batez ere gazte jendearen artean, ixturioetan dabiltzaneren artean. Izan ere, au izango da beren asmo eta kezkek euskeraz agertzeko plaza. Kultura naia duen guztiak ezagutu bear luke bere preokupazioen emateko aukerazko JAKIN.

# EUROPA'REN BATASUNA

## 1700'ean

Zabala'tar Pello Mari.

Beti izan ditugu errealitatearen gaindi adimenaren koartoretan giltzapetuta bezela bizi izan direnak. Egunez, begien aurrean ikusten dana ere, txokoratuta eduki oi dute.

Horrelako zerbait gertatu zela dirudi 1700 aldean ere. Espaini-ko "guerra de sucesión" deritzan hortan korapillatuta zebiltzan bitartean, Colonia-n zen, Europa osoko pake edo alkartze bat nola egin zitekean, utopia ta amets utsez pentsatzen zebiltzen janaria seguru zuten batzun-batzuk.

Dijoazkigun urte hauetan jendartera ekarri diran Europa Alkartuaren ideia oinharriekin jokatzeko zebiltzen.

Baifia, praktikotasuna okerra dela gero mobitzeko zer bat ez duenean! Makifia zakartu ta kastatu egiten da janaririk botatzen etzai-onean. 1700-ean argitaratu ziran ideia utopikuak —orduan oraindik zaharrak zirenak, ta gaur xahar utsez zimurtuta egon behar lutekenak— halere preskatu ederra hartua izan behar dute Europa-ren Batasuna


nari dagokion aldetik. 250 urte txin-  
tik gabe joanak ditugu. Egia da or-  
duan ere ba-zirela Alkartasun gose-  
te batzuk; zertxobait esan nahi di-  
gute Frantzi-k ta Austria-k egifeko  
tratuak, berdin Beljikanoen ta Sui-  
zoen alkarteak, ta zeresanik ez Ale-  
mani-ko osagureak (1).

Baiña 250 urte hoietako Batasu-  
n zaleen eztulak gutxi esnatu du  
mundua. Izan ere, jarri zazu orkes-  
taren ondoan kirkerra. Hain zuzen,  
hor pasa dira Frantzi-ko errebolu-  
zioa, Napoleon —hau esnatuko zuan  
asmatiku pakedunik ezta sortu— ta  
beste hainbeste burruken ondoan  
bi mundialak. Aber!

Arestian nion, “goserik dabillen  
makifia kastatu egiten dela”. Napo-  
leon-ek, kozkortu baiño lehentxea-  
go. gerrarakoen orde zakearen al-  
deko bitamifiak hartu izan bazituan,  
gaur egun ba-liteke Europa Alkar-  
tua edo behintzat alkartzeko bidean  
izatea. Ahalduna baita jainkotxo  
hauen borondatea behin estrada ba-  
rruan sartu ezker, bestela akabo...

Bada, 1700 inguruan argitaratu  
zen liburu koxkor bat heldu zait  
eskuartera. Liburu zaharra —bes-  
te ha pare bi jarri leizke ondo adie-  
razteko—. Ertza bat xaguak proha-  
tua diote dagoaneko, lastime gogor-  
txoa izatea. Egillea, egille bezela  
behintzat ez dakar, inprimatu za-  
nekoaren izena bakarrik; titulua  
juxtu-juxtu:

(1) Osagura horrek, logura ta beste...  
gura hoiek lez izan nahi du, osatugura  
alegia.



Poliki jarria halere titulua. Baiña  
okerrena: Arkibideko horrialdeak  
ahaztuak ditu nunbait, dena iraku-  
rri behar izan dizut horregatik.  
Prantzes zaharrean idatzia, 1700-eko  
moduan noski. Halere, 450 inguru  
ditu horrialdeak. Ahaztua nizun:  
seillu pare bat ere bai nungo libu-  
rutegikoa den ohartu zaitezen, des-  
kuidon inoiz irakurri nahi bazen-  
du.

Hau dezu hain zuzen, hor aurrean  
aitatu dizkitzudan pentsamendu uto-  
piku ta ameslarien kabia. Interes-

duna oso, hori bai, aldi hartako bu-ruak gaurkoen erara kokatuak —ez kolokatuak— zeudela konturatzeko.

Merkatu Bakunak eta Europa-ren Alkartzeak orain gorpuztuta ematen dituzten printzipioak 1700-ean dagoaneko jaiok zenitun, ta liburu barruan dionez, aspaldian jaiok gañera, berak bildu ta txukundu bakarrik egin omen ditu, pittin bat preskatu behintzat.

Lau konferentzi edo "Discours"-etan aurkeztuak, arkibiderik gabe argitaratuak, ta irakurri nahi zituana rentzat, surtarako edo arratoientzako (2) alde guzietara banatuak.

Batere nekatu gabe, hortxe bilduta dauden zenbait printzipio askatuko dizkitzut, liburuak dion bezelaxe. Baiño deskuido ez, nekatzerik nahi ez bazendu edo, bertan planto egizu ta jarrai zazu hurrengo artikulura.

Sarrera edo "Preface"-n, beste hamar gauzen artean, batere inportatzaizkigun kontuak dakazki. Pakearen sanua prohatu nahi dizu. Goazemazu ba aurrera. Bere xede frogarri: "aurrerantzean pakea tixkatzea; gerra, baztertu utsean ezifiek egitea, ta pake honek ekarriko lituzken abantaila bentajosak banan-banan erakustea".

Hori bai, ederki pentsatua dauka

(2) Ez dijoa hau okerdesioz edo parre egiteko. Bakar-bakarrik hоек direla gaur artean behintzat liburuen hiru paraderuak.

guzia: Honek ekarri lezazkean oztupauk, beste horren ona, hirugarrenaren zalla ta haruntz dagoanaren ezinekkoa. Dena dauka ondo ikasia; hortxe dakazki beste jendeek egiñiko ojezio ta oztupauk ere. Guzieren damaie errepika. Dirudiane, pakegura horrekin erabat gose eginda zebillen gizona. Baiña halere ez degu ikusten kaso haundirik egin ziotenik. Koloka zebillela irudi jendeari nunbait!

Dana dala, nik ideia ta printzipioen bilduma txiki bat egiña det. Esplikazio ta komentariotako ez nago gaur, goizeko kafesneak ur askotxo ekarri baitu nahastuta. Gañera, frogaketa guzia illaran jarriko banu, bat kentzean haren zulo nabarmenduko litzake ta jostura batean ari bat kentzean gertatzen dena: eten.

**Premier discours:** Prantzi ta Austria-ren arteko "Equilibre" baiño milla bider seguruagoa dela Europa osoaren batasuna.

Anai gazteak beti jotzen du zaharrenarengana auzoko mutiko bat atzetik duanean. Berdin gerta oi da nazio artean: Debilla zuzenean doa indartsu batengana gogorrenaren atzaparrak gañean somatu orduko. Horrela, gerratean sartuak gera batere konturatu gabe.

Betikoak dira gerratearen zio ta oinharriak: batzuk, sekula santan ez dira deseginduko, arik eta Bata-sun jeneral batek inpernuko desterrura bidaltzen ez baditu. Horrela-

ko zerbait lortu nahiean etorri dira "Liga" ta "Tregua" horiek. Baiña hoi en seguridadea ardiartean edo abereartean lo egitea bezelaxe da: gutxina pentsatzen denean, zorrotea. Ez baitzaie "Liga" direlako hoi-eri behar axolarik ematen.

Bestalde, gizona ere beti gixona izan da-ta, grifia ta setak, gorrotoak, anbizioak, anpatasunak, zer ez du berekin? Prakak garbi baditu ere, alkondaran izango du ardomentxa...

Beharrekoa litzake guzien gain-di estrutura edo organizazio bat ezartzea. Estrutura honek obligaziño pare bat ipiñiko litzuzke, guzien onerako noski: Bakoitza bere terrenoan kontentatu dedilla, ta beste nazioen soroean ez daukala suturra sartu beharrik komertzio bidez ezpada; Unio-aren legeak be-tearazi; armak hartzea debekatu, tabar.

Izan ere, armak hartzekoan on-ginahi bat izaten da bultzatzen du-na, geroko ongiaren gose ta es-perantza. Gose hori ase ez dezan organizazio bat jarri behar da ba gañetik. Organizazio hau noski, pa-kenahi, segunrantzi-gura, ta halako batasun tran-kil antzeko batek ba-karrik jarri dezake; guziaren oin-harri hori behar da: egiazko pake-gurea. Bestela laixter dijoaz ankaz-gora asmo guziak pikutara.

Batasun honek beste "Pake" ta hixtorien alde —Prantzi ta Aus-tri artekoa esatebaterako— honoko bentaja ta alderantzi hauek litzuzke:

1) Iñungo eskualden gerrate bil-

durrik eza. Noski, Marroka, Turki, Errusi, ta beste denak sartuko di-ra Unio-Talde honetan.

2) Hetekeko gerra zibillen bildu-rrik eza. Izan ere kontu egin zagu-n pakea nahi dutela guziak. zein al-txatuko da ba? Gañera, armetan jartzen dana, ixtan berean Batasu-naren aurkako deklaratuia izango da ta horduan hor ditu gañetik Tal-deko beste guziak.

3) Lasterri bakoitzak era onetan, ez duke hiñoren bildurrik ta halako seguridadean zein ez dijoa goraka?

4) Komerzio aldetik errexasun osoa. Izan ere, komerzioko hartue-manak gerrateak bakarrik etentzen ditu, ta gerrarik ez baldin badago, eztago beste konturik.

5) Gañera, kastu gutxiago da-kazki, beraz eztago errexago dana esan beharrik...

Ta goazen bigarren "Discours"-era.

Ezin aldatuzko pakea dakar ho-noko kondizio ta baldintz hauek be-te ezker. Lehenen, **zortzi artikulua**. Batasun horrentzat oinharri ta fun-damentu diranak:

I. Lasterri bakoitzak lehendik dauzkanak, oso-osorik gordeko ditu: autaketa edo elezio moduak, lege ta ordenamenduak, erlijio, eskola, tabar.

II. Ez da lurralderik banatuko, ez osatuko, ezta beste bati juntatu-ko, erregalatuko ta horrelako ezer egingo ere. Bakoitza daukanakin konporme bedi bai, ta pake-pakean

izango dira. Konpormatzen ez dakinak, ixil-ixilik eserita egotea du onena, jipoitxo bero bat prohatu nahi ezpadu.

III. Batasun-Taldea, Unioa, minoriak heuren gorde dezaten aleginduko da. Minori hoetako bati hifork puskarik kendu nahi badio, bizkarrean erantsiko zaio pusketako galanta.

IV. Aurrerantzean ez da pakepaperik firmatuko Taldeko hirulahurdenak baietza eman dezaten artean.

V. Komerzio legeak lehendik bezela. Hifork aldatu nahi baditu, Taldeko hirulaurdenen baimena lortu beza aurretik.

VI. Ez bedi hifortxo ere armetan jarri Unioaren aurkakoaren kontra ez bada. Batasun hontan sartu nahi ez duana aurkako bezela begiratua izango da lehenengo egunetik.

VII. Muga ta Fronteratako herrietan Juzgadu ta Tribunalak ezarriko dira.

VIII. Artikulu hauek ezin aldaturiko dira Taldeko oroen baimena lortu arte. Hurrena datozenak kanbiatzekotan, nahikoa da hirulaurdenen baietza.

**Zazpi artikulu Unioa tinkatzeko beharrezkoak:**

I. Estadu bakoitzak ordeko bat edukiko du bere laguntzailleekin. Nohiztik behin herri libre batean bilduko dira.

II. Estadu bakoitzak, haundia

edo txikia izan, boto bakarra izango du.

III. Probintziko uri nagusietan enbajadore bana ipifiko dute Estadu guziek, legeak zuzenetik konplittu ditezen. Hortarako herriko alkateak erreztasun guziak luzaturiko dizkie betebeharra ondo burutu dezaten.

IV. Taldekoek heuren pentsaturiko dute Laterri bakoitzak zenbat soldadu behar dituan, bai gerrate ta bai pake denporan.

V. Beste eskualdetara iges egiten duan menistrua, merezi duanez kestigaturiko da.

VI. Pakearen aurka ari direnak topatzen dituana, behar bezela saritua izango da. Taldekoen firmak urtero berrituko dira.

VII. Ameriketa, Aprika, ta Asian koloniak dituztenei, Batzar-Taldeak emango dizkie komeni legeak.

**Beste sei artikulu Unioaren txortenguziak lotutzeko:**

I. Pakearen Herri deritzan urizentrala nola ta nola izango dan. President, Diputatu ta gaiferako menistroen gain.

II. Unioa edozeifien aurka armetan jartzen bada, jeneralisimo bat lonbraturiko da lehenengo egunetik.

III. Menistru talde guziaren adin ta gaiferako behar diren tasunak.

IV. Bakoitzaren bete-behar pertsonalak.

V. Billerak nohiz eta nola behar dituzten ukan. Zer aztertu behar duten bakoitzean, eta baita koarto

bakoitzean ere. Zenbat sala, nungo hizkera, tabar.

VI. Mugaharriak ondo tinkatu. Laterri bat gehiegi armatzen bada, gehiegizkoak kittatu, tabar.

Horaindik ojezio batzuei errepikaturiko zenbait gauz ba-dira. Hogei urte barru Estadu bakoitzak zenbat pagatu behar duan, lumerotan ematen da; España ta Prantzia dira gehienekoak.

Erdia pasea dugu. Hemendik aurrera laburtuxeago izango naiz. Goazemazu ba trankil aurrera.

### III Discours.

Batasun molde honen ona. Interes zikin gabea. Dagoan interes bakarra pakearen aldetikoa dela frogatzen saiatzen da. Laterri ta errepublika guzieren interesa kontu honetan. Batez ere minoriek hortan daukaten gosea. Ta beste zenbait aldetatik begiratu ezker ahaltsuak ere pakegura jartzen ditu.

Hurrena hamar-hamabi abantaila edo bentaja dakazki: Hona batzuek:

1) Bakoitzak daukan bere lurra-  
ren azinahia, batak bestearen onera-  
ko baztertzea. 2) Arbitroak ipin-  
tzea. 3) Botere ta personalitateen  
azitzea. 4) Legeen aurrerapena.  
5) Arte ta jakituri mota guzieren au-

rrerapena. 6) Bata besteagandiko  
gerrate kezkek erretiratzen direla.  
7) Komerzioa gero ta obeto. 8) Ge-  
rrateak laixterka dijoaz joiankara.

Horietako bakoitza ta beste bat-  
zuek ere arrazoiketa luzeekin fro-  
gatzen ditu. Horrela gertatu dala  
gañera Alemani, Suiza, Belgika ta  
Enrike IV-gnkin.

### IV Discours.

Hau guzia argitaratu aurretik,  
hiru dozena kopia atera omen zi-  
tuan, ta bere lagun batzuei bialdu  
ere bai. Horrela, bakoitzak emani-  
ko iritziakin zenbait zuzenketa egin  
ahal izan ditu.

Ta azkenik, lagun hoiak edo bes-  
te askok jarritako ojezio ta ozto-  
puak: nola gizonen arteko kontua  
dan, ta nekeza dala ongi egitea;  
hainbat erlijio nola konponduko li-  
raken; nagusi gehieginahizko asko  
arkituko lirakela; ez luketela lau  
edo bostek ezik firmatuko, tabar.

Dana dala, hasi bezin optimista  
burutzen du gure pakezaleak ta ez  
dirudi ille asko galdu dituanik be-  
re buruan. Nahi diran beste erres-  
puesta emango dizkitzu.

Bukatzeo hala dio: Belgika-n zaz-  
piren artean, Suiza-n hamahirun ar-  
tean, eta Alemani-n beste hainbes-  
ten artean egin dana, ez da ezñe-  
koa Europa osokoen artean egitea.  
Hori bai, buru kementsu, giartsu



ta egizko bat ezarri beharko litzake, ez edozein kukuxo.

Ta horra bukatu.

Orain zer deritzaizu?

Ondoxamar pentsatzen zutenak ere ba-ziran garai hartan, nik uste. Poliki pentsatu, ta gerrate denboran gaiñera, gibela ere hortxe nunbait izango zuan-da. "Egin bezate nahi dutenak" —esango zuan seguruasko gure pakezaleak.

Behintzat, humorea ere ba-zuan. Arestian esana dizut, sukaldean lapikoa betea zuanetakoa izango zala, bestela... hain baba gutxi helduko zitzaizkion horren ondo pentsatuta ere...

Gañeantzean ba, ezin esango dugu gaizki dagonik ere. Horduko pentsa moldearentzako etzan txarki eroriko noski. Baiña, etzioten kaso haundirik egin, egia. Hain zuzen, betikoa duzu: Nazioaren gailurrera gutxitan dala heltzen pentsazalea dena, gizon praktikua baikik.

Aa, ta praktikuari pakea, harri-matxakari ura ematea litzake. Ta nola pake-pakean erdoitzen behiñere geldituko ez dan...

Nik uste, trankil pentsatuz hoinbestera irixteko ez da oraindik gehiagi.

Egia, aldi haretan, prezio haundikoa zan pakea. Beti bezelaxe noski.

Baiña gerrate ta mixeriekin ere nahiko nozitu zutenak ba-ziran izan, batez ere jende hain praktiku etziranak, artzaiak otsoa bezin urruti ikusi nahi zuten pakezale zenbait.

Baita ere ba-ziran pake santu hori prantatzen alegiñak ta gehiago egiten zituzten jakitun edo jakin-usaikoak. Hauetako izango degu dudikpe gure liburuxkaren autore paxadosoa.

Gehienak —guziak esatea ere betikoa da-ta— etzuten nahi noski burruka ta nahaspillik. Baiña, hor dago ba kokka: Eztizut aspaldi esan, agintariak praktikuzaleak diranean, pakeak ez daukala ezta egoizerearen segurantzirik ere: Ohera pake-pakean sartu diranak gauerdian saltoko igual-igual jeikitzen baitira.

Benetan, garai haietan izanak ziran Europa-ren Batasun Nagusia lortu nahiean zenbait saiaketa. Ondo alperrik halare. Jarri zaitetz zu astotxoari, berez mantxoa dala ere, bere onetik kanpora dabilenean pootx-pootx esaten: erdibira emanda laixter ehantsiko dizu belaunetan edo... Horixe gertatzen zitzairen ba-ta, azpilanean ibilli behar nahi ta nahi ez, ea egoaldiak kanbiorik sumatzen zuan.

Gure liburuxka sortu zuenak ere egin zuan lantxo bat pollita. Guretzat behintzat, orain ideia klase horiek sagar humatuak bezela ixtimatzten dirala, baliosak dira ezin hain-

bestean. Egunero Europa Alkartu nahiaren martxa ta gorabeherak ikusten ditugularik, begira gero penagarria dala eranegun baiño lehen-txegoko garaietan dagoaneko lore-

tan zeudela enteratzea!

Lastime halare hain gutxi aurretatzea! Gure pakezaleak baleki...

Gizajoa! Amets bat eginda zego-da...

---

**Artikulo bat milla gauzatarako egin diteke. Alare, bat da inportantea: irakurtzeko egitea.**

**Irakurle: agertu zazu JAKIN-en irakurri nalko zenukean gaia. Al-dizkariaren bizitza irakurleak zaituztegu. Zer da eskatzen duzuna?**